

Zu hemen zaude. goiena



 gure
esku
dago

BESTE PAUSO BAT, ERABAKITZEKO BIDEAN

Domekako giza katean, 5.000 debagoiendar Araban eta Maltzagan / 5

Zapia, eskutik eskura, Donostia eta Gasteiz artean 201,9 kilometro osatzeko. XABIER URZELAI

Adür
HORTZ KLINIKA

RP9 107/16

25.
urteurrena

Mila esker urte hauetan
bidelagun izateagatik

Arrasate pasealekua 15, behea
20.500 Arrasate • Tel.: 943 79 95 60

**Udarekin batera
abiatuko dira AHTaren
Bergarako lotuneko
obrak, 192,3 milioiko
aurrekontuarekin / 3**

**Miloi erdi euroko
konponketa beharko
du Torresoroak,
uholdeen kalteen
ondorioz / 34**

**Drogen kontsumoa
prebenitzeko
programa bat jarriko
dute martxan
Arrasaten / 13**

**Arrasate-Oñati
antxintxika proba
alderantzizkoa izango
da aurrerantzean,
Arrasaten amaituta / 38**

SINADURAK

	JOXEMARI MUXIKA / 8		MARIJE UGALDE / 29
	SABIN ARANBURU / 24		AGURNE BARRUSO / 48



Jose Luis
Mendilibarri
elkarrizketa
Mondragon Goi
Eskola Politeknikoa:
75. urteurrena

BERRIAk15

ZOZKETA

Zure konpromisoa saritu nahi dugu

BERRIAren 15. urteurrena
BERRIALagunentzako
opariz beteta dator

Sartu webgunean, eta parte
hartu zozketan!

berria.eus/berriak15zozketa

Egin BERRIALagun
ekainaren 19a baino lehen
eta parte hartu zozketan!

1

Astebeteko bidaiak hiru
lagunentzat **Costa Dauradara**.

2

Astebeteko bidaiak bi lagunentzat
Kanaria uharteetara.

3

Lau eguneko bidaiak bi
lagunentzat **Kanaria uharteetara**.

4



Eroskiko **100 euroko** hamabost
erosketa orga.


5



BERRIAren **urte osoko** hiru
harpidetza.

Laguntzaileak

 **EROSKI**

 **EROSKI** bidaiak



berria
BERRIAk15



AHTaren ibilbideko Bergarako zubi-bidea. GOIENA

Bergarako lotuneko obra, uda aurretik martxan

Uda aurretik ekin gura diete AHTaren Bergarako lotuneko lanei. Egungo obra planteamenduak hiru sektore ditu aurreikusirik. Eta lehenengoarekin emango diete hasiera lanei. Bestetik, Aramaioko Udala kexu da obrek bertan eragindako "kalteekin"

Iker Oñate DEBAGOIENA

Hainbat urtez etenda egon ostean, uda aurretik hasi gura dituzte AHTaren Bergarako lotuneko lanak – aurreikuspenen arabera, bukatuta leudeke 2021eko azken hiruhilekorako-. Hain zuzen ere, OHLk, Geotunelek, Construcciones Adolfo Sobrinok eta G&Ok osaturiko aldi baterako

enpresa elkarteak du lotuneko lehen sektoreko lanak egitearen ardura; Arrasate, Elorrio eta Bergara lotzen ditu horrek. Adifek esleituta, 192,3 milioi euroko aurrekontuarekin –BEZA barnehasiko dituzte lanak.

Gauzak horrela, datozen urteetan hainbat azpiegitura eraikiko dituzte Bergarako lotuneko

5,1 kilometroko bidean. Adifek aurreikusitakoaren arabera, zonak hiru tunel ditu beharrezko: Udalatx ekialdea –2,3 kilometro-, Udalatx mendebaldea –2,3 kilometro- eta Kortazar –1,6 kilometro-. Eta, horiez aparte, bi zubi-bide eraikiko dituzte lotuneko bide zati horretan: Arantostei –20 metro- eta An-

giozarko galeria artifiziala –200 metro-.

Orotara, hiru sektore

Espainiako Gobernuak egindako obra plangintza berriak hiru sektore ditu aurreikusita lotunearendako –horrek lotuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuak-. Eta datozen hilabeteetan hasi gura dituzte gainerako eremuetako lanak: lehen sektorea –2,8 kilometro- eta bigarren sektorea –5,2 kilometro-. Guztira, Espainiako Gobernuak 537 milioiko aurrekontua du zehazturik plangintza berrirako.

Besteak beste, adjudikatuta dituzte lehenengo sektoreko obrak ere, 89 milioi euroko aurrekontuarekin. 2,8 kilometroko luzera du bide zati horrek –plangintzako laburrena da-. Eta Elorrio eta Bergara lotuko ditu. Zehatz esanda, 37 hilabeteko lana aurreikusi dute bide zati horrentzat.

Horretan ere zenbait tunel eta zubi-bide eraikiko dituzte, besteak beste. "Bi noranzkoko tunela egingo dugu –Kortazar-, 1,9 kilometro pasakoa. Eta, horrez aparte, bi zubibide –573 metrokoa eta 66koa- eta horma pilote bat izango ditu bide zati horrek", argitu du Adifek. Bestetik, hamabi konexio galeria, hormak, drainadurak eta segurtasunari begirako zenbait elementu eraikitze asmoarekin ere badihardute.

Sektore garestiena

Eta, aurreikuspenen arabera, bigarren sektoreak eroango du aurrekontuaren zatirik handiena. 5,2 kilometroko luzera du lotunearen zati horrek; lehen sektoreak bezala, Arrasate, Elorrio eta Bergara lotuko ditu –beste alde batetik-. Hala, 255,6 milioi euroko aurrekontua dago aurreikusita bigarren sektorearendako. Izan ere, lur azpiko lanak izango dira horretan nagusi –%98, hain zuzen ere-. Tartean, lau tunel eraikiko dituzte bertan.

Aramaioko Udala, kexu

Bestetik, AHTaren lanek hainbat kalte eragin dituzte Aramaion. Eta Lierni Altuna alkateak Legebiltzarrerara eroan du hori. "Udal bideak behin-behinean desjabetu ziren, baina ez dago horren xehetasunik. Eta galdutako bideen ordezkorik ez dago definituta –gainera, katastroan desjabetze guztiak ez daude definituta-; trenbidearen inguruan dauden ur arazoak ez daude konponduta; Zabola eta Untzilla auzuneak konpontzeke daude oraindik; Lugartegi...", salatu zuen Altunak.

537 MILIOI EUROKO AURREKONTUA DAGO AURREIKUSITA BERGARAKO LOTUNEARENDAKO

MUK hainbat egokitzapen egingo ditu Eskoriatzan

Dorleta eraikerako proiektu arkitektonikoari ekin dio Mondragon Unibertsitateak. "Laster" hasiko dira lanak

I.O. ESKORIATZA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Dorleta eraikina egokitzeko egitasmoari heldu dio Mondragon Unibertsitateak. Eta hainbat helbururekin dihardu horretan. Batetik, fakultateak izandako hazkundera dute gogoan. "Dorleta eraikina berri beharra ikusi dugu, besteak beste, fakultateak izandako hazkundera aurre egiteko, eraikin efizienteagoa izateko eta itxuraldatzeko –ikasketa zentroak bultzatzen duen hezkuntza eredu berritzailearekin

bat etor dadin-, azaldu dute Mondragon Unibertsitateko ordezkariak. Era berean, argitu dute "laster" ekingo dietela egitasmo berriko lanei.

Eta, horrez gainera, Eskoriatzarako duen "konpromisoa" berrestea ere lortu nahien artean lukete. "Zerbitzu, eraikin eta ingurune hobe eskaini gura diogu herriari –eta herritarrei-. Beste era batera esanda: campus irekiago, erabilgarriago eta erakargarriago bultzatzea da gure asmoa", esan dute. Eta, horretarako, Eskoriatzako Uda-

larekin dihardute elkarlanean. "Oso estua izaten ari da bion arteko harremana. Baina, betiere, garrantzi handia ematen diogu elkarlanean sakontzeari", diote.

40 urtetik gora Eskoriatzan

Urteak dira Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak Eskoriatzan jardutea erabaki zuela. Hain zuzen ere, 1976an egin zuten eraikina –hori horrela, 40 urte baino gehiago daroatza herrian-. Eta ikasketa zentroko arduradunak "gustura" daude orain arteko bilakaerarekin: "Aitzindari izan zen Euskal Herrian. Eta hazten doa". Esan bezala, azken urteetan izandako bilakaera horrek badu zeresanik Mondragon Unibertsitateak hartutako berritze erabakian.

Eroski Taldeak 33,2 milioi euro irabazi ditu 2017an

Fakturazioak "egonkor" segitzen duela jakinarazi du, eta 167 milioi euro murriztu du finantza zorra

I.O. DEBAGOIENA

Krisiari kontra egiten hastea lortu du Eroski Taldeak. Eta 33,2 milioi euroko irabaziak izan zituen 2017an; hain zuzen ere, datu horrekin, 56 milioi euro hobetu ditu aurreko ekitaldiko emaitzak. Hala, irabaziak izaten hasita, eraldatze prozesua "sendotu" duela adierazi du Eroski Taldeak.

Eta, besteak beste, hori lagungarri izan zaio finantza zorra leuntzeko: 167 milioi euro murriztu dute zorra 2017an –azken hiru urteetan 646 milioi eurora

iritsi da zorraren amortizazioa-. Hori horrela, "betetzat" ditu finantza erakundeekin hartutako "konpromisoak". "Gaur egun, Eroskik negoziatioari ekin dio palanka-efektu finantzarioa erritmo egokian nola egin adosteko, baliabideen sorrerak eta 2019ko uztailetik aurrera Eroskik dituen inbertsio proiektzioak eskatzen duten erritmoan".

Hala, azken urteetan bultzaturiko egitasmo berriak ditu gogoan Eroski Taldeak. Haren esanetan, horien eragin dira "emaitza positiboak".



Mikel Biain eta Iñaki Dorronsoro, aitortza-plaka eskuetan dutela. ENEKO AZURMENDI

Oñatiren ekarpena aitortu du Eusko Ikaskuntzak

Eusko Ikaskuntzak ohorezko bazkide izendatu du Oñatiko Udala, herriak elkartearen sorkuntzan eta frankismoaren osteko berrantolaketan izandako esangurarengatik. Mikel Biain herriko alkateak joan den zapatuan jaso zuen aitortza

Iker Oñate OÑATI

Eusko Ikaskuntzak ohorezko bazkide izendatu du Oñatiko Udala. Ez da edonolako aitortza. Are gutxiago, elkartearen mendeurren urtean murgildurik dago eta. Hain zuzen ere, Oñatiko alkate Mikel Biainek joan den zapatuan jaso zuen aitortza, Eusko Ikaskuntzak Santa Ana antzokian eginiko batzar nagusian. Zehatz esanda, Iñaki Dorronsoro elkartearen presidentek eman zion aitortza-plaka.

Finean, ekitaldia "berezia" izan zen Eusko Ikaskuntzakoendako. Honela aitortu zuen Xabier Alkorkak, mendeurrenako ekin-tzen arduradunak: "Etxean sentitu gara. Ez bakarrik Oñatin gaudelako, guztiok ezagun garelako baizik. Indarberrituta irten gara ekitalditik".

Era berean, Biain "pozik" azaldu zen aitortzarekin. "Gauza polita da guretzako. Eusko Ikaskuntza ahalegin berezia egiten ari da lurraldetasunari dagokionez. Adibidez, errektore kon-

tseiluan sartu da Iparraldeko Euskal Hirigune Elkargoa; eta Nafarroako Gobernuak harremanak normalizatu ditu elkartearekin. Horren harira, aitortu beharra dugu ilusioa pizten digun elkarte delako. Finean, estatugintzaren ikuspegi batetik, lan polita egin daiteke Eusko Ikaskuntzan", azaldu zuen. Eta, hori horrela, elkartearekiko konpromisoa berretsi gura izan zuen: "Oñati beti egongo da Eusko Ikaskuntzari laguntzeko prest".

Hain zuzen ere, Eusko Ikaskuntzaren "garrantzia" azpimarratu zuen Biainek. "Lurralde guztiak batzeaz aparte, alderdikeriak albo batera utziz, baikoitzaren iritzi eta ideologiak

ELKARTEAREN BIRSORTZEAN ESKU HARTU ZUTEN 60 BAZKIDE ERE OMENDU ZITUZTEN

errespetatuz, batera ditugun balioak indartzen dihardu. Etor-kizunerako bidea egiteko balio du", esan zuen.

Eusko Ikaskuntzaren oinarria

Mendeurren ospakizunean murgildurik diren honetan, Eusko Ikaskuntzakoek gogoan dituzte oinarriak. Zehatz esanda, 1918an sortu zen elkartearen Oñatin bertan. Eta ostean ere izan zen esangurazko harremanik herriarekin: Frankismo garaian jardunbidea etenda izan ostean, Oñatin gauzatu zuten berrantolaketaren prozesua, 1978an.

Omenaldirako tartea

Betetik, Eusko Ikaskuntzako zenbait bazkide ere omendu zituzten zapatuan: 1978an elkartearen birsortze prozesuan jardun zuten 60 bazkideren –140 dira guztira– eta ibilbidean elkartearen presidente izan diren lana aitortu zuten. Banan-banan izendatu zituzten, oholtzara igo zitezten –oparixoa jaso zuten–.



Etxeko ospitalizazioko langileak, Debagoieneko Ospitalean. DEBAGOIENeko OSPITALEA

Hamarkada bat igaro da ibarreko lehen etxeko ospitalizaziotik hona

Debagoieneko Ospitalekoek 2008ko ekainaren 2an jarri zuten martxan etxeko ospitalizazioaren zerbitzua

I.O. DEBAGOIENA

Hamar urte igaro dira Debagoieneko Ospitalekoek etxeko ospitalizazioa eskaintzeko erabaki hartu zutenetik hona. Eta akorduan dituzte hastapenak. "Formakuntza saioak izan genituen 2008ko martxotik maiatzera bitartean. Zerbitzu berria antolatzeari ekin genion ostean –antolakuntza, ibilbideen banaketa...–", diote ospitaleko ordezkariak. Hori eginda, 2008ko ekainaren 2an ekin zioten zerbitzua eskaintzeari: "Sei paziente genituen, hiru mediku, bost erizain, laguntzaile bat eta hiru auto".

Eta, sortze egunetik bilakatu joan den arren, diote bere horretan dirautela helburuek: "Pazienteak ospitalean jasoko zuenaren pareko arreta zerbitzua eskaintzeko ahaleginean dihardugu, bere erosotasunari mesede eginez, eta, ahal dela, ospitaleratze behargabeak saihestuz".

Hain zuzen ere, gaur-gaurkoz, bost alorretara bideratzen dute euren zerbitzua: prozesu mediku kroniko eta akutuoak, prozedura kirurgikoak, zain barneko tratamenduak, nutrizio artifizialak eta zaintza aringarriak. Gauzak horrela, asko dira hamarkadako historian izan dituzten pazienteak. "6.500 sarre-ra gauzatu dira, 63.500 egonaldirekin. Eguneko 30 paziente da batez bestekoa", azaldu dute.

Pazienteekiko enpatia

Etxeko ospitalizazioaren bueltan diharduten langileen esanetan, pazienteekiko enpatia maila handitzea ahalbidetzen du zerbitzuak: "Profesionalak izan arren, pazienteak zeu izan zaitezkeen pentsamendua datorkizu burura. Bere *lurraldean* zaude, bere familiarekin. Zerbitzua aberasgarria da senideendako, haren zaintzan esku hartzen dutelako".

Elgetatik igaroko da askatasunaren aldeko martxa, zapatuan

Bihar, aldarri martxa egingo du Euskal Herriak Askatasuna eragileak. *Askatasunaren alde, herri duin bat* leloa aukeratu dute hitzordurako. Eta, Mauletik irtenda, Euskal Herriko hainbat herri izango dituzte geraleku. Besteak beste, ekitaldia egingo dute Elgetako plazan –bihar, zapatua–. 17:30ean hasiko da ekintza.

Tartean, "hautu baskongadista eta autonomistekiko oposizioan nazio askapenaren aldeko aldarria" hedatzea dute helburu. Eta, Elgetaz aparte, bidean zehar beste hiru herritan egingo dituzte geldialdiak –Gernika, Amaiur eta Tolosa–. Horien arteko bidea, ostera, autoz egingo dute, karabanan.

Modu berean, egitasmoaren bultzatzaileek aldarrikatu dute ez dela "ziklo autonomistarik" behar. "Euskal Herriak askatasuna behar du", diote.



» Oñati gestio
heziketa

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

75

75 URTEZ JAKINTZA SUSTATUZ
ETORKIZUNA ERAIKITZEN

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa
- Nazioarteko Merkataritza

MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industriala
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industriala

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91 • 664 277 592



Izen-ematea
Ekainaren 4tik 15era

Aldarrikapena, eskutik eskura

Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko ditu domekako giza kateak, eta Debagoieneko herritarrak bi multzotan banatuko dituzte; 5.000 debagoiendar inguru izango dira

17/18
IKASTURTEA
Matrikula epea ZABALIK

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

ONGI ETORRI
euskarara

UDAL EUSKALTEGIAK
euskararen kateak
www.udaleuskaltegiak.eus

BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA
Bidebarrieta, 18 Oñati. • Tel.: 943 78 24 96 • euskaltegia@onati.eus

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza, 2. • Tel.: 943 79 70 77 • euskaltegi@arrasate.eus

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Barrenkalea, 33 (Irizar jauregia) • Tel.: 943 76 44 53 • euskaltegia@bergara.eus

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

2014ko ekainaren 8an izan zen erabakitze eskubidearen alde Gure Esku Dago dinamikak antolatutako lehen giza kate erraldoia, Durango eta Iruñea lotu zituen.

Lau urte geroago egingo dute bigarrena, domeka honetan, hain zuzen –ekainak 10–. 12:00etan egingo dute katea, eta, oraingo honetan Donostia, Bilbo eta Gasteiz hiriburuak lotuko ditu. Ez da Debagoienetik pasatuko. Hori dela eta, debagoiendarrek bi multzotan banatuko dituzte: antzuolarrak, bergararrak eta elgetarrak Eibartik Maltzagara-

ko bidean egongo dira, 68, 69 eta 70. kilometroetan. Aramaioarrak, aretxabaletarrak, arrasatearrak, oñatiarrak, eskoriatzarrak eta gatzagarrak, berriz, Araba aldera joango dira, Zigoitira. Haiekin izango dira 182 eta 189. bitarteko kilometro guztiak –biak barne–.

Guztira, 5.000 debagoiendar inguruk eman dute izena giza katean parte hartzeko, eta, dagozkien kilometroetara eramateko, autobusak antolatu ditu Gure Esku Dago dinamikak.

Maltzaga inguruan

Esan bezala, antzuolarrak, bergararrak eta elgetarrek Maltzaga izango dute euren tartea.

Antzuolatik 300 bat lagun joango dira, hiru autobusetan banatuta –autobus geltokitik aterako dira hirurak, bi txandatan–. Lehenak 09:00etan irtengo dira eta 68 A1, 68 B1 eta 68 D1 kodea dutenak joango dira autobus horietan. Bigarren txanda, aldiz, 10:00etan izango da, eta 68 A2, 68 B2 eta 68 D2 kodea dutenak joango dira. Gaur izango da azken eguna izena emateko eta autobuserako txartela erosteko, 19:45etik 20:30era, Kalebarrenen.

Elgetan 100 lagun inguruk eman dute izena. Autobus bakarra izango dute eta bi joan-etorri egingo ditu, 09:30ean eta 10:30ean. Bigarren horretan oraindik lekua dago, eta gaur 18:00etatik 21:00etara jarriko dute mahaia izena emateko, plazan.

Bergarari dagokionez, 1.000 lagun inguru joango dira orotara. Horietako batzuk oinez doaz, eta 08:30ean abiatuko dira Bergaratik, Leizeaga kaleko Eroski paretik. Bizikletan doazenak 09:00etan aterako dira, leku beretik. Autobusean doazenek, azkenik, hiru aukera izango dituzte, hiru joan-etorri egingo baitituzte hamar autobusek: 09:00etan, 09:30ean eta 10:00etan. Hauek ere Eroski paretik aterako dira. Bitartean, Bergarako kilometroetan, hainbat ekintza egingo dituzte giroa berotzen joateko. 09:30etik 11:00etara bitartean, erraldoiak, ipuin kontaketa, aurpegi margoketa eta abar egongo dira haurrentzako, eta gazteentzako, berriz, kontzertuak. Horrez gain, trikitilariak, txistulariak eta antzerki taldeak alaituko dute giroa.

Araban

Debagoiendarren bigarren multzoa Arabako Zigoitia udalerrian kokatuko da.

Arrasatearrek 182, 183 eta 184. kilometroak edukiko dituzte, Murga eta Gopegi herrian artean. 1.550 pertsona inguruk eman dute izena, eta 21 autobus irtengo dira, 08:15ean, Garibai geltokitik. Autoz joango direnentzat, aurreko panelean 184 km Arrasate folio batean idatzita jartzea eskatu du Arrasateko Gure Esku Dago-k, gune egokian aparkatu ahal izateko –Murua herrian–. 10:30erako han egotea gomendatu dute, kontuan hartuta ordu bete beharko dela hara iristeko –40 minutu autoz, eta 20 minutu inguru oinez–. Horrez gain, Legutiotik joateko gomendioa egin die dinamikak herritarrei. "Zubitik urtegia gurutzatu eta Barazarrerantz hartu. Ondoren, Gopegirako bidea hartu eta Muruan aparkatzea da onena".

**GIZA KATEKO
HAMAIA KILOMETRO
OSATUKO DITUZTE
DEBAGOIENEO
BEDERATZI HERRIEK**

Herrien tartekak

ITURRIA: GURE ESKU DAGO



Araba

- Arrasate 182, 183, 184. km.
- Aretxabaleta 185. km.
- Eskoriatza eta Leintz Gatzaga 186. kilometroa.
- Oñati 187 eta 188. km.
- Aramaio 189. kilometroa.

Maltzaga

- Antzuola eta Elgeta 68. kilometroa.
- Bergara 69 eta 70. kilometroak.

185. kilometroa aretxabaletarena izango da, eta 640 bat lagun joango dira, haiek ere Maurga eta Gopegi artera. Bederatzi autobus irtengo dira, Azbe paretik, 08:30ean.

Eskoriatzarrek eta gatzagarrek 186. kilometroa osatuko dute, Ondategi herrian. Guztira, 400 lagun inguru joango dira, eta lau autobus beteko dituzte. Autobusak Eskoriatzako tren geltoki zaharretik irtengo dira, 09:00etan. Hala ere, 08:30ean kalejiran joango dira plazatik geltokira. Izena eman daiteke oraindik, gureskudago.eskoriatza@gmail.com helbidera idatzita, eta autobuserako tiketak Gozotxikin daude salgai.

Oñatiarrek bi kilometro izango dituzte Gopegi eta Berriko artean: 187.a eta 188.a. 800 lagunek eman dute izena, eta hamabi autobusetan joango dira. 08:45ean abiatuko dira autobusak Correos eta MUko fakultate aurretik.

Aramaioarrentzat izango da bailarako azken kilometroa, 189.a, Berriko herrian. 250 lagun joango dira, bost autobusetan. Pilotaleku paretik aterako dira autobusak, 09:00etan. Izena emateko azken aukera gaur izango da, eta horretarako mahaia jarriko dituzte 19:30etik 20:30era, okindegi parean.

Ekitaldiak

Giza katea 12:00etan hasiko da, eta bukatzean, hainbat ekitaldi egingo dituzte egun osoan zehar; tartean, Eibarren eta Gasteizen.

Eibarren 13:00etan elkartuko dira, Untzaga plazan. Elektrotxaragaz eta trikitilariz lagunduta helduko dira. Ondoren, erromeria egongo da, Parrapas taldearen eskutik. Bazkaria 14:30ean izango da, Bizimina taldeak antolatuta. Langileek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta ikasle eta langabeek, 10 euro. Bazkalostean, kontzertua eskainiko dute La Basu eta Koban taldeek.

Gasteizi dagokionez, 13:30ean, herri bazkaria egingo dute Burulleria plazan. 15:00etan, *freestyle* askea izango da San Markos kantoian. Ordu berean, Lumen musika taldeak kontzertua eskainiko du Santa Maria kantoian eta DJ Loro Sana Ana kantoian ariko da, hura ere 15:00etan. Azkenik, Ttek elektrotxaragaren emanaldia izango da Fariñas gunean, 16:00etan hasita.

Herritarrok protagonista

Gure Esku Dago dinamikaren Arrasateko eta Bergarako arduradun Jasone Giraldok eta Aitor Erañak azpimarratu dute "herritarrok" direla protagonista, eta erabakitze eskubidea lortzeko bidea pixkanaka egin beharrekola dela aitortu dute. "Kontziente gara herritarrok ez badugu pausoa ematen, ez dela ezer aldatuko. Horrelako helburua daukan mugimendu batek ibilbide luzea behar du. Gauzak ondo egin eta helburu trinko bat lortzeko, gauzak poliki-poliki egin behar dira", azaldu du Giraldok. "Mendi altua da, baina bagoaz pixkanaka gorantz, tontorrera heltzeko bide egokiena topatuz. Herriaren mobilizazioan dago gakoa. Herria ez bada mugitzen, politikariak esperoan egongo dira, baina herria mugitzen bada, politikariak ere mugituko dira", erantsi du Erañak.

Hori dela eta, oraindik izena eman ez duten horiei dei egin diete domekako giza katean parte hartzeko, eta, batez ere, gazteengan jarri dute azpimarra. "Eurena da etorkizuna".

"2014an indar handia batu zen, eta aurten hori gainditzea espero dugu"

JONE AMONARRIZ GURE ESKU DAGO-KO KOMUNIKAZIO ARDURADUNA

2016az geroztik, Gure Esku Dago dinamikako komunikazio arduraduna da Jone Amonarriz (Tolosa, 1993).

Guztia prest domekarako?

la guztia. Autobusen koordinazioa falta zaigu. Kanpora begira, agian, ez dauka horrenbesteko garrantzirik, baina 1.000 autobusetik gora espero ditugu, bakoitzak ibilbide propioa izango du, eta hori ondo koordinatzea ez da erraza izango. Oso baikor gaude. Azken egun hauetan jende asko ari da izena ematen.

Duela lau urte giza kateak erantzun bikaina izan zuen. Orduan besteko indarra espero duzue?

Orduan bestekoa ez, handiagoa espero dugu, eta ziur gaude hala izango dela. Azken urteetako ibilbidean geroz eta espazio zabalagoetara iritsi



ETZI.PM

gara; ibilbidearen diseinua ere hortik dator, jende gehien bizi den eremuetatik pasako baita giza katea, dinamika ahalik eta zabalena izan dadin. Nabari da helburua betetzen ari dela. Herriz herri lanketa oso sakona egin da eta egun, bestelako testuinguru batean gaude, herritarrek egindako ekarpenei esker, neurri handi batean. **Mugarri izango da domeka?** 2014ko giza katea abiapuntu bat izan zen, *Erabakiaren aroa*

deitu dioguna zabaltzeko lehen pausoa. Aurtengoa une berezi batean kokatzen dugu, herritarrok protagonista izan behar dugun une batean, non Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan eztabaida instituzionala izaten ari den Euskal Herriaren estatus politikoaren eta honen etorkizunaren inguruan. Egun historikoa izango da, datozen hamarkadetan izango dugun etorkizun hori erabakiko den unearekin konektatu behar dugulako eta gure ekarpena egin behar dugulako.

Oraindik zalantzan dagoen horri zer esango zenioke?

Esango nioke bera dela euskal gizartearen etorkizunaren protagonista. Elkarrekin gaudenean sentitzen dugu zertarako garen gai. Bestalde, esango nioke domekan irudi ikaragarriak zabalduko ditugula, eta pena izango litzatekeela hori guztiori pantailaren beste aldetik ikusi behar izatea eta damutzea. Beraz, damutu aurretik, izena ematera animatzen dugu jendea.



Goienak parte-hartzaileen begietatik eman nahi du giza katearen berri.

BIDALI ZURE ARGAZKIAK GOIENARA!

688 69 00 07

Goienaren euskarrietan argitaratuko ditugu.

Eskerrik asko!

goiena

Zu hemen zaude.



TXANTXIKU IKASTOLA, Koop. Elkartearen OHIKO BATZAR NAGUSIA GAI ZERREDA

EGUNA: EKAINAREN 26a, MARTITZENA.
ORDUA: 18:00etan lehen delaldian eta 18:30ean bigarrenan.
LEKUA: Santa Ana antzokia

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko.
2. 2017/2018 ikasturteko kudeaketa txostenaren berri ematea.
3. 2017 ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea.
4. 2017ko emaitzen banaketa eta, badagokio, onartzea.
5. Kilometroak 2017ko balorazioa egitea.
6. 2018ko aurrekontus aztertzea eta, badagokio, onartzea.
7. 2018/2019 ikasturteko zerbiltzuen ordalinsarien berri ematea eta badagokio, onartzea.
8. Gurasoen Kontseiluaren urteko jardueraren berri ematea.
9. Errektore Kontseiluko eta Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
10. Galde-eskeak.

OHARRA:

Bazkideei gogorazten zaie sozietatearen egoitzan eskeragarri dituzela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kudeaketa txostena, Batzar Nagusiaren delaldian epean zehar aztertu ahal izan dituzten.

Oñatin, 2018ko ekainaren 8an



ZABALIK

JOXEMARI MUXIKA

Euskara erabiltzeko aukera

Joan den asteko GOIENAn, Patxi Uribarren euskaltzainak zioen: "Euskarak bizi nahi badu, jendeak erabili behar du". Baliteke esaldia ondo jaso ez izana, euskarak ez baitu bizi edo ez erabiltzeko gaitasunik.

Euskaraz bizi nahi duen jende asko solaskiderik aurkitu ezin aritzen da; erakundeetan, batez ere –lantokiak, administrazioak, kirol elkarteak...–.

Ahobizi diren pertsona hauek –jakin eta darabiltenak– zail izaten dute euskara erabili ahal izateko gutxieneko *belarriprest* jarredun aurkitzea –ulertzeko gaitasuna eduki eta entzuteko prest daudenak–.

Hau da, nahiz eta jakin eta erabili nahi dutenak asko izan, ia ez dago euskaraz funtzionatzeko aukera errealik ematen duen erakunderik, ez baitute euskara lan edo funtzionamendu hizkuntza.

IA EZ DAGO EUSKARAZ FUNTZIONATZEKO AUKERA ERREALIK EMATEN DUEN ERAKUNDERIK

Noski, euskaldunok euskara erabili behar dugu, baina honetarako aukera ere izan behar da eta aukera hau izateko baldintza batzuk bete behar dira. Hasteko, euskara komunikazio ardatz izan beharko litzateke alor

guztietan: administrazioan, enpresan, aisialdian, hezkuntzan, literaturan, komunikabideetan... eta, batez ere, ekonomian.

Arlo ekonomikoak gizartean duen pisuarekin, honek euskaraz funtzionatuko balu, hizkuntzak prestigioa hartu eta beste esparruetara hedatuko litzateke, eredu izango litzatekeelako.

Jose Antonio Villar-ek dioten moduan, "euskara beharrezkoa eta nahikoa bihurtzea" beste baldintza bat izan liteke, gaztelera Madrilen edo frantsesa Parisen moduan.

Eta etorkinekin zer? Herritartasuna lortu nahi duten etorkinek ere euskara doan ikasi beharko lukete. Haien kultura eta hizkuntza errespetatu, kontuan hartu, babestu eta laguntzea ere aurrerapausoa litzateke elkartasunez bizitzeko.

Euskara erabiliko bada, hau da bidea, baldintza hauek ezarri dagokion lekua aitortu eta euskarak komunikazio ardatz izaera behar du.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Txanpon berberaren aurpegiak

LUIS ARANBERRI 'AMATIÑO'

[HTTPS://LABUR.EUS/TIU0T](https://labur.eus/tiu0t)
'EIBAR.ORG' -N ARGITARATUA

Euskararen inguruan azken egunotan sumatu diren salaketek eta adierazpenek, batetik, eta espainiar politikagintzan gertatutako hainbat mugimenduk, bestetik, kinka larri jarri ditzakete, euskal gizartearen gehiengoak zeharo normaltzat jotzen dituen oinarri nagusietako bi; euskara eta foru-tradizioa.

Euskaltzale ugari dira, euskararen garrantzia azpimarratu arren, foruei

darien paktismoa gutxiesten dutenak. [...]

Alderantziz, nahiz euskararen garrantzia ez ukatu, badira lege-aditu eta politikari dezente uste dutenak, Euskal Herriaren berezitasunik handiena, apartekoena, zaindu beharrekoena, euskal sistema foralaren oinarrietatik dela.

Batzuei eta besteei erantzute aldera-edo, aipatzekoa da Koldo Mitxelena gudari, irakasle, salamankari, hizkuntzalari eta eruditoa izan zela, euskararen eta foru-paktismoaren garrantzia aldi berean azpimarratzeaz gainera, bi arloen arteko bateragarritasuna beste inork

baino hobeto nabarmendu zuena.

Gogoratu dezagun Koldo Mitxelena iritziz, euskararen meriturik handienetakoa ez dela jatorri ezagunik ez izatea edo beste hizkuntzengandik zeharo bereiztea, gaur egun bizirik iraun izana baizik, mende luze guztien azpitik eta hizkuntza nagusi guztien presioen ginetik. [...]

Nago, kontua ez dela bata ala bestea, biak baino. Nago, euskal hizkuntza eta euskal paktismoa txanpon berberaren aurpegiak baino ez direla. Eta... edo biak aldi berean kontserbatzeko gauza gara, edo ez dugu bietatik bat bera ere gorde ahal izango.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amala Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa
arduraduna Marta Leturia.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Aldizkari digital aberastua aterako dugu Tokikomekin"

IBAN ARANTZABAL GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEKO ZUZENDARI NAGUSIA

Eneko Azkarate ARRASATE

Batzar orokorra egin zuen atzo Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarteak. Ziurgabetasun egoera honetan, urte ona izan du. **Urtea nola amaitu du Goienak, diru kontuei dagokienez?** Parra egin dugu. Goiena irabazi asmorik gabeko kooperatiba da eta ez gara inoiz ibiltzen oso airoso. Urteren batean nasaiago ibili gara eta gehienetan okerrago. Goienarena, eta orokorrean euskal hedabideona, gerra ekonomia izaten da, tamalez. **laz egindakoen artean ze nabarmenduko zenuke?**

Oso isilean pasatzen den kontu bat. Goienaren kazetaritzari sinesgarritasuna ematen diote bezeroek. Hori lantzen dugu inurrien moduan lan eginda, eta oso zaila den arren informazio plural eta sinesgarria egitea, gaur da eguna ez gaudena ezkondu eta alderdi politiko batekin, ez ezelako botere ekonomikorekin. Hori da gakoetako bat



Iban Arantzabal, Arrasateko Goienaren egoitzan. ENEKO AZKARATE

norbanakoen, komunitatearen eta erakundeen arteko komunikazio beharrak modu masiboan asetzeko eta informazio-liderrak izateko eskualdean gaztelarazko hedabideen aurretik.

Aldizkari digital aberastua ateratzekotan zarete. Zertan da? Uztailean ikusiko du argia. Enpresa berri batek kudeatuko du eta Tokikom dago gaian zentratuta. Goienako egoitzan egingo da,

baina ez da Goienarena bakarrik. Kataluniako enpresa bat ere badago tartean, eta Durangaldeko *Anboto* eta Zumaiako *Baleike* ere badaude proiektuan. **Jaso berri dituzue audientzia datuak. Onak dira?** Beste behin, *Goiena* aldizkaria da nagusi eskualdean, askogatik, eta irakurleak irabazi ditu: Gipuzkoan 45.000 irakurle ditu astero eta Debagoienean 38.000. Paperekoen joera da behera egitea, baina ez da gure kasua. Bestetik, Goiena telebistak eutsi egin dio, eta, ikus-entzunezkoak kontsumitzeko eskaintza ugariaren aurrean, hori ona da: 6.000 ikus-entzule ditu egunero. Azkenik, nabarmentzekoa da *Goiena. eus*-en gorakada, %25ekoa; 7.000 bisita ditu egunero. **Egoitza berritzeko asmoa duzue.** Arrasateko egoitza txukundu egin genuen barrutik, inbertsio minimoekin, eta oraindik inbertsio horiek ordaintzen gabiltza. Dena den, eraikinak leiho asko ditu eta hotz denean kanpoan energia xahutzen dugu barrua berotzen eta alderantziz. Fatxada konponduko dugu aurten bertan eta inbertsio honekin energiaren %40 aurrezteko espero dugu.

HAU BE BADOGU!

Eguraldi txarrari aurre egiteko, umorea sarean



Euriarekin eta eguraldi kaskarrekin hasi da ekaina Euskal Herrian, eta erabiltzaileek umorea baliatu dute, beste behin.

@enmipecera: "Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoaren izena aldatzeko proposamena egin du. Gaztelaraz, Pais chuVasco eta euskaraz Euskal Eurria".

@lorearakistain: "Hitz bilatuena 'tiempo' edo 'eguraldia' dira. Ez dakit zertarako, egunero egiten du eurria".

Altsasuko gazteen atxiloketak hizpide

Guardia Zibilak martitzenean atxilotu zituen Altsasuko gazteak, eta *#Altsasu* eta *#Altsasukoakaske* traolak erabilienak izan dira.

@altsasugurasoak: "Gure semeak atxilotzeko ihes egiteko arriskua dagoela alegatu dute. Gezurra! Gure semeek herrian bizitzen jarraitu nahi dute eta ez dute inoiz ihes egiteko intenziorik erakutsi. Zeinen ezberdina den justizia jaiotzen zaren tokiaren arabera. *#Altsasu*" (itzulita).

Ministro berrien gaineko txantxak

Pedro Sanchez Espainiako presidenteak ministroak aukeratu ditu, eta Twitterren umorerako tokia ere izan da:

@MikelPagadi: "Maxim Huerta, Grande Marlaska, Pedro Duque, Karina, Gran Hermano-ko Ismael, Don Pimpon eta Chelo Garcia Cortes".

@alvaro_velasco: "Maxim Huerta, Pedro Duque, Borrell... Ministroen Kontseiluak *Masterchef Celebrity* saioaren *casting*-a dirudi" (itzulita).

ITURRI ONETIK

Debagoieneko Kirol Sariak berriro ere

Debagoieneko Kirol Sariak ekimena berriro erreperatuko dute aurten Debagoieneko Mankomunitateak, udaletako kirol arloen bitartez, eta Goiena Komunikazio Taldeak. 2012an antolatu zuten azkenekoz; Elgetan egin zen sari banaketa ekitaldi hura. Eskualdeko udaletako kirol arloek egoki ikusi dute urtean nabarmendu diren kirolari edo kirol taldeei aitortza egitea, saritzea, eta hori ekitaldi batekin atontzea; eta Goiena Komunikazio Taldean aurkitu dute aliatua.

ALBISTE IZAN ZEN

2007-06-08

Arrikruzeko kobazuloa inauguratu zuten

Araotzeko Arrikruzeko kobazuloa inauguratu zuten, bisitarienezako, urteetan eraberritze eta egokitze lanetan jardun ostean. 2007ko ekainaren 8an izan zen inaugurazio ekitaldia. Lourdes Idoiaga alkateak eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako ahalduen nagusiak ebaki zuten zinta; 120 lagun batu ziren. Asteburuan 450 bisitari jaso zituen Arrikruzek. Ekaitzak, dena den, argi barik utzi zuen, une batean, bisitarien gunea.



TXOMIN MADINA

Eskerrik asko!

NAHIA COTILLAS ETA MAITE SOLAUN
ANTZUOLA

Joan den hilaren 28an, amak eta biok auto istripua izan genuen Sorluzetik Maltzagarako bidean. Errepidean olio zegoenez, autoa ezin kontrolatu eta ezkerrearen kontra jo genuen; inpaktuak erreka aldera bidali, eta uretara jausi ginen. Segituan, bi gizon agertu ziren laguntzera; arnes bana bota eta une oro han izan ziren, zain, ezer gerta ez zedin. Suhiltzaileak eta anbulantzia etorri ziren; eta segituan eraman gintuzten, eskertzeko denborarik eman gabe.

Eskerrak eman nahi dizkiegu bi mutil horiei eta laguntza eskaini ziguten denei, momentuan aukerarik ez baikenen izan. Oso une deserosoa izango baitzen beraien laguntzarik gabe. Beste barik, munduan badela jende ona. Mila-mila esker.

Esker hitzak, maitasun hitzak!

BEÑARDO KORTABARRIA
ANTZUOLAKO ALKATEA
ANTZUOLA

Joan den asteburuko uholdeak majo astindu du herria: kalte nabarmenak Torresoroan, inguruko tailer eta etxabehetan, herriko hodieria osoa harriz eta lokatzez buxatua, nabarmen kaltetutako baserriak, ortuak eta larreak, oso egoera txarrean eta arriskutsuan

geratutako baserri-bideak, arbolak errekararen ibilguan... eta seguru oraindik ez dakizkigun ehunka kalte txiki ere badela. Ahalik eta bizkorren eta ahalik eta modurik txukunenean guztiak konpontzen saiatuko gara.

Ekaitzak bazterrak astindu ditu, eta zenbait jenderen barrua mugiarazi ere bai; tartean, Antzuolako udalbatza osoaren izenean, lerro hauek idazten ari den alkatearena. Hondamendiaren eta txikizioaren aurrean, elkarri laguntzen, batuta erantzuten duen herriaren argazki ikaragarria ezin da diruz ordaindu; hori da dugun aberastasunik handiena. Hortaz, udalbatzaren izenean, zorionak, lehendabizi, portatu zarete! Eta eskerrrik asko!

Eskerrak ere udal-langileei, ordutegi barik eta prestutasunez ari direlako aste osoan; astelehen goizean obrako makinak herria garbitzen jarri zituzten Aldundiko eta obrako arduradunei, larrialdi-zerbitzuei... eta, zela ez, eskertu, beren baliabideak gure esku jartzeko eskaintza egin eta jarri ere egin diguten inguruko udalei: Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Oñati –Antzuolako garbiketa-lanetan hondatutako kamioiaren faktura pasa lasai, Biain!–...

Sare sozialetako animo eta elkartasun mezuak, e-maileko mezuak, herritar arrunten deiak... eskertzeko zerranda luzea da, eta zerrendek badute arrisku bat: norbait ahaztea. Horregatik, zuen ekarpentxoak

egin duzuen guztiei, nahiz eta gu konturatu ez, bihotzez eskerrrik asko Antzuolako udalbatzaren izenean!

Eskerrik asko Arrasateko Lanbide Hastapen Eskolari!

IONE SANTOS
BERGARA

Gutun honen bitartez, eskerrak eman nahi dizkiogu Arrasateko Lanbide Hastapen Eskolari. Badakigu bizitza ez dela erraza, baina, norberaren semeak ezgaitasunak baditu, are zailagoa da. Nire seme Markelek, 10 urte zituenean, Asperger zuela esan ziguten –autismoaren familiakoa–. Orduetik hona, bidea ez da erraza izan.

Aranzadi Ikastolan burutu zituen ikasketak, DBHko 2. mailara arte, baina zituen zailtasunengatik ezin izan zuen jarraitu, eta, euren bitartez, zuekin egin genuen topo. Nahiz eta Markelentzat hasierak eta aldaketak oso gogorrak izan, poliki-poliki moldatzen joan zen, eta hiru urte zoragarri igaro ditu zuekin. Elektrizitate ikasketak burutu ditu, praktikak ere bukatu ditu Gureak-en –mila esker zuei ere, Markel hain ondo zaintzeagatik–, eta harro dago. Sekula ez zuen pentsatuko honaino iritsiko zenik.

Bere familiakook ez daukagu hitzik egin duzuen lana eskertzeko. Ederto zaindu duzue! Beti eramango zaituztegu bihotzean, batik bat, Markelek, nahiz eta,

askotan, emozioak adierazteko zailtasunak eduki.

Mila esker maisu eta langile guztiei –Mikel, Xuxo, Iñaki, Alberto... guztioi– eta, nola ez, zuri, Txisto. Zu izan zara bere zaindaria eta gidaria bi urte hauetan.

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez!

Euskal nafar euroeskualdea

BEÑI AGIRRE
HERNANI

Euroeskualdea deitzen diote. Ez da Udalbiltza, ezta Udalbide ere, baina mugaz haraindiko elkarlanerako baliabide oso interesgarria izan daiteke. Europar Batasunean onartutako izaera juridikoa du eta bere baitan Nafarroako erresuma izan zenaren lurralde ia bera martzatzen du Historia Garaikidea idazteko mapetan.

Errioxa eta beste lurralde batzuen faltan, Akitania, Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa Garaia hartzen ditu bere baitan. Erakunde mota honek Europako bi, hiru edo herrialde gehiagoren mugaz haraindiko elkarlana ahalbidetzen du.

Adibidetzat har daiteke Autonomia Erkidegoko Unibertsitateak, Bordeleko Montaingneko Unibertsitateak, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Akitaniako ESPEK sinatu duten lankidetzak hitzarmena. Ondorioz, Hego Euskal Herriko irakasle eskolako 4. mailako 10 ikasle frantsesezko urtebeteko

prestakuntza jasoko dute eta Akitaniako unibertsitateko beste 20 ikasle euskarazkoa.

Lankidetzak proiektuari *Eskola futura* deitu diote. Ikusten denez, egitasmo handiko proiektu honekin eremu berri bat ireki daiteke, ez lankidetzak estrukturean soilik, baizik eta iruditeria berri bat sortzeko giza eta kultur arloetan.

Badira hamarkada batzuk euroeskualdeak martxan direla. Akitania-Euskadikoa 2011ko abenduan sortu zen, Gaztelak Nafarroa inbaditu eta banatu zuenetik 500 urteko bezperan, alegia.

Izan al daiteke Euroeskualdea frantsesek eta gaztelarrek Europan zatitu zutena josteko tresna? Ez dakit, baina lagundu lagundu dezake oztopatu baino gehiago. Argitxu Etxandik *Muga-gaindi Europatik Euskal Herrira* tesian honi buruz esaten duenez: *Europaren helburua eskualdeen arteko desorekak gutxitzea eta integrazioa lortzea da, eta harentzat eskualdeak eremu garrantzitsuak dira. Beraz, lankidetzak abiatzeko erraztasunak ematen ditu.*

Hala ere, euskal nafarrok badugu aurreko lanik. Zeren eta Europak juridikoki eskaintzen dituen hainbat tresna alferrik izango ditugu, aurretik ez badugu lantzen lurralde eta euskal kultur kohesioa. Hau, ordea, politika da. Politika mailan ez baldin badago lurraldea batzeko eta kohesionatzeko helbururik, *euskal nafar* euroeskualdeak ez du zentzurik izango.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



"Hobetu zure silueta eta azala, kirofanotik pasatu barik"

JULIAN SANZ DOKTOREA

Euskadin, azken bi urteetan, %20 egin dute gora kirurgia plastiko estetiko ebakuntzek.

Euskadin, azken bi urteetan, %20 egin dute gora kirurgia plastiko estetiko ebakuntzek. Euskadiko herritarrek gero eta gehiago jotzen dute kirurgia estetikora. Azken bi urteetan, Euskadin, %20 hazi dira kirurgia-operazio estetikoak, Espainiako Kirurgia Plastiko, Kontpontaile eta Estetikoaren Elkartearen datuen arabera (SECPRE).

Euskadin, kirurgia estetikoko ze ebakuntza mota egiten da gehien gaur egun?

Emakumezkoen artean, bular handitzea eta liposukzioa dira estetika-ebakuntza ohikoena. Eta gizonezkoek dagokienez, gehien eskatzen den ebakuntza blefaroplastia da.

Zein emakumezkoek egiten dituzte bularra handitzeko mamoplastiak?

Bi profil daude: alde batetik, paziente gazteenek bularra handitu gura dute, haien bularren tamaina naturala nahikoa ez dela iritzita.

Bestetik, amak daude, bolumena galdu dutelako eta bularrak jausi zaizkielako haurdunaldiaren eta edoskitze-sasioaren ondoren.

Kasu bietan ala bietan, Euskadin paziente guztiek emaitza



Julian Sanz doktorea, Quirónsalud Vitoria ospitaleko zirujau estetikoak.

ahalik eta naturalena izatea lortu nahi dute.

Ebakuntza segurua da?

Bai. Garapen teknologikoari esker, azken belaunaldiko inplanteek cohesivo izeneko sili-kona-gel bat daukate; eta bigarren mailako ondorioak oso urriak dira.

Zenbat irauten du ebakuntzak eta ze anestesia-mota erabiltzen da?

Ordubete inguru irauten du eta egin daiteke anestesia lokalarekin eta sedazioarekin edo anestesia orokorrarekin..

Zelakoa izaten da errekupezioa?

Pazientea egun batez egongo da ospitaleratuta; horrenbestez, bere egunerokora bueltatu ahal izango da hiruzpalau egunera.

Zertan datza liposukzioa?

Kirurgia-operazio horretan, 2-3 milimetroko zulo bat eginda koipe-pilaketak xurgatzen dira; zulo horretan kanula fin bat sartzen da, koipea xurgatzen duen sistema batera konektatua dagoena.

Abantaila handi bat du horrek: koipea ezabatzen du, oso orbain txikiak utzita, ikusezin izan daitezkeenak, adibidez, azaltolesturetan, pubis-ilean, eta abarretan.

Min ematen du ebakuntzak?

Ebakuntza, berez, ez da mingarria; izan ere, anesthesiarekin egiten da: lokala, epidurala edo orokorra, atera behar den koipe kopuruaren arabera.

Zelakoa da ebakuntza ondorengoa? Pazienteak noiz hasten dira emaitzak igartzen?

Pazienteak ondoeza izango du lehenengo bizpahiru egunetan, baina, hirugarren egunetik aurrera, bizimodu normala egin ahal izango du.

Edozelan ere, esan beharra dago emaitzak ez direla berehala igartzen. Hiru astean zehar, hantu-

ra edo inflamazioa izango da ebakuntza egin den gunean.

Hantura hori txikituz joango da, gutxika-gutxika, drainatze linfatiko masajeen bidez eta hilabete batean zehar pazienteak eraman beharko duen paxa edo faja baten laguntzarekin.

Osatze-prozesua emakumezkoaren arabera da, eta behin betiko osatzea sei hilabetera igar daiteke.

Emaitza iraunkorra da?

Behin kenduta, koipe-zelula ez da berriro irtengo; horrenbestez, pisua hartuz gero, adibidez, modu harmonikoan egingo litzateke. Alegia, ebakuntza izan den gunean ez da koiperik metatuko.

Zein adinetik aurrera egitea gomendatzen da? Adin-mugarik badago?

Gomendioa da pazienteak 18 urte, gutxienez, izatea. Adin-mugari dagokionez, paziente bakoitzaren ezaugarri berezinen arabera da. Edozelan ere, kontuan hartu behar da adinean aurrera joan ahala azalaren berreskuratzea gaitzagoa dela.

Zein paziente motak ez luke egin behar?

Ebakuntza mota hori ez da egokia obesitatea edo gehiegizko pisua duten pazienteendako, pertsona horiek pisua normalizatzen duen arte.

Era berean, ez da komenigarria pazienteak oinarrizko gaixotasunen bat badu edo medikuaren kontraindikazioa badago; esaterako, tratamendu antikoagulatzailea duten pazienteak edo

"BULAR HANDITZEA ETA LIPOSUKZIOA DIRA EBAKUNTZA OHIKOENAK"

Gazte, barrutik eta kanpotik

Medikuntza estetikoko unitatea

Hobetu zure silueta eta azala, kirofanotik pasatu barik.

- Botoxa.
- Azido hialuronikoa.
- Mesoterapia lipolitikoa.

Ospitale batek eskain dezakeen garantia eta segurtasun osoarekin. Eskatu hitzordua: quironsalud.es/portal-paciente/es

Quirónsalud Vitoria Ospitalea
Esperanza kalea 3
01002 Gasteiz
900 250 255

Quirónsalud Pazientearen Ataria
Zure emaitzak lineako lortzen ditu eta zure alpuak kudeatzen ditu quironsalud.es-etan edo gure App-ean.

Hospital quirónsalud
Vitoria

quironsalud.es

Euskaraldiak baditu hamaika enbaxadoreak

Euskaraldiak Arrasaten izango dituen hamaika enbaxadoreak aurkeztu dituzte asteon; horietako bostek 'belarriprest' papera hartuko dute eta beste seiak 'ahobizi'-ak izango dira; guztiek bat egiten dute: "Erronka zaila baina polita da"

Eneko Azurmendi ARRASATE

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo da Euskal Herrian Euskaraldia, eta Arrasaten badituzte dagoeneko Euskaraldia-
ren enbaxadore izango diren hamaika herritarrak. Eguazteen aurkeztu zituzten horiek, Arbolapetan egindako ekitaldian.

Arrasateko GEIKEk herriko euskaltzaleak batu eta aktibatu nahi ditu, herritarren hizkuntza ohiturak aldatu eta euskara gehiago erabiltzera bultzatu, eta helburu horrekin dabilza lanean euskara taldeak, Udala eta ikas-
tetxeak.

Euskaraldian, beraz, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo den horretan, euskaraz dakiten guztiak euskaraz bizi daitezen bultzatuko da eta euskaraz ulertzen duten guztiak euskaraz jardutera.

Hamaikakoa

Horretarako, batzuk *ahobizi*-ak izango dira eta beste batzuk, *belarriprest*-ak. Eguazteeneko ekitaldian, Arrasateko hamaikakoa aurkeztu zuten. Horieta-
tik sei izango dira *ahobizi*-ak. Haiek ulertzen duenari euskaraz egingo diote, hark erdaraz erantzun arren. Ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo diete. Hauek izango dira: Peru Altube, Iñigo Arregi, Jurgi Iraola, Ane Zabala, Arantza Aranzabal eta Malen Ruiz de Azua.

Belarriprest-ak ere badaude hamaikakoa, euskara entzuteko prest daudenak eta gainontzekoei euskaraz egiteko eskatuko dietenak. Hauek dira: Ouiame Ouchen, Vene Herrero, Sergio Valenti, Claudia Dipasquale eta Antonio Murillo.

Zergatik erabaki duzu 'ahobizi' edo 'belarriprest' izatea?



IÑIGO ARREGI
'AHOBIZI'-A

"Gure hizkuntza da eta euskararen alde izanda, laguntzeko prest nago beti. Euskara ikasten ari diren horiei erraztasunak ematea eta laguntzea polita da, eta ez zaigu ezer kostatzen".



ANE ZABALA
'AHOBIZI'-A

"Euskara da euskaldunok dugun altxor preziatua, eta Euskaraldia egitasmo bikaina da altxor hori kalera atera ahal izateko. Beraz, ekimenarekin bat egitea erabaki dut".



PERU ALTUBE
'AHOBIZI'-A

"Aukera polita da euskarari bultzada bat emateko. Azkenaldian jasan dituen erasoak aintzat hartuta, inoiz baino inportanteagoa da euskara maite dugunok hura hauspotzea eta indartzea".



SERGIO VALENTI
'BELARRIPREST'-A

"Duela hamazazpi urte etorri nintzen, Extremaduratik. Arrasateko Udalean egiten dut lan. Hitz egitea zailagoa da niretzat; beraz, nahiago dut *belarriprest* izan. Ekimen interesgarria da".



ANTONIO MURILLO
'BELARRIPREST'-A

"Erronka polita da euskaraz ikasteko, eta bat egingo dut nik ere. Nire kasuan, komunikatzeko eta Euskaraldian parte hartzeko modurik egokiena *belarriprest* izatea dela iruditzen zait".



OUIAME OUCHEN
'BELARRIPREST'-A

"Askok gustatzen zait hizkuntza ikastea, eta iruditzen zait hemen bizita euskara beharrezkoa dudala. Urtebete daramat euskara ikasten, eta asko ikasten ari naiz. Gustuko dut euskara".



JURGI IRAOLA
'AHOBIZI'-A

"Arrasaten gazteek ez dute euskara asko erabiltzen eta erronka hau onartu dut, batez ere, gazteen artean euskara aberasteko. Ea pixkanaka hobetzen goazen euskararen erabileran".



ARANTZA ARANZABAL
'AHOBIZI'-A

"Euskaldun berria naiz. Euskaltegira joan nintzen nire euskara hobetzeko; izan ere, ikasketak erdaraz egin nituen. Saiatu behar dugu euskaraz gehiago hitz egiten, ez dadin galdu".



VENE HERRERO
'BELARRIPREST'-A

"Euskara ikasten ari naiz, eta ekimen honekin bat egitea erabaki dut, etorkizun batean euskaraz lan egitea gustatuko litzaidakeelako. Euskaraldia aproposa da euskara ikasi nahi dugunontzat".



CLAUDIA DIPASQUALE
'BELARRIPREST'-A

"Argentinarra naiz. Bi ume ditut eta euskaraz hitz egin nahiko nuke haiekin, baita beste guztiekin ere. Baina oraindik ez dut ondo menderatzen euskara, eta, oraingoz, *belarriprest* izango naiz".



MALEN RUIZ DE AZUA
'AHOBIZI'-A

"Euskaraldiarekin bat egitea erabaki dut, eta *ahobizi* izateko prest nago. Euskaraz egingo dut eta euskaraz egiten lagunduko dut. Nik konpromiso hori hartuko dut. Eta zuk?".

Beste pauso bat, drogen kontsumoa prebenitzeko

Drogen kontsumoa prebenitzeko programa berria jarriko dute martxan ikastetxeetan, Arrasateko Udalak eta San Juan de Dios ospitaleak sinatutako hitzarmenari esker. Datorren ikasturtean ekingo diote DBHko ikasleentzat eraikitako egitasmoari

Iker Oñate ARRASATE

Drogen kontsumoaren prebentzioa erdigunean, hitzarmena sinatu dute Arrasateko Udalak eta San Juan de Dios ospitaleko arduradunek. Zehatz esanda, @rrasate proiektua izenekoak 13 eta 16 urte bitartekoak ditu ardatz –DBHko ikasleak–. Eta datorren ikasturtean ekingo diote horri. Hala, asteon, lau urterako hitzarmena sinatu dute Maria Ubarretxena alkateak eta Angel Agiriano San Juan de Dios ospitaleko zuzendariak.

Eta egitasmoaren bultzatzaileek argi dute helburua. "Asmoa ez da ikasleei zer egin behar duten esatea, drogen eta horien eraginen inguruko informazioa eskaintzea baizik. Erabakiak har ditzaten ahalduz, aitortu du Agirianok. Ospitalean dauden gazteen laguntza izango dute horretarako. Hain zuzen, Arizmendi Ikastolako eta Arrasateko Institutuko hainbat ikaslek San Juan de Dios ospitalean gauzatuko dituzte programako zenbait saio –DBHko 3. eta 4. mailetan dihardutenak–.

Besteak beste, bizitakoa ezagutaraziko diete gaixoei. "Finean, uste dut eraginkorragoa izan

daitekeela lehen pertsonako kontakizuna. Kasuak erien euren ahotik ezagutzea. Ikasleek aintzat hartuko dituzte, seguru", azaldu du Ubarretxena.

Era berean, San Juan de Diosko gaixoei ere lagungarri izan dakieke esperientzia. "Mesede egingo die programak. Ikasleei ez ezik, euren buruari ere azaltzen baitiote bizitakoa. Eginda koaz jabe daitezen balio dezake, esaterako", dio Emilio Martin Tejedor psikologoak.

Eta, era berean, Arrasateko ikastetxeetan martxan diren droga-mendekotasunaren kontrako egitasmoen osagarri izan gura du @rrasate proiektua-k. "Programa berria baliagarri izango da aurretik eginga dugun lana osatzeko. Aberasgarria izango da, duda barik", argitu du Maite Aizpirik, Prebentzio teknikariak.

Egoera erreala ezagutzeko

Modu berean, Arrasateko gazteen kontsumoaren inguruko informazioa eskuratzeko bide izango da egitasmoa. Hain zuzen ere, ikasleek horri lotuta bete behar du duten galdeketa izango da horretarako bitarteko.



Udal ordezkariak, ikastetxeetakoak eta ospitaleko langileak, astelehenean. IKER OÑATE

Salgai jarri dituzte dragoi-janerako txartelak

Eskuragai daude dragoi-janerako txartelak; 10 eurotan eros daitezke AEDn, AEKn, Monten, Jaizalen eta Iratin. Zehatz esanda, ekainaren 24an egingo dute afaria –21:00etan–, eta dragoi-menuaz gozatzeko aukera egongo da horretan –dragoi-txuletak piperrekin, gazta, irasagarra...–. Bestetik, hanburgesa begetalak ere eskainiko dituzte aurten.

Protesta egin dute Altsasuko gazteen atxiloketak salatzen

Altsasuko gazteen atxiloketak salatzen, elkarretaratzea egin zuten eguaztenean. Sortuk, AGAKOK, EHEK eta Ikasle Abertzaleek egin zuten protestarako deia. Eta ez da azken egunetan auziari lotuta egin den lehen elkarretaratzea: Altsasuko gazteen kontrako ebazpena salatzen protesta ere izan zen egubakoitzean.

INFORMAZIO ETA ERRESERBAK
722 640 164 manex@amuitz.com

BIZIPEN NAUTIKO AHAZTEZINAKI!

BERRIKUNTZA & KALITATEA

INFORMAZIO OROKORRA

LEKUA
Aldayeta Klub Nautikoa
Uribarri-Ganboa · 01520 · Araba

ORDUTEGIA
10:00am - 20:00pm

NORI ZUZENDUA
Banakako jarduerak, taldeak, koadriak, ezkongaien agur jaiak, enpresa taldeak, ikasleak, familiak...

BALDINTZA
Igeri egiten jakitea

GUTXIENEZKO ADINA
8 urte (*) Gutxienezko adina familian eta taldean datozenezko umeentzat: 5 urte (Aurretik kontsultatu)

GOMENDIOA
Aldatzeko erropa. Uretako oinetakoak, bainujantzia, eskuoihala eta eguzkitako krema.

ALOKAIRUA

KANOA HAWAIIARRA

KAWAN OC1 Gutxienezko taldea 4 pertsona

Ordu 1	15,00€ /
1.30 ordu	19,00€ /
2 ordu	25,00€ /

DA KAI OC4 3 pertsona eta monitorea

Ordu 1	15,00€ /
1.30 ordu	20,00€ /
2 ordu	25,00€ /
3 ordu	30,00€ /

(*) 5 urteko umeak herrialdeko 10,00€ Aurretik kontsultatu.

STAND UP PADDLE

SUP Gutxienezko taldea 4 pertsona

Ordu 1	12,00€ /
1.30 ordu	16,00€ /
2 ordu	20,00€ /

Alokairu ordutegia
Egunero. 10:00 am - 20:00 pm

IKASTAROAK

KANOA HAWAIIARRA Gutxienezko taldea 3 pertsona

2 ordu	35,00€ /
--------	----------

STAND UP PADDLE Gutxienezko taldea 4 pertsona

2 ordu	35,00€ /
--------	----------

Ikastaroen ordutegia
Egunero. 10:00 am - 20:00 pm

IKASTARO INTENTSIBOAK

KANOA HAWAIIARRA Gutxienezko taldea 4 pertsona
Astelehenerdik ostiralera, 5 egun, aste 1.

5 ordu	75,00€ /
--------	----------

STAND UP PADDLE Gutxienezko taldea 4 pertsona
Astelehenerdik ostiralera, 5 egun, aste 1.

5 ordu	75,00€ /
--------	----------

Ikastaroen ordutegia
Egunero. 10:00am - 11:30am | 14:00am - 15:30am
12:00am - 13:30am | 16:00pm - 17:30pm

KONTAKTA GAITZAZU! ZURE BEHARRETARA MOLDATUKO GARAI! 722 640 164 manex@amuitz.com



Ikasle bat, zinegotzien aurrean, *Agenda 21* programaren baitan egindakoak azaltzen. XABI GOROSTIDI

Ikasleen ideiak mahai gainean

6 eta 18 urte bitarteko herriko ikasleek uraren gaia landu dute aurten, 'Agenda 21' programaren baitan. Herriko iturriak, iturburuak eta errekek aztertu ostean, hamaika proposamen zehatz helarazi dizkiete udal ordezkariari, ekaineko osoko bilkuran

Xabi Gorostidi ARRASATE

Martitzenean, urarekin lotutako proposamenez bete zuten udalbatza herriko ikasleek. Ekaineko osoko bilkura egiten zela baliatuta, bilkurako gelako aretoa ikaslez eta irakaslez bete zen, urtero egiten duten bisitarrekin. Arrasate Herri Eskolako, Arizmendiko eta Arrasate BHIko 6 eta 18 urte bitarteko gela ordezkariak mikrofonoa hartu zuten, banan-banan, zinegotziei *Agenda 21* programaren baitan landutakoak helarazteko. Eman-dako datuen artean, Arrasaten eguneko 4.000.000 ur litro kontsumitzen direla azaldu zuten, eta ura hobeto erabiltzeko hamaika proposamen zehatz eskatu zizkieten zinegotziei.

Urari buruzkoak

Ekimen hori egiten den 15. aldia izan da. Aurtengo gaia ura izan da, baina, aurretik, zaborra, ura, energia, kontsumoa, publizitatea, ekitatea, zarata eta uhin elektromagnetikoak, elikadura jasangarria, bioaniztasuna, mugikortasuna, eta bizitzeko herria gaiak landu izan dituzte. Iaz klima aldaketaren gaia jorratu zuten, eta aurten urarena landu ostean, datorren ikasturtean nekazaritza eta nekazaritza kultura gaia aztertuko dute.

Lehenik, azterketa

Proposamenak fundamentuz egiteko hainbat ekintza eta azterketa egin dituzte gazteek.

Errekei dagokienez, Deba eta Madariaga ibaietara joan dira, bertako uren kalitatea neurtzeko. Debaren kasuan, erreka inguruan zabor asko aurkitu dutela azaldu zuten –plastikoak nagusiki– eta garbiketa saio txikiak egin dituzte.

Herriko iturriak ere aztertu dituzte: Sarta Barbaran, Munarren eta San Andresen daudenak, hain zuzen. Iturri horiekin hainbat proba egin dituzte, nola dauden jakiteko eta zenbat ur botatzen duten ikusteko. Horrez gain, Meatzerrekako Beneras iturburuaz egagutu dute, kiroldegiko uraren erabilera aztertu dute eta Oñatiko zentral hidroelektrikora joan dira, besteak beste.

Hamaika proposamen zehatz

Hauek izan ziren zinegotziei helarazi zizkieten konpromisoak: herriko ibaiak garbitzeko egunak antolatzea, espezie inbaditzaileak ezabatzeko neurriak hartzea, hutsik dauden urmaelak balioan jartzea –Monterongoak, adibidez–, ur-saltoak kentzea, kaleko iturri batzuen emaria eta presioa txikitzea, ibai ertzetako basoak berreskuratzea, estoldetan pila-tzen den zaborra sarriago garbitzea, kaleko iturrien inguruak garbitzea –Munarkoa, adibidez–, Monterron parkean iturri bat jartzea, mehatxatutako espezieak babestea –bisoi europarra adibidez– eta ura altxor gisa baloratzeko kontzientziazio kanpainak egitea.

Adierazpena eta mozioak, onartuta

Martitzeneko bilkura berezia izan zen hainbat arrazoiengatik, baina horietako bat izan zen oposizioak planteatutako mozio guztiak onartu zituztela. Bi izan ziren, eta horiek onartu baino lehen adierazpen instituzional bat irakurri zuten –hirurak osorik irakur daitezke *Goiena. eus-en*– nazioarteko gai bati buruz.

Adostasuna Palestinarekin

Lehenik eta behin, Palestinarekin lotutako adierazpen instituzionala irakurri zuten. Alderdi guztiak ados jarri dira *Nakba*-ren 70. urteurrena, AEBek Jerusalemara enbaxada aldatzea eta azken protestetan izandako 59 heriotzak salatzeke.

Adierazpena irakurri ostean, gaiari buruzko iritzia eman zituzten Baleikeko eta Irabaziko zinegotziek. Horrek Alderdi Sozialistaren haserrea eragin zuen; euren ustez, adierazpen instituzional bat irakurri ostean "irakurketa partidistak soberan" daudela iritzita.

Indarkeria matxista

Arazo horren aurkako adierazpen instituzionala ekintzetara pasatzeko, Baleikek sei ekintza planteatu zituen mozio bidez, eta aho batez onartuak izan ziren. Genero ikuspegiari buruzko formakuntza planak eskatzea Jaurlaritzari politikarientzako eta udal langileentzako, Indarkeria

Matxistaren Aurkako Estatu Pakturako hitz emandako 200 milioi euroak exijitzea Madrilloko Gobernuari, indarkeria matxisten aurkako kartel bat jartzea Kulturaren mugimendu feministak erabakitako esaldi batekin, protokoloa berrituz gain udalerriko festa egun guztietan indarkeria matxisten aurkako kanpainak egitea, Arrasateko memoria feminista sortzea eta berdintasunezko kale-izendegi bat egitea.

Adierazpen askatasuna

Gai horri buruz irabazik aurkeztutako mozioan artea eta demokrazia defendatzeko beharra azpimarratzen zen azkenaldiko hainbat gertakarien harira; rap-kantarien eta txiolarien atxiloketak, adibidez.

Kale garbiketako plegu berriak

Bi enpresen arteko lehiaren eraginez, hutsik deklaratu zuten herriko kale garbiketa esleitzeko lehiaketa publikoa. Hala, zerbitzua berriz esleitzeko pleguak onartu zituzten martitzenean, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin.

Obra, Zerbitzu, Mantentze Lan eta Auzoetako batzordeko buru Oscar Garciak azaldu zuen plegu horiekin zerbitzuaren kalitatea hobetu egingo dela. "Makineria modernoago eta eraginkorragoa erabiliko da eta lanpostu gehiago sortuko dira; betiere, zerbitzua hobetzeko helburua lortzeko". Exekuzio epea lau urterako izango da, beste urte bat luzatzeko aukerarekin. Irabazik kritikatu egin zuen hori, legealdi hau eta hurrengoa "hipotekatu" egiten direla iritzita. Oscar Garciak esan zuen lau urtera eginez makineria modernoa amortizatzeko aukera gehiago daudela, epe laburragoetara eginda baino. EH Bilduk kritikatu egin zuen pleguak ez duela parekidetasuna kontuan hartzen, eta ez duela kale garbitzaileen euskara maila bermatzen. Erretiratzen diren langileen ordez emakumeak sartzea proposatu zuten batzordean, baina ez zen pleguetan onartua izan. Euskara mailari lotuta, Garciak azaldu zuen plegu berriak euskara plan bat aurreikusten duela gaur egun euskaraz ez dakiten kale garbitzaileentzat, eta euskara jakintza minimo bat eskatzen dela kontratazio berrientzat.

Etxez etxeko langileen auzia

Aurreko astean greba mugagabea iragarri ostean, agerraldia egin zuten, Clece enpresarekin negoziazioa desblokeatzeko konpromiso politikoak eskatzeko.

Akordiorako gakoa bajak betetzeko baldintzetan dago. Clecek beste proposamen bat egin du astean horri lotuta, baina langileentzat ez da nahikoa. Eurek %100 estaltzea eskatzen dute, baina enpresa ez dago hori onartzeko prest.

Eskaini dietena izan da aldi baterako bajen %75 eta laneko bajen %100 estaltzea lehen 21 egunetan –ostean, %75 estaliko lituzkete-. Eurentzako baldintza horiek ez direla "onargarriak" esan zuten.

Alkateak hitza hartu zuen, eta bi aldeekin elkartu direla esan. Kontratua uztailaren 31n agortzen denez, lehenbailehen plegu berriak atera behar dituztela azaldu zuen, abuztuaren 1etik aurrera zerbitzua ematen jarraitzeko. "Pleguetan hitzarmen hobea izatea nahiko genuke, baina hori zuen erabakia da". Oposizioko alderdiek babesa eskaini zieten langileei. EH Bilduk Oñatin lortutako akordioa jarri zuen adibide gisa, Irabazki zerbitzua udalekotzea eskatu zuen eta Baleikek adierazi zuen Udala langile horien "esplotazioaz" baliatzen dela. Zerbitzua udalekotzea zaila dela azaldu zuen PSE-EEK, langileak kaleratu behar direlako eta ondoren oposizio prozesu bat gainditu beharko luketelako.



Karme Loiti. X.G.

Auto klasikoen hirugarren topaketa egingo dute domekan

Goiena Classic Club taldekoek ibilgailu klasikoen beste jai bat antolatu dute etziko. Arruena parkea motordun harribitxiz beteko dute, beste behin, eta aurtengoa hirugarren edizioa izango da.

"Dinamika aurreko urteetako antzerakoa izango da, baina aurtun, adibidez, stand gehiago izango ditugu. Pixkanaka, gorantza goaz", azaldu du Kaiet Martin antolatzaileak. "HR Detailing, Stilo Racing, La Creme Clothing eta Think Fast Racing etxeen standak izango ditugu aurtun". Iaz 250 ibilgailu erakartzea lortu zuten eta aurtun zifra hori gainditu nahi dute.

10:30ean hasiko dira ibilgailuak Arruena parkera heltzen eta 11:30ean irteera bat egingo dute. Lehen 100 parte hartzaileek opari berezia jasoko dute, eta 12:30ean egingo dute opari banaketa. Goiz osoko ekintzen ostean, 15:00etan bazkaria egingo dute.

Urte amaierako jaiak egingo dute gaur Arizmendikoek

Denetarik izango du gaurko jaiak. Goizean, ginkana egingo dute Lehen Hezkuntzakoek, eta Olartekoek, aldiz, danborrada. Arratsaldean, Biteri izango da jaiaren erdigunea, askotariko ekintzekin: txalaparta ikuskizuna, bertsolariak, ikasleen ikuskizunak, euskal dantzak, *shuffle*-a, *parkour*-a eta ipuin kontaketak.

Haurren danborradan zaldi gainean joango direnak, aukeratuta

Aitzol Rodriguez izango da jenerala, aurtengo haurren danborradaren aurrealdean zaldian joango dena.

Haren atzetik, ondorengo banderadunak joango dira: Arrasateko banderarekin Nahia Barandiaran, ikurrinarekin Maialen Lasaga eta SUDCen banderarekin Libe Alonso.

Gazteentzako sei ekintza interesgarri 'Udaixe'-ren eskutik

Ekainaren 27an Usakora irteera, 27an Donostiara irteera eta sexualitate tailerra eta 29an afaria eta pelikula gaztegunean. Uztailaren 2an Mutrikura *snorkel*-a egitera, 4an argazkigintza ikastaroa eta 6an Zarautzen surf ikastaroa. Sorta osoak 30 euroko prezioa du. Izen emateak: gazte bulegoan eta *online*.

OHARRAK

Maika Palacios

Aita Menni ospitaleko mediku zuzendari izendatu dute.

Harreman-en tonbola

539 izan da Eroski Bidaiein oparia jasoko duen zenbaki saritua.

Pentsiodunak

Manifestazioa egingo dute astelehenean, 19:00etan.

Gure Ametsa

Gatzaga

Ezkontza berezia eta ahaztezina!



943 71 49 52
Leintz Gatzaga
www.gureametsa.es

"Zelaian eta kanpoan izan behar da kapitain"

AINHOA ALONSO EIBAR TALDEKO KAPITAIN OHIA

Denboraldia amaitu berri, taldea uztea erabaki du Ainhoa Alonsok, Eibar taldeko jokalaria. Eibarren erreferente, bere ibilbidea amaitu egin dela adierazi du

Imanol Beloki ARRASATE

Ainhoa Alonsok (Bergara, 1989), Eibar futbol taldean hainbat urtez jokatu ostean, pasa den astean erabaki zuen futbola uztea. Eibarren erreferentea da, eta kapitain ibili da erdilaria azken lau urteetan, zazpi zenbakia atzean izan duela.

Zelan laburbilduko zenuke zure kirol ibilbidea?

7 urte nituenean hasi nintzen futbolekin jokatzeko, Bergaran, eskolartekoan, 14 urte bete nituen arte. Gero, territorial mailan urte bat jokatu nuen, eta, urte bat egin ostean, Eibarrera joateko proposamena egin zidaten, eta 15 urterekin joan nintzen. Han, bost denboraldi egin nituen, eta gero, urtebete Sorraluzen jokatu nuen. Ostean, Mondran lau denboraldi egin nituen, eta Bigarren Mailara igotzea lortu genuen. Bigarren Mailan beste bi denboraldi egin ostean, berriz, Eibarrera bueltatu, eta beste bost denboraldi eman ditut, gaur egun arte.

Eibarren, azken bost denboraldietako lau, kapitain. Ardura handia, ezta?

Zelaian bai, baina zelaitik kanpo ere ardura batzuk izan behar dira, kapitaina zaren heinean. Kapitain izateak gauza asko ditu: taldea hain ondo ez dagoeanean aurrera ateratzea, gatazkak konpontzea, aldagelako *piña* esaten dena sortzea, eta abar, eta abar.

Zergatik hartu duzu futbola uzteko erabakia?

Eta honi bukaera ematea erabaki dut. Hiru entrenamendu izaten ditugu astean; batzuetan, lau. Maila zorrotza da, bidaia asko izaten ditugu, lana ere badago... eta hurrengo urteko denboraldiari begira, proiektu sendoa dator, eta zorrotzasun maila handitu egingo denez, nire etapari amaiera ematea erabaki dut. Taldeari ezingo diot-eta eskaini merezi duena.



Ainhoa Alonso, Eibar taldeko jokalaria, baloiarekin. CAPTURASPORT

"NIRETZAT, FUTBOLA EZ DA KIROL BAT BAKARRIK; LAGUNAK ETA FAMILIA ERE SORTZEN DIRA"

Nolako bilakaera izan duzu Eibarren hasi zinenetik?

Eibarrera heldu nintzenean, jokalaria gazteena nintzen, esperientziarik gabea, ez nuen inongo formakuntza tekniko espezifikorik, eta, Eibar bezalako talde serio batek dituen baliabide eta dinamikekin, ez nekien gauza izango nintzen, baina oso ondo hartu ninduten. Lehenengo urtean, partidu asko jokatu nituen, gol batzuk sartu ere bai, eta handik aurrera eboluzioa ona izan zen.

Hainbeste urte Eibarren... taldeko erreferentea ere bazara, ezta?

Balioak, konfiantza... hartu ditut taldean, eta orain, alderantziz. Ni naiz taldeko beteranoa, eta atzetik datozenei esperientzia eta balioak erakustea tokatzen zait. Futbola ez da kirol bat bakarrik; lagunak eta familia ere sortzen dira, eta, zelaian ez egon

arren, laguntzeko prest egongo naiz beti...

Denboraldiko azken partiduan, omenaldia jaso zenuen, ezta?

Eibar klubeko urrezko insignia oparitu didate, bertan egindako ibilbideagatik. Bideo batzuk ere egin dizkirate, eta jokalariek, bestalde, azken jardunaldiaren ostean, betiko gordeko ditudan oroigarri batzuk oparitu zizkidaten.

Denboraldi bikaina aurtengoa, ezta?

Emakumezkoen taldea Bigarren Mailara eta gizonezkoena Lehen Mailara igotzean, baliabide asko agertu ziren Eibarren, eta indartzen ari den taldea da; batez ere, emakumezkoen talde nagusia. Aurten, hirugarren postuan amaitu dugu, eta aurretik Athletic B dugu. A taldea goian edukita ezin du igoera fasea jokatu; beraz, guretzat, bigarren geratzea bezala izan da, Logroño liderraren atzetik.

Azken mezurik?

Eskerrak ematea; bertako teknikari guztiei eta, batez ere, taldekideei eta familiari. Beraiengatik izan ez balitz, ez nuen lortuko hainbeste urtetan futbolarekin horrenbeste disfrutzea. Aupa Eibar!

Gimnasten kurtso amaierako erakustaldia

Pasa den zapatuan, Euskadiko Txapelketa jokatu zen Durangon. Bertan, emaitza bikainak lortu zituzten Arrasate Dragoi taldeko gimnastek. Zapatu honetan, berriz, 11:00etan hasita, Uarkapeko frontoian kurtso amaierako erakustaldia egingo dute.

Arrasate Dragoi taldea osatzen duten 130 gimnastek -5-20 urte bitartekoak- urte osoan egindako lanak erakusteko aukera paregabea izango dute. Taldeka eta bakarka egindako dantzetan, pilota, soka, uztaia, mazoak eta zinta erabiliko dituzte. Horrez gain, klubeko aerobikeko partaideak ere bertan izango dira eta aurtengo koreografiak eskainiko dituzte.

Mondrak kirol sariak banatuko ditu bihar Monterronen

Zapatuan 12:30ean batuko dira Mondra futbol klubeko taldeak Monterronen, denboraldi amaierako sari banaketa egiteko.

Sari hauek banatuko dituzte bertan: batetik, nabarmentzeko jokalaria. Talde guztiek jasoko dute, eta ez da izango kalitate-teknika handiena duen jokalaria. Sari horrekin taldeko jokalaria onena saritu nahi da, eta Mondraren balioak ondoen islatu dituenak jasoko du. Entrenatzaile onenarentzat ere izango da saria. Eta, azkenik, senior mailako gizonezkoetan eta emakumezkoetan hiru sari izango dira: kemenaren saria, golegile nagusiarena eta jokalaria onenarena.

San Balerio ezagutzen

San Balerio inguruak balioan jartzeko bi ekintza aurkeztu zituzten Naturtzaindiak, Sustrabarrak eta Besaide Mendizale Elkartek. Hala, pasa den astean egin zuten horietako bigarrena. Monterrondik abiatu, San Kristobal eta Meatzerrekatik pasatu eta San Balerion amaitu zuten ibilbidea 68 lagunek, ibilbidean hainbat geldialdi eginez.



BESAIDE MENDI ELKARTEA



ARRASATE-ARLUTZ XAKE TALDEA

Tornay, Gipuzkoako txapeldun

Emakumeen Gipuzkoako Xake Txapelketako azken txanda jokatu zuten pasa den zapatuan, ekainaren 2an, Donostian, eta Arrasate-Arlutz taldeko Haizea Tornayk txapela lortu zuen. Guztira, bost txanda jokatu dituzte, zapaturo partida bat, eta Haizea Tornay partida guztiak irabazita nagusitu da torneoan.

Punta-puntako ahotsak entzungai Gala Lirikoan

Azken urteetako ohiturari jarraiki, Gala Lirikoa antolatu dute Arrasate Musikalekoek. Eta puntako ahotsak izango dira hitzorduaren protagonista. Gauzak horrela, hamahiru lagun inguruk jardungo dute Kulturateko agertokian, 18:00etan hasita

Iker Oñate ARRASATE

Arrasate Musikalekoen ekimenez, puntako ahotsak entzuteko aukera izango da gaur Kulturaten -18:00etarako finkatu dute hitzordua-. Hori lortu nahirik, hamahiru abeslari inguruk esku hartuko dute hitzorduan. "Emanaldirako propio aukeraturiko abeslariak dira, goi mailakoak. Batzuk nire ikasle dira abesbatza eskolan; beste batzuk konserbatorioko ikasle bilakatuak dira", azaldu du Tere Gonzalezek, Arrasate Musikaleko irakasle eta ekinbidearen arduradunak.

Esan beharra dago, bestetik, bi urtean behineko ekimena dela Gala Lirikoarena. Eta ez

dituzte kontzertu asko eskaintzen; normalean, Arrasate eta Aramaio dituzte jardun-leku -duela bi aste izan ziren Aramaio-. "Emanaldiak harrera ona izan zuen bertan. Gala Lirikoa bukatuta, kritika baikorrak helarazi zizkigun jendeak. Tartean, esan ziguten gustura jarraituko zuketela emanaldia ikusten", aitortu du Gonzalezek. Ia bi orduko iraupena du Gala Lirikoak.

Eta abeslariak ez dihardute bakarrik: Marta Izagirre eta Eduardo Artzamendi musikarien laguntza dute -tartean, pianoa jotzen dute eurek-. Horiekin, banaka, binaka zein hirunaka dihardute abeslariak. Eta asko-

tarikoak dira euren profilak: "Adin tarte handia dago abeslarien artean. Era berean, askotarikoak dira euren ahotsak: tenoreak, baritonoak eta sopranoak -gehienak- ditugu".

Askotariko abestiak

Gauzak horrela, era askotako abestiez osaturiko sorta prestatu dute emanaldiko protagonistek; zarzuolak, opera piezak eta euskal kantu herrikoiak izango dira, besteak beste. Horien artean dira *La traviata* eta *Nere herriko neskatxa maite*. "Bertaraturikoek ezagun izango dituzte abesti gehienak", dio Gonzalezek.

'Txarriboda' antzezlana, domekan, Amaia antzokian

Ekaina hastearekin bat ekin diote hilabeteko kultura ekintza sortari. Eta, tartean, Hika Teatroaren *Txarriboda* antzezlana izango da ikusgai domekan, Amaia antzokian. 19:30erako finkatu dute hasiera ordua. Hain zuzen ere, Agurtzane Intxaurrega zuzendariak idatzi du testua, aktoreen inprobisaziotik abiatuta. Eta umorearen, kabaretaren eta musikaren uztarke-ta da horren emaitza. Ikusi gura duenak 10 eurotan eskura dezake sarrera.

Zehatz esanda, Hika Teatroaren antzezlana ezkontza basati bat du ardatz, Mireia eta Imanol ezkontideen artekoa. Eta euskal kantugintzako zenbait abesti darabiltza istorioak -oraingoak zein lehengoak-. Gainera, antzezlana aktoreen artean Kepa Errasti aretxabale-tarra dago.

Bada, harrera ona izan du lanak -Oreretan estreinatuta, hainbat herritan ere egon da ikusgai-.

Kurtsoan ikasitakoa irakatsiko dute herriko Tikitixa Eskolakoek

Ikasturte bukaerako jaia egingo dute Arrasateko Tikitixa Eskolakoek eguenean -ekainak 14-, 18:00etan hasita. Eta ez dute ohiko jardun tokia izango: Amaia antzokian eskainiko dute emanaldia. Bestetik, eskolakoek gogorarazi dute zabalik dutela matrikulazio epea: arrasatetikitixaeskola@gmail.com helbidera idatziz eman daiteke izena.

Wood Strings taldea entzuteko aukera, gaur, Irati tabernan

Eta berrian murgildurik da Irati taberna. Eta gaurko antolatu du horren baitako lehen kontzertua. Hain zuzen ere, Aretxabaletako Wood Strings taldeak jardungo du bertako agertokian, 23:00etatik aurrera. Gauzak horrela, rock doinuak izango dira nagusi. Antolatzaileek argitu dutenez, ez da ezer ordaindu beharrik izango.



CLINICA DENTAL

BERGARA

25 urte baina gehiagoko esperientzia implantologian

- INPLANTOLOGIA (kirurgia erraza eta minik gabekoa)
- Estetika eta protesia
- Ortodontzia - Invisalign
- Apnea - Zurrungak














Bidekurutzeta, 36 - BERGARA - Tel.: 943 76 05 77 - www.clinicadentalbergara.es

Liburutegiarendako mugarri izan da Arkupe

Arkupe kultura etxeak hamar urte bete ditu ekainean, eta bertan dagoen liburutegiko kideek herritarrekin batera izan gure dute gogoan data; horregatik, poltsak oparitzen dabilta erabiltzaileei, lehiaketa bat antolatu dute eta erakusketa txiki bat ere bai

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Hamar urte egin ditu Udal Liburutegiak Arkupen. 2008ko ekainean, kultura etxea zabaltearekin batera lekualdatu zen udaletxeke lorategian dagoen eraikinetik hara, eta ordutik aldaketa asko izan dira, bereziki erabiltzaile eta dokumentu kopuruari dagokienez. Hamar

urte bada zerbait, eta, era xumean bada ere, herritarrekin batera ospatzen dabilta.

Gunetan banatutako egoitza

Arkupera lekualdatzeak sekulako aldaketa ekarri zuen. Izan ere, metro koadro gehiago izateak (400 guztira) hainbat gunetan banatzeko aukera eman zien.

Hala, hiru gunere bereizi daude: txikien txokoa (0-5 urte, beti heldu batek lagun eginda), haurrena (6-14 urte) eta helduena. Azken horretan gero, hainbat txoko daude: hemerrotekarena, ikus-entzunezkoena eta kontsulta liburuena. Ordenagailuei dagokienez, helduen gunean zortzi daude eta haurrenean,



Izaskun Leibar eta Nerea Altuna liburuzainak haurren gunean. MIRARI ALTUBE

lau. Joseba Lopez de Armentia liburuzaina da urte gehien daramatzana liburutegian, laster hogeitaz egingo ditu. Arkupera lekualdatzerakoan Izaskun Leibar arrasatearra sartu zen, eta ondoren, orain dela zortzi urte, Nerea Altuna hartu zuten; azken bi horiek egun erdiko lan jarduna dute. Horiei esker, zapatu goizetan ere zabalik izaten da (ekainetik urrira bitartean izan ezik) eta bakarrik abuztuan ixten dute astebetetz.

Lopez de Armentiak inork baino hobeto daki lekualdaketak ekarritako onurak. Izan ere, egoitza handiak eta erosoak eragina izan du erabiltzaile kopuruaren gorakadan: "Erabilerak izugarri egin du gora, hirukoiztu egin dela esango du", dio Izaskun Leibarrek, eta Nerea Altunak kopurua ere nabarmen hazi da; lehen 12.000 inguru izango genituen, eta orain, 23.000 bat, liburu, disko, DVD eta beste hainbat material kontuan hartuta". Onartu du gainera, sarri egoten dela beteta: "Egia esan, etorri orduko geratu zen txiki haurrendako liburuaren gunea, eta azterketa sasoiaren leku barik egon izan gara".

Aparteko ekitaldiekin osatzen dute eskaintza, besteak beste, irakurketa gidak hautatzeko lehiaketak eta ipuin kontalariei saioak antolatzen dituzte: "Txiki txokoan, ia hilero egiten ditugu halakoak, eta jende asko pilatu izan da".

Oparitxoak urteurrena gogoan

Liburutegiaren ibilbidea, eta herriarena, erakusteko argazki zaharrek osatutako erakusketa txiki bat jarri dute, Argazki Artxiboaren laguntzarekin. Eta lehiaketa antolatu dute; galderak asmatzen dituenari saria emango diote uztailean. Opariak banatzen ere badabilta: "Maileguan libururen bat hartzen duenak *Irudimenarekin hegan* leloa duen poltsa jasoko du", dio Izaskun Leibarrek, eta Nerea Altunak gaineratu du: "Jakin, *Bularretik mintzora zazpi* maleta ditugula, eta maileguan hartzeko daude ekainetik urrira artean. Maleta batzuetako liburuak liburuzainok aukeratzen ditugu, baina beste batzuk libreka dira eta erabiltzaileek hautatutako zazpi liburu sar daitezke. Gainera, hila-bete osoz izan dezakete etxean".

Liburutegiak 58 irakurle ditu egunean

Arexabaletako liburutegiak 58 irakurle ditu egunean

izenburuarekin, herriko lehenengo liburutegiaren irekiera jasota dago dokumentu batean; hona hemen dioena: "1965eko apirilaren 20an zabaldu zen Udal Liburutegia bi urteko lanen ostean. Irakurleen Zerbitzu Nazionalak 1.505 liburu eman zituen, eta Diputazioaren diru laguntzarekin eta gure Udalaren ahaleginarekin alondegi zaharra irakurtzeko areto txukunean eraldatu zen.

Liburutegia egunero dago zabalik zazpietatik bederatzietara bitartean, eta gura den liburu askatasun osoarekin aukera daiteke, baita aldiro jasotzen diren hamaika aldizkari grafikoak ere. Etxera ere eroan daiteke liburu hamabost egunez; horretarako betebeharrak bakarrik da liburuaren maileguaren erregistroan izena emanda egotea hilero bost pezeta ordainduta".



Dokumentua. LIBURUTEGIA

Konparaketa datutan

Erabiltzaileak (2018)

- Helduak: 2.850
- Haurrak: 874
- Erakundeak: 12

Erabiltzaileak (2006)

- Helduak: 1.007
- Haurrak: 557

Materiala (2017)

- Liburuak: 17.875
- DVDak: 1.692
- Diskoak (CD): 373
- CD-ROM: 150

Materiala (2006)

- Liburuak: 12.000
- DVDak: 248
- Diskoak (CD): 66

Leizarra Musika Eskola



2018-2019 ikasturterako matrikulazio epea zabalik

- Ekainaren 22ra arte
- Arkupe Kultur Etxeko 3. solairuko bulegoan
- Asteleheneretik ostiralera 17:00etatik 19:00etara
- Edozein zalantza duzula, deitu: 943 08 10 01

Animatu eta eman izena!

Aurretik beste hiru egoitza

Liburutegiak beste hiru egoitza izan ditu Arkupera iritsi aurretik. Hainbat dokumentutan jasota agertzen den legez, Durana kalean, gaur egun Murruxio mendizale elkartearen lokala dagoen atartearen, zabaldu zituen ateak orain dela 53 urte. Handik Otalora jauregira lekualdatu zuten, lehenengo solairura, eta hainbat urte egin zituen han.

Hirugarren egoitza izan zen udaletxeko lorategian dagoen eraikina. "Udal zerbitzuak Otazua etxera (Arratabe) eroan zituztenean liburutegia ere hari dagokion eraikinean kokatu zuten", adierazi du liburutegian lanetan bertan hasi zen eta ia hamar urte egin zituen Lopez de Armentiak. Bi solairu zituen hark (150 metro koadro): goikoan helduendako liburutegia zegoen (14 urtetik aurrera) eta kontsulta liburuak; behekoan, haur liburutegia, literaturako liburuak, hemeroteca eta azken urteetan ordenagailu bat ere bai. Gaur egun Gizarte Zerbitzuak daude eraikin horretan.



Errekabarren kalean dagoen Otalora jauregia. M.A.



Hainbat herritar udaletxe alboko eraikineko liburutegian. ARETXAGAZETA

"Eskatutako zerbitzuak eskaini ahal izatea da gure erronketako bat"

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA LIBURUZAINA

Hogeitaz beteko ditu laster liburutegian lanean. Inazio aita ere herriko liburutegia izan zen urte askoan, eta haren lekua hartu zuen Josebak.

Zenbat egoitza ezagutu dituzu zuzue?

Udaletxe alboko eraikinean hasi nintzen lanean, baina beste biak ere ezagutu nituen, nahiz eta askorik ez erabili.

Zein oroitzen duzu udaletxe alboko eraikin hartako garaiaz?

Bi solairu zituen, baina metro koadro gutxi. Beheko solairuko zarata asko entzuten zen goian, eta alderantziz ere bai. Ikasteko lekua bazegoen, baina isiltasuna oso gutxitan. Apaletan ez zegoen tokirik eta beti liburuak xahutzen ibili behar nuen berriak sartzeko. Han ere konponketa batzuk egin behar izan genituen, lokala bera ez zelako batere praktikoa: apal



GOIENA

egokirik ez, argi eskasak, lurzorua ustelduta... **Arkupek aldaketa handia ekarri zuen orduan...** Izugarrikoa. Lokal erabat berria, leku askoz handiagoa, eta helduen eta haurren guneak bereizteko aukera izan genuen. Aurreko egoitzan nahastuta zegoen guztia, eta, esandako moduan, nahiko kaotikoa zen. **Horren eraginez egin du gora erabilera kopuruak?** Bai, bai. Une batzuetan txiki geratzen hasi zaigula ere

esango nuke; bereziki, haurren gunea.

Helduen artean zein da ohiko erabiltzailea?

Batez ere, emakumeak, eta erretiratuak asko, denbora luzeagoa dute-eta irakurtzeko; haiek eleberriak hartzen dituzte gehien.

Liburu elektronikoaren eragina igarri duzue?

Bai; helduen kasuan, lehen zetorren hainbat ez datoz orain. Noiz edo noiz etortzen dira kontu zehatzen baten bila, baina, bestela, oso gutxi.

Zein erronka du aurrera begira liburutegiak?

Betiko legez, erabiltzaileak ekartzea, eta eskatzen dituzten zerbitzuak eskaini ahal izatea. Lanik garrantzitsuenetakoa irakurzaletasuna bultzatzea da, eta, horretarako, liburutegietan, orokorrean, gero eta ekintza gehiago antolatzen ditugu. Orain arte irakurketa gidak atera eta ipuin kontalariak ekarri izan ditugu, eta orain, *Bularretik Mintzora* programa barruan gaude. Irakurketa kluba egiteko asmoa ere badaukagu.



Hodei magoa eguaztenean, Santa Kurtz kaleko plazatxoan. M.A.

Umeendako ikuskizun asko egunotan, '7x7' ekimenarekin

Eguaztenean dantzaldia dute, eguenean ikuskizuna eta egubakoitzean Pirritx, Porrotx eta Marimotots

M.A. ARETXABALETA

Uda sasoiarekin batera kultur ekitaldiak kalera eroateko ohitura du Kultura Sailak, eta, oraingoan ere, halaxe egingo du. 7x7 kultura kalean ekimena bosgarrenez dator: "Ikuskizun dotoreekin herriko zazpi gune girotzea da asmoa", dio Joxe Migel Uribarren zinegotziak.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Hodei magoak eguaztenean emandako saioarekin jarri zuten abian aurtengo 7x7. Santa Kurtz kaleko bazterrak umeekin eta helduekin bete ziren haren magia ikuskizuna jarraitzeko.

Martitzenean, dantzaldia izango dute neska-mutikoen, Txema Fororen eskutik. *Pac-Man dantz* izenarekin dantzek eta jolasek egingo du bat Mitarte kalean.

Eguenean, hilaren 14an, ostera, Trokolo Teatroak *Burutik jota* antzezlan eskainiko die

umeei, Gipuzkoa plazan. Zirkuan lan egiten duten Fulanitoren eta Menganitoren istorioak eskainiko dituzte; bi ekitaldiok 19:00etan dira. Eta egubakoitzean, hilaren 15ean, beste pailazo batzuk izango dira Herriko Plazan (17:00): Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Puntaik Punta jaialdiaren barruan antolatutako ekitaldia da eta *Borobilean* ikuskizuna eskainiko dute.

Bandaren emanaldia 22an

Jaialdia ere izango dute neska-mutikoen. Txaloka taldeak eskainita, hilaren 20an, Iralabarri plazan. Eta 22an, Leizarra musika eskolako bandaren txanda izango da; Herriko Plaza girotuko dute hainbat eratako doinuekin (19:00).

Ekimenari bukaera emango diote hilaren 27an; *Etxeko kontuak* antzezlanarekin etorriko da Bihar taldea komentuko lorategira.

Urbaltz elkartearen eguna ospatuko dute bihar bazkideek

Umeendako kontuekin hasiko dituzte ekitaldiak Urbaltzen, elkartearen eguna ospatzeko; aurpegia margotzeko tailerrak izango dira, baita salda eta mokadutxo ere, trikitilariak girotuta. Bazkaltzeko elkartuko dira gero bazkideak eta gonbidatuen artean Kataluniako Montferry herriko zenbait lagun izango dituztela iragarri dute.

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Kurtzebarri mendia, martxa pasatuko den ingurua. PELI BELTRAN DE HEREDIA

Tontorrez tontor joango da X. Mendi Martxa

Murrukixoko mendizale elkarteak antolatutako hamargarren martxa Puntaik Punta jaialdiaren barruan sartu dute, eta ekainaren 17an izango da. Herriko Plazatik abiatuta, zortzi gailurretatik pasatuko den 25 kilometroko ibilbidea gertatu dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Bi urtean behin antolatzen duten mendi martxak Puntaik Punta *Debagoieneko bidezidorren jaialdia*-rekin egin du bat aurten, eta haren egitarauan sartu. Ekainaren 17an izango da, domeka, eta izena emateko epea dagoeneko zabalik dago –prezioa, 10 euro–; hona bideak: *murrukixoko@outlook.com*, 943 79 93 74 eta Murrukixoko lokalean –martitzenean, 19:00-19:30–; eta *puntaikpunta@debagoiena.eus*. Egunean bertan ere eman ahal izango da, Herriko Plazan, 07:00etan, abiatu aurretik.

Oinez disfrutatze bidea

"Puntaik punta leloarekin guztiz bat egingo du aurtengo martxak; izan ere, zortzi tontorretatik, hau da, zortzi postontzitatik pasatuko den ibilaldia gertatu dugu", jakinarazi du Murrukixoko presidente Inaki San Migelek. Tontor horiek honako hauek dira: Kurtzebarri, Aranguren Txiki, Aranguren, Arlutz,

Beste ibilaldi batzuk

Puntaik Punta egitarauan beste batzuk ere badaude.

Ekainak 15

- Larrino eta Urkulura.
- Arrasatetik Murugainera (ingelesez).

Ekainak 16

- Degurixara.
- Uretsen bidea (SL-Gi 37); irteera familian.
- *Nordic walking*-a Urkulun.
- Elgeta inguruan bira: Azkonabitza, Karabieta...
- Gatz bidea, *Leintz lotzen*.

Ekainak 17

- Apotzaga eta Galartzara.
- Aitzulo aldera, *Debagoieneko leihoa*.
- Arrasatetik Murugainera.
- Intxortako ibilbide gidatua.

Atai, Aizkorri-Zaraia, Bizkarlata eta Pago Bedeinkatua. Guztira, 25 kilometro ditu ibilbideak, eta bi anoa-postu gertatuko dituzte jatekoarekin eta edatekoarekin: lehenengoa Kargalekun egongo da –7,5 kilometroan– eta bigarrena Leixargaraten –15 kilometroan–.

"Hamargarren hau ezberdina da. Hainbat parajetatik pasatuko gara: zelaia, basoak, bide ezezagunak... Takarradan egin beharrean oinez egiteko gomentatuko nuke, mendizaleek gehiago disfrutatuko dutelako, eta, era berean, bide berriak ikasi. Hala, hurrengoan ere berriro erabiltzeko", dio San Migelek, eta gaineratu du: "Izan ere, gure helburua ez da inolako errekorrik egitea. Mendingo ibiltzeko ohitura duen edonorendako martxa aproposa da, zazpi ordutan erraz buka daitekeena". Dena den, jakinarazi du ibilbidearen hainbat tokitatik jaitsi ahal izango dela herrira, guztia bukatu behar izanik barik.

ALEn egindako ibilgailu elektrikoa ikusgai, gaur, plazan

Bihar jokatu den Euskelec lehiaketara aurkeztuko dute, eta aurretik argibideak emango dituzte ikasleek

M.A. ARETXABALETA

Aretxabaleta Lanbide Eskolako ikasleek Euskelec lehiaketan hartuko dute parte bihar, zapatua. Ibilgailu elektriko bat erakiki beharra dago horretarako, eta ikasle aretxabaletarrek txasisaren diseinua eta fabrikazioa egin dute ikastetxean. Ibilgailu hori Herriko Plazan erakutsiko dute, gaur, egubakoitza (18:00), eta ikasleek prozesuaren gaineko azalpenak emango dituzte.

Goi mailako zikloak dituzten ikastetxeak batzen dituen lehiaketa teknologikoa da Euskelec. Bihar Gasteizen egingo den norgehiagokan (10:00-14:00), ibilgailuaren diseinua, prestazioak eta gainerako ezaugarriak izango dira jokoan. Lehiaketa hori mugikortasun iraukorra bultzatzeko jarri da abian, eta EAEko hamaika ikastetxek hartuko dute parte.



Ikaslea lanean. ALE

Aurrematrikula epea zabalik dute ALEn, ekainaren 15a arte (08:30-17:00). Osasunarekin, gizarte eta kultur zerbitzuekin, fabrikazio mekanikoarekin eta ibilgailuen mantentze-lanekin lotura duten goi eta erdi mailetako zortzi ziklo eskaintzen dituzte.

200 lagun elkartuko dira bihar, Mikel Crespo gogoan

Iaz abuztuan Pirinioetako Balaitus mendian hil zen Mikel Crespo Zuazua gazte aretxabaletarra izango dute gogoan 200 bat lagunek bihar, zapatua. Egun osoko egitaraua gertatu dute haren lagunak; eguraldiak lagun egingo dien ziurtasunik ez dutenez, beste plan bat pentsatzen ere jardun dute azken egunotan.

Kurtzebarri eskolako ikasturte bukaerako jaia, bihar

Ekitaldiz gainezka dator Kurtzebarri eskolako ospakizuna. Bihar, ekainak 9, izango da, eta, beste urte batez, uholde berdeak hartuko ditu herriko kaleak.

Gurasoentzako eta ikasleentzako jolasekin hasiko dituzte ekitaldiak (10:30), Herriko Plazan, eta orduan jasoko dituzte tartak lehiaketarako. Eguerdiekin batera (12:00) kalejiran joango

Mendi buelta eginda hasiko dute eguna; Mendiola auzoan elkartuko dira, (08:45) eta Kurtzebarrira igo. Tontorretik bueltan Elizabarrin geratuko dira hamaiketako egiteko.

Bazkaria 14:30ean izango da; eguraldi ona bada, Arlutzeko kantxan. Eta arratsalde parte kontzertuek giroa dute (18:00-23:00). Hainbat estilo jorratzen dituzten herriko sei edo zazpi taldek jardungo dute oholza gainean; besteak beste, Wood Strings eta Txerrikumeak taldeek.

dira, Kurtzebarriko Batukada, erraldoiak eta buruhandiak lagun hartuta. *Eguzkiari agurra* ikuskizuna egingo dute (13:00), eta Iturrigorri pilotalekuan elkartuko dira gero bazkaltzeko (14:30). *Adarbakar urdina* txotxongilo saioa izango dute bazkalostean neska-mutikoez (16:00), baita dantzaldia ere, AZ Gaubelak taldearekin (16:00-18:00). Horiez gain, umeez gaztelu puzgarriak izango dituzte eskolako patioan eta gainerakoek bolo txapelketa jokatu dute.



Iaz, Aste Zapatistan egindako herri bazkari mexikarrean, kontzejupean batu zirenak. IMANOL SORIANO

Beste mundu bat posible dela aldarrikatzera

Esko Zap elkarteak antolatuta, hemezortzigarren Aste Zapatista izango da datorren astean. Egitarau zabala antolatu dute, eta egunero izango da ekintzaren bat edo beste. Horrez gain, ekainaren 16an, zapatuan, izango da egun handia

Imanol Beloki ESKORIATZA

Urtero legez, ekainaren 11tik 16ra Aste Zapatista antolatu dute Esko Zap elkarteak; 2000. urtea ezkerre egiten da jai hori Eskoriatzan.

Aurtengoa hemezortzigarren edizioa izango da, eta askotariko ekintzekin osatu dute aste osorako egitarau zabala, beste urte batez.

Chiapasen aldeko taldeko kideek antolatzen duten jaiak herrialde hartako kultura zatitxo bat hona ekartzea du helburu, eta, bide batez, solidaritatearen garrantzia azpimarratzea, euren leloa den *Beste mundu bat posible da* mezua helaraziz. Gizartearen kontzientziak pizteko, hausnarketa, errespetua, herrialdeen arteko elkartasuna,

kritika eraikitzailea, lankidetzara... sustatu nahi dute, eta horretarako antolatu dituzte hainbat ekintza herrian, urtero moduan.

Egunez eguneko egitarauaz gain, beste hainbat hitzordu ere badituztela prestatuta adierazi du Iurre Romaretazabalak, EskoZap elkarteak: "*Emakume berriak* erakusketa kultura etxean izango da ikusgai aste

osoan zehar; Iruñeko Ecologistas En Accion taldeak prestatu du. Errefuxiatuen aldeko elikagai bilketa ere egingo dugu, Zaporeak proiektuarekin bat eginez. Grezian dauden errefuxiatuei janaria bidaltzeko, udaltxean, Coviran-en, Eroskin, elizan, Jose Arana eta Luis Ezeiza ikastetxeetan eta Leintz Gatzagan Labidean utzi daitezke elikagaiak aste osoan. Honekin batera, kultura etxeko hitzaldi eta erakusketa guztietan, kafea eta pastak izango dira, eta, eguen, egubakoitz eta zapatu arratsaldeetan, Jose Mari Legorburu plazan izango da tako mexikarrak prestatzen".

Mural zapatista, elkarlanean

Maialen Mendietak eta Maialen Gallastegik egingo dute mural zapatista Luis Ezeiza herri eskolako arkupeetan, eta eskolako haurrek ere parte hartuko dute margolanen. Izan ere, *Beste mundu bat posible da* esaldia eskolan dauden hizkuntza ezberdinetan idatziko dute mura-lean.

Bazkari mexikar arrakastatsua

Ekainaren 16an egingo da, Fernando Eskoriatza plazan, eta beraiek prestatuko dute janari guztia, urtero lez. "Iaz, beste herrialde batzuetako janariak ere izan genituen, baina aurten, bazkari mexikar mexikarra izango dugu, ehuneko ehunean. Plastikorik ez dugu erabiliko, eta tako mexikarrak, guakamolea, barazki parrilada... izango ditugu; eta urtero hutsik egiten ez duen lapikoko kafea". Bazkarirako txartelak 15 euro balio du eta Eskoriatzako Naira, Inkernu eta Goxo-txiki tabernetan erosi daiteke. Baita Aretxabaletan ere, Txiki tabernan.

Aste osoko egitaraua

Astelehena, 11

- 19:00 Sexualitate tailerra, kultura etxean.

Martitzena, 12

- 19:00 Hitzaldia: *Herri maputxea: Erresistentzia ez da terrorismoa*, kultura etxean.

Eguaztena, 13

- 19:00 *Mugi Boogie* ikuskizuna, plazan.

Eguena, 14

- 18:00 Yoga familian, plazan.
- 19:00 Gazta porra.

Egubakoitza, 15

- 11:30 *Beste mundu bat posible da* hitzaldia, Luis Ezeiza herri eskolan.

Zapatua, 16

- 10:00 Artisau azoka, plazan.
- 15:00 Herri bazkari mexikarra.
- **Bazkalostean** Rosa Sanchez kantautorea eta ikuskizun sorpresa.
- 18:00 Tocan2 La Polla taldearen kontzertua.

Astean zehar:

- *Emakume berriak* erakusketa, kultura etxean.
- Errefuxiatuen aldeko elikagai bilketa.
- Mural zapatista.
- Haurrentzako piñatak.
- Chiapasko kafea eta pastak.

Udaero 2018 programarako izen-ematea zabalik dago

Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaztekuetako nerabeei zuzendutako aisialdi eskaintza, prest

I.B ESKORIATZA

Udaero Aretxabaleta eta Eskoriatzako gaztekuak elkarrekin antolatzen duten udako aisialdi eskaintza da. 12 eta 17 urte bitarteko nerabeei zuzenduta dago, eta bertan izena emateko azken

eguna ekainaren 24a da. Egitasmoa bi zatitan banatuta dago: gazte udalekuak eta *Gaztekonkis*, eta bakarrean edo bietan eman daiteke izena. Gazte udalekuak uztailaren 2tik 6ra izango dira eta prezioa 40 euro da. Egitaraua

honako hau da: uztailaren 2an, Mutrikura egun-pasa egingo dute, eta bertan, *snorkel*-a egingo dute igerileku naturalean. Uztailaren 3an, Garaioako Tourra egingo dute, bizikletan. Uztailaren 4an, izarrak ikusteko mendi irteera egingo dute. Uztailaren 5ean, Usakora irteera. Eta uztailaren 6an, berriz, Urdaibaira egun-pasa, kayakean ibiltzera.

Gaztekonkis, bestalde, uztailaren 10etik 13ra bitartean egingo dute, eta horren prezioa 20 euro da.

Proiektuak · Koltxoikak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurria
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

Enpresa Registrada N°00025



Pertsona bat bizikletarekin. PIXABAY

Bizikletaren erabilera sustatzeko saioak, abian

Helduei bizikletan ibiltzen irakasteko ikastaroa antolatu du Gipuzkoako Aldundiko Mugikortasun Departamentuak Eskoriatzan. Sei saio izango dira, guztira, Joseba Iñurrategi pilotalekuan, eta datorren eguenean, ekainaren 14an, hasiko da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun departamentuak Eskoriatzako Udalarekin elkarlanean antolatuta, helduei bizikletan ibiltzen irakasteko ikastaroa izango da datorren eguenean. Guztira, ordu eta erdiko sei saio izango dira, eta bi taldeetan banatuko dituzte: goizeko saioa 09:30etik 11:00etara izango da eta arratsaldekoa, berriz, 16:00etatik 17:30era. Saioak honako egun hauetan izango dira: ekainaren 14an, 15ean, 19an, 21ean, 22an eta 26an, Joseba Iñurrategi pilotalekuan.

Bost eta hamar pertsonak osatutako taldeentzat izango da ikastaroa, eta izena emateko formulario bat bete beharko dute interesa dutenek; Manuel Muñoz kiroldegiko harreraren eskatu ahal izango dute. Egitasmoa pasa den astean aurkeztu zuten, Eskoriatzako udaletxeko osoko bilkuran, eta bertan izan zen Marisol Garmendia, Aldundiko Mugikortasun diputatua.

Haren esanetan, helduei bizikletan ibiltzen erakustez gainera, "helduek herrian egin ohi dituzten lekualdaketetan bizikleta autoaren ordezkotzat garraio-bidea izan daitekeela konturaztea da ikastaro horren helburua, haien bizi-kalitatea eta osasuna hobetzea dakarrena, gainera. Eskoriatzan, adineko jendearen populazioa oso aktiboa da eta lagundu egin nahi dugu haien eguneroko mugikortasuna osasungarria eta jasangarria izaten eta bizikleta erabiltzen has daitezen".

Ariketa osasungarria

Adineko askok ezin izan dute bizikletan ibiltzen ikasi edo aspalditik ez dira bizikleta batera

EKAINAREN 14AN, EGUENEAN, HASIKO DA HELDUEI BIZIKLETAN IBILTZEN ERAKUSTEKO IKASTAROA

igo. "Animatu egin nahi nituzke, haiei esan bizikletaz ibiltzen ere disfrutatu dezaketela, modu erraz eta seguruan ikasita, gainera. Ariketa osasungarria eta jasangarria da, ingurumena hobetzen ere laguntzen duena".

Horren harira, Mugikortasun Departamentuaren diru laguntza bati esker egin duten Aingeru Guarda eta Kuatruena arteko bidegorriaren zatia amaitu berri dute; kilometro inguruko bidea da, eta hor ere leku aproposa izango dute ikastaroko parte-hartzaileek zein Eskoriatzako herritarrek bizikletan ibiltzeko.

Lehenbiziko ikastaroa

Ikastaroa ondo badao beste herri batzuetara ere zabalduko dutela gaineratu zuen Garmendia: "Ikastaro hauek lehenbiziko aldiz ematen dira Debagoienan, eta, arrakasta izanez gero, errepikatu egingo dira, eta baita eskualdeko beste udalerritatzuetara eramanez ere".



Proiektuaren bultzatzaileak, Marinen, zunda jaso berri. ANBOTO

'Txotxe' zunda meteorologikoa Marin auzoan lurreratu da

Durangoko Kurutziaga ikastolakoek jaurtitako zunda meteorologikoa ia 35.000 metroko altuera hartu du

Imanol Beloki ESKORIATZA

Durangoko Kurutziaga ikastolako DBHko 4. mailako sei ikasleek, zientzietako irakasleek, ikastolako informatikariak eta irrati afizionatu batek osatutako zientzia-taldeak zunda meteorologikoa bat askatu zuen maiatzaren 19an, eta, 34.950 metroko altuerara heldu eta eztanda egin ondoren, Eskoriatzako Marin auzoan lurreratu zen, zunda askatu eta bi ordu eta 40 minuturen bueltan.

Maringo auzo-alkate Alberto Letonaren esanetan, berak ez zuen ikusi lurreratzeko baina baliteke auzotarren batek ikusi izana. "Belategi eta Emaldi baserrien artean erori zela uste dut nik, bertan atera baitzuten talde argazkia zundaren bila etorri zirenek. Auzoan ez dut galdetu ea norbaitek ikusi zuen, baina polita izango zen lurreratzeko ikustea".

Bi ordu eta 40 minutu airean

Zundari *Txotxe* izena jarri zioten, Jose Martin Urrutia, Kurutziaga ikastolako irakasle izan zena, gogoratu. 14:00 inguruan askatu zuten globoa, eta, 34.950 metroko altuerara heldu eta eztanda egin ondoren, Eskoriatzako Marin auzoan lurreratu zen, 16:40 bueltan.

Egindako bidea, argazkitan

Zundaren barnean hiru kamera sartu zituzten, bata gorantz, beste bat alborantz eta beste bat behearantz begira. Hala, bi ordu eta 40 minutuan egindako bidearen bidea osatu dute argazki bidez.

Kamerez gain, zunda meteorologikoaren kokapena jarraitzeko GPS APRS telemetria gailu bat eta presioa, tenperatura eta hezetasuna neurtzeko Datalogger aparailu bat zeramatzan.

Ganbara abesbatzak kontzertua eskainiko du Zaldibarren

Oñatiko Ganbara abesbatzak kontzertua eskainiko du gaur, Zaldibar antzokian. Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarrera doan izango da; edukiera bete arte. Hala ere, gonbidapenak Manuel Muñoz kiroldegian jaso behar dira.

Aitor Biain zuzendariaren gidaritzapean, bi zati izango dituen programa prestatu dute

Ganbara abesbatzakoek gaurko saiorako: lehenengo zatia bederatzi piezaz osatuta dago eta bigarren zatia, berriz, zazpi piezaz. Besteak beste, kanta hauek eskainiko dituzte: *Ave Verum*, *Salve Regina*, *Nocturne*, *Maitagoak* eta *Iru Damatxo*.

Pieza horiek uztailean aurkeztuko dituzte Hungarian izango den, musika garaikideko lehia-keta batean, eta, hain zuzen ere, han eskainiko dituzten kantak entseatzeko emanaldia izango da gaurkoa.

Luis Ezeiza eskolako jaia ospatuko dute bihar

Herri Eskolako gaztetxoek Aste Kulturala ospatu dute asteleheneetik gaur arte. Mota guztietako ekintzak izan dituzte, eta horiei zein ikasturteari amaiera emateko, eskolako jaia izango dute bihar; aurten, berrikuntza batzuk izango dituzte

Imanol Beloki ESKORIATZA

Ekainaren 4tik 9ra bitartean, Luis Ezeiza Herri Eskolako haurrek Aste Kulturala ospatu dute. Egitarau zabala izan da, era askotako dantzak, antzerkiak... egin dituzte Haur Hezkuntzakoek eta Lehen Hezkuntzakoek, eta, asteari amaiera emateko, eskolako jaia egingo dute zapatuan.

Aste Kulturala, bikain

Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskolak Aste Kulturala egin du asteen. Egubakoitzera bitartean, irakurzaletasuna bultzatzeko, inguruko eskolen arteko komunikazioa indartzeko, jendaurreko aurkezpenetan gaitasunak garatzeko, bizikidetza lantzeko eta gurasoen, ikasleen eta irakasleen arteko harremanak indartzeko askotariko ekintzak egin dituzte: ipuin kontaketak, tailerrak, jolasak, ikasleek prestatutako antzerkiak, abestiak, filmak, bertsoak... Hala, umeak gustura aritu direla adierazi du Luis Ezeiza Herri Eskolako Maitane Gomez de Segura irakasleak: "Besteak beste, antzeppenak izan dira nagusi Aste Kulturalan. Arrasateko eskolakoendako egin dituzte. Baita Aretxabaletako eskolakoendako eta gurasoendako ere. Horrekin batera, bihar eskolako jaia izan-



luz, Luis Ezeiza Herri Eskolako jaien, plazan dantzan. GOIENA

go dugu; eta ea eguraldiak laguntzen digun".

Ikasturte amaiera, festa giroan

Zapatuko eskolako jaia ikasturteari jai giroan amaiera emateko antolatu dute. Egitaraua honako hau izango da: 10:30ean, kalejira egingo dute, eta jarraian, Fernando Eskoriatza plazan ikasleen emanaldia eta *Ene Kanta* ikusteko aukera izango da. Ondoren, eskolako arkupeetan herri bazkaria egingo dute, eta, ostean, puzgarriak eta apar festa izango dituzte, gaztetxoek

gozamenerako. "Aurten, herrira gehiago zabaldu nahi izan dugu Luis Ezeiza eskolako jaia, eta, horregatik, kalejira egingo dugu egunari hasiera emateko, herriko kale ezberdinetatik igarota. Horrez gain, aurten, tailerrak beharrez, *Ene Kantak*-ekoak izango ditugu gurekin. Koldotxo Guraso Elkartekoek egin diete gonbidapena; izan ere, euren DVDan parte hartzeko aukera izan dute Lehen Hezkuntzako ikasleek, *Dinosauroak* abestiarekin, eta hori ere dantzatuko dute haurrek plazan".

Euskaraldia egitasmoaren mezua iritsi da Eskoriatzara

Pregoi estiloan, antzerkia eta batukada uztartuz zabaldu zuten Euskaraldiaren mezua, atzo, arratsaldean

I.B ESKORIATZA

Atzo, Euskaraldiaren pregoia iritsi zen Eskoriatzara. Intxaurtxueta auzotik hasita, kale ezberdinak zeharkatu zituzten Olatz Pagaldayk eta Jon Zubia-gak, Euskaraldia egitasmoaren

mezua herrira zabaltzeko asmoz. Antzerki eran aurkeztu zuten, eta, Iñaki Kortazarren, Asier Hernandezen eta Gari Barandiaranen batukada hotsek lagunduta, Fernando Eskoriatza plazan amaitu zuten ibilbidea.

Hizkuntza ohiturak aldatzeko helburua duen ekimen kolektiboaren lehen urratsa izan zen atzokoa. *Azaroaren 23tik abenduaren 3ra arte, hamaika egun euskaraz* egitasmoaren baitan, batzordea eratu eta orduan egingo direnak eta ordura artekoak prestatzen aritu da herriko elkarte, norbanako eta eragile ezberdinekin osatutako taldea. Hala, atzoko pregoia ekimenaren nondik norakoak azaltzeko izan zen, eskuorria buzoietan banatzeaz batera.



Apirilaren 14an Iruñean egindako elkarretaratzean. GOIENA

'Altsasukoak aske!' elkartasun jaia izango da uztailaren 14an

Pilota partidu herrikoiak, bazkaria eta musika kontzertuak izango dira, besteak beste

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Gatza City Krew-k, Leintz Gatzagako gazte taldeak, antolatuta, elkartasun jaialdia izango da uztailaren 14an, *Altsasukoak aske!* lelopean. Altsasuko gazteei ezarritako zigorrarekin desadostasuna adierazteko eta, bide batez, elkartasuna adierazteko ekintza ugari antolatu dituzte.

09:30ean hasita, eskuz binakako pilota partidu herrikoiak izango dira. Pilota goxoarekin jokatuko dira partiduak, eta bi sari nagusi izango dira: lehenengoa, Zumelaga jatetxean bi pertsonarendako otordua; eta

bigarren saria, ardo botila eta gazta. Izena emateko azken eguna uztailaren 10a izango da. Hain zuzen ere, Gatzagan Labidean, Eskoriatzan Inkernu tabernan eta Aretxabaletan Kixkor tabernan egin daiteke, hamar euroren truke. Horrez gain, 14:30ean, bazkaria egingo dute, eta bertara joateko txartelak leku berean erosi ahal izango dira, 15 euroren truke.

Kirolaren ostean, kontzertuak

19:00etatik aurrera, Krisis, Crap, Alderdikide eta Sofokaos taldeen kontzertuak izango dira.



SORGIÑAK EMAKUME TALDEA

Iruñean asteburu-pasa

Gatzagako Sorgiñak Taldeko kideak Iruñean izan dira asteburu-pasa. Zapatuan, trenez joan ziren, eta, Kantu Eguna zenez, festara batu ziren. Poteoa egin ostean, bazkaldu, eta arratsaldean, Fermin Valencia ikustera joan ziren. Domekan, berriz, Takoneran eta gotoriekuan buelta bat eman ostean, bermuta hartu, bazkaldu, eta iluntzean bueltatu ziren.

"Errepertorioaren erdia zentsuratuta genuen"

SABIN SALABERRI MUSIKARIA

Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatutako hamasei lagunetako bat da aramaioarra, nahiz eta dioen "ohore handiegia" dela berak egindako lanerako

Julen Iriondo ARAMAIO

Sabin Salaberrrik (Aramaio, 1934) bere lanetan euskarari "leku nabarmena" egin diola beti zioen Euskaltzaindiak haren izendapena argudiatzeko. Apaiz izandakoa, liturgiarako euskal musika egiten ibilia da, besteak beste; Gasteizko kontserbatorioan euskarazko eskolak bultzatu zituen. Musika idazten du oraindik tarteka, abesbatzaren bat zuzendu noizbehinka, musikari buruz artikulatuak idatzi eta eskolaren bat eman ere bai.

Zergatik diozu ohore handiegia iruditzen zaizula izendapena?

Ze ni musikaria naiz. Eta bai, asko maite dut euskara, eta nire bizitza osoan euskarari uste dut laguntza handia eman diodala; hau da, Araba abesbatzaren bitartez, Araban euskarari nahikoa bultzakada indartsua eman diogula, eta nahikoa lan egin dut euskal liturgiarako musika sortzen eta erakusten ere. Baina ez dakit hori nahikoa meritu baden halako ohore bat jasotzeko. Horrelako lanak beste pertsona askok ere egin dituzte.

Araba abesbatza aipatu duzu. Abesbatza sortu eta zuzendu zenuen; zein izan zen haren bitartez euskarari egindako ekarpena?

Momentu haietan Araban euskara alde batera utzita zegoen. Jende askok, agintariak-eta esaten zuten Araban euskararik ez zela hitz egiten; besteak beste, nire nagusia zen gotzainak, Peralta Ballabrigak, esaten zuten nola Araban ez zen euskararik hitz egiten, ez zela liturgiarako lanik egin behar, eta horrelako gauzak. Eta guk esaten genuen baietz, Araban euskaraz egiten zela; eta nik esaten nuen: "Ni arabarra naiz, nire gurasoak arabarrak izan ziren, nire seme-alabak arabarrak dira, eta denek euskaraz hitz egiten zuten, hitz egiten dugu eta hitz egingo dugu". **Abesbatzarekin euskarazko abes-
tiak zabaldu zenituzten, ezta?**



Sabin Salaberrri. JAIZKI FONTANEDA

"EUSKARARI, ARABAN, NAHIKOA BULTZADA INDARTSUA EMAN DIOGU ARABA ABESBATZAREKIN"

Bai. Garai hartan euskal musikak bultzada handi bat jaso zuen: Ez Dok Amairu sortu zen, Gorka Knörrek euskaraz abesten zuen... eta guk pentsatu genuen, horiek bakarlariak zirenez, guk talde bezala, abesbatza bezala, kantu errepertorioari berri bat eman geniezaiokeela, kantu berriak sortuz, momentuko egoera kontuan hartuz, eta horrela hasi ginen. Zentsurak ez zigun uzten gure errepertorio erdia abesten, baina lan horretan nahikoa saiatu ginen, bai.

Eta ze kantu ziren hor kantatzen zenituztenak?

Adibidez, kantu bat zen *Gora Araba*, esaten zuena Araba euskal izenez betea dagoela, herri izenetan, mendi izenetan, toki izenetan... eta Araba euskalduna zela, azken finean. Hori izan zen abesti bat goiko mailetan ez zena onartua izan. Beste bat

da *Gurea da etorkizuna*, eta hori gaur egun ere asko abesten da. Beste abesti bat, herrikoia zena, baina guk beste modu bat eman genion: *Mendirik mendi*, dioena *Ederra da gure herria, maite dugu bihotzetik, ez da ludian hoberik*. Eta horrek ere haginka apur bat egiten zuen agintarien artean, batik bat; orduan agintari frankistak zeuden, oso indartsuak, gainera, eta begirada sartzen zutenak edozein ekitalditan, zer egiten zen jakiteko. **Frankistak aipatu dituzu, eta 1969an Francoren aurrean jarduteari uko egin zenion Gasteizko katedralaren inaugurazioan.**

Antolatzaileek pentsatu zuten Franco gonbidatzea, eta niri abisatu zidaten pentsatu zutelarik zuzentzen nituen abesbatzek ekitaldi hartan jardutea, nik zuzenduta. Hori jakin nuenean, desagertu egin nintzen, eta hor egon nintzen nonbaiten. Nire bila ibili ziren, baina kanpoan nintzen. Itzuli nintzenez, gauza bat zela eta beste bat zela, pasaportetik gabe geratu nintzen, gotzainarekin haserretu nintzen... Araba abesbatzarekin eta Gasteizko seminarioko abesbatzarekin zen hori.

Ez zenuen batere gogorik Francoren aurrean abesbatzak zuzentzeko.... Nola egingo nuen, bada, hori?! Nire aita zigortua izanik, nire anaia nagusiak ere bai... eta ni bere aurrean zuzentzen? Ez, ez, ez, inolaz ere ez.

Gotzainarekin ere gorabeherak, hortaz...

Alde batetik, elizbarruti bakoitzetik musikari bat aukeratu zuten eta batzorde bat sortu zen euskal liturgiarako euskal abestiak sortzeko; Araban ni aukeratu ninduten, baina gotzainak ukatu egin zidan aukera hori, eta, gainera, debekatu egin zidan batzarretara joatea: Araban euskararik ez zela hitz egiten eta batzorde horretan ez zela arabar beharrik. Eskerrak Iruñeko artzapezpiku zen Cirardak esan zuela arabar bat behar zela eta babestu eta onartu ninduela. Gero, Donostiako gotzain Setienek ere onartu ninduen, eta euri esker jardun nuen. Niretzat, gainera, oso pozgarria zen euskal liturgiarako musika polit batzuk sortzea, gogoko lana nuen hori.

Gasteizko kontserbatorioan ere izan zinen zuzendari 1981 eta 1985 artean, eta han ere egin zenion ekarpena euskarari.

Bai, euskara zekiten irakasleak bilatu eta kontratatu genituen, kontserbatorioko eskoletan euskara erabili zedin; ze, ordurako nahikoa ikasle zeuden ikastoletatik-eta zetozenak. Irakasleak genituen Poloniakoak, Errumaniakoak... Baina irakasle berriak bilatzerakoan saiatu nintzen euskaldunak bilatzen.

Irrati esatari ere ibilitakoa zara.

Gasteiz Irratian 25 urtez izan nintzen asteroko programa batekin, eta han ere saiutzen nintzen beti zerbait euskalduna sartzen, edo zerbait euskaraz hitz egiten.

Ez dakit ezagutzen ote dituzun zurekin batera ohorezko euskaltzain izendatu dituztenak eta haietakoren baten baten gainean ezer esango zenukeen.

Pello Zabala dut oso laguna, eta asko poztu nintzen bera ere hor egoteagatik.

Manuel Lekuona saria ere eman zizun Eusko Ikaskuntzak duela hamar urte; orain hau... pozik egotekoa da.

Hura musika arloko lanagatik eman zidaten. Eta hau, esan dizut, ez dakit merezitako ohorea den; bestea ere ez, baina hau are gutxiago.



NIRE USTEZ

SABIN ARANBURU

Kasik

Errealitatea aztertzea beharizan bat den mende distorsionatu honetan, inoiz baino bide-orri eta proposamen eraldatzaile gutxiago aurkitzen ditugu – eraldatzailea zentzu errealean, sistema hau oinarririk eraldatzea dakartenak–.

Bide galduetan gabiltzanok gure kabuz ikasi behar izan dugu zeintzuk diren gure beharizanetara lotzen diren analisi eta proposamen praktikoak. Jada ez daukagu aurreko hamarkadetan jasotako transmisioa; zerotik hasitako lana izan da, kasik.

Zergatik diot kasik? Ideologia burgesak itzalpetu eta giltzapetu duen arren, mende eta pikuko ibilbidea duen bide-orria izan duelako ezker mugimenduak –behin langile mugimendua zenak, berau baita subjektu eraldatzailea–. Hausnarketa eta praktikarako esperientzia komunitate hori marxismoa da, konstanteki desitxuratzen saiatzen diren hori, bai.

Honi buruzko apunte bat. Errealitatea aztertzeke eta iraultzeke metodo honek egungo egoerari aurre egiteko, erresistitzeke eta aurrera pausoak emateko, ahalmena duela erakutsi dio dena aldatu nahi duenari. Prozesu luzea den arren, fruituak ematen hasiko da.

OHARRAK

Bake epailea

Inor ez da aurkeztu bake epailetarako, eta Blanca Mendialduak onartu du zeregin horretan jarraitzea. Migel Inuntziagak segituko du ordezkaria izaten.

Guraso elkarte

Elkartasunaren zozketako zenbaki sarituak: 827, 581 eta 753. Hilaren 18an, ordezkoro zenbakiak erabiliko lituzkete.



Lumen taldea osatzen duen bikoa. LUMEN

Lumen-ek zabalduko du gaur Sastiñako Musika

Hiru barikutako saioekin osatuta egongo da festibala. Urko Buruaga izango da hurrengo astean, eta Last Infusion hirugarrenean. Musika lasaia eskaintzen duen zikloa da, "hazten ari diren taldeekin", Itxaso Aspiazu Kultura teknikariaren arabera

Julen Iriondo ARAMAIO

"Formatu txikiko emanaldiak, hazten ari diren taldeekin" dira Sastiñako Musika festibalaren barruan eskainiko dituztenak. Folk, indie, popa... askotariko estiloetako musika "lasaia" izan ohi da ekaineko egitarau honetan, eta oraingorako aukeraturako taldeek ere halako ezaugarriak dituzte.

Lumen bikoa da gaurko protagonista. Endika Caño de Miguel eta Ander Elizondo gitarra akustikoekin aterako dira jendaurrera, eta ikasturte hasieran kaleratutako maketako sei abestiak eta zenbait bertso joko dituzte. Endika Caño de Miguelen arabera, Gotzon Barandiaranen eta Gorka Urbizuren Katamalo taldea izan daiteke euren erreferentzia: "Poesia eta musika uztartzen ditugu, zenbait letra errezitatu egiten ditugu eta beste batzuk musika jarrita kantatu".

Letrak eurek sortutakoak dira, Joseba Sarrionandiaren bat eta

Dylan Thomasen beste bat izan ezik. Askotariko gaiak jorratzen dituzte letrek, baina "intimista" moduan sailka daiteke Lumenen emanaldia. Bertsoei dagokienez, Katamalo beraren abesti bat jotzen dute, eta baita Negu Gorriak eta Deabruak Teilatuan taldeen abestiak ere.

Datorren asteko saioan, berriz, aldaketa izan da. Aramaio

trikitilarien saioa zegoen aurreikusita, baina disko baterako grabaketagatik posible ez zaiela eta, Urko Buruaga kantautore gasteiztarra izango da Sastiñan. Pop, folk eta rock kutsuekin, letrek indar handia dute haren zuzeneko intimoan.

Hilaren 22an, azkenik, Last Infusion taldea izango da. Saio guztiak 20:00etan hasiko dira.

Bi abesbatza ere bai

Musika eta kantu zaleek data bete-beteak dituzte datozenak. Izan ere, Sastiñako emanaldiei bi abesbatzaren saioak ere gehitu behar zaizkie. Bihar, zapatua, Laudioko Arte On eskolaniak egingo du saioa, 19:00etan kultura etxean, Vital Fundazioaren ekimenez.

Hurrengo zapatuan –hilak 16–, berriz, Goikobalu abesbatza izango da San Martin elizan emanaldia egingo duena, 19:00etan hau ere. Duela bi urte programazio oparora prestatu zuten herrian Bizente Goikoetxearen heriotzaren mendeurrena zela-eta, eta erabaki zuten urtero egitea zer edo zer konpositore aramaioarraren oroimenez. Oraingo honetan Arrasateko Goikobalu izango da bere emanaldian haren abestiren bat abestuz-edo Goikoetxearen oroimenari keinu bat egingo diona.



ARAMAIOKO UDALA

Jaietarako kartel irabazleak

Aukeratu dituzte San Martin jaietarako kartelak. Lau helduk eta hiru umek aurkeztu dituzte proposamenak, eta epaimahaia Edurne Kortabariaren eta Amaia Iñarraren lanak aukeratu ditu, nagusietan eta umeetan, hurrenez hurren. Umeen kategoriako irabazleak 60 euroko saria eskuratu du eta nagusietakoak, 150ekoa.

Jaietan animalien erabilera salatzen duen lana, gaur

Euskal Herriko jaietan egiten den animalien erabilera salatzen duen *Gurean* dokumentala gaur, barikua, emango dute udaletxe-ko osoko bilkuren aretoan, 18:00etan. 2014tik 2017ra, lau urtean zehar hainbat aktibistak ezkutuan grabatutako irudiekin osatutako lana da Askekintza elkartearena –espezismoaren kontra diharduen elkarte–.

Agirre, Amilburu, Igoa eta Altube bertsoan, hilaren 15ean

Bertso afaria izango da hurrengo barikuan Zabolán, Aramaio Tropikala areto futbolgoek antolatuta. Zabolako elkartearen jardungo dute Manex Agirrek, Paula Amilburuk, Xabi Igoak eta Txaber Altubek –Abadiño-koa–. Afarira joan nahi dutenek 688 69 87 26 telefono zenbakira (Peru) deituz eman dezakete izena.



ARAMAIO PELOTA ELKARTEA

Herriarteko txapelketatik kanpo

1-2 galdu zuten aramaioarrek Maezturen kontra. Iragarpenak bete eta irabazi egin zuten kadete mailako partidua, 22-10, baina gazte mailakoa ez zen espero moduan orekatua izan; 6-22 galdu zuen Aramaio, eta seniorretan ezin izan zuten ezustekorik eman –12-22 galdu–. Final-laurdenetan amaitu da aramaioarren ibilia Herriarteko pilota txapelketan.



Gaztelekuko kuboan aurkeztu zituzten proposamenak astelehenean. JOKIN BEREZIARTUA

Aisialdirako ekarpenak izan dira gehienak

Partaidetzako aurrekontuen prozesuaren barruan, 376 proposamen egin dituzte herritarrek. Udaleko bi alderdiek oso balorazio positiboa egin dute, eta asko "interesgarriak" direla azpimarratu. Lehentasunak finkatzeko saioak egingo dituzte orain

O.E. OÑATI

Partaidetzako aurrekontuen lehen fasean herritarren proposamenak jaso dira. 376, guztira. Postontzien bidez, eta euskaraz gehienak.

Arloka sailkatuta, aisialdiko multzoan dago kopururik handiena, 73 –San Martin parkea egokitu, Usako txukundu, kanpoko igerilekua, izotz pista...–. Mugikortasunari buruzkoak 67 izan dira –Arantzazura bidegorria egitea, egurrezko pasarela bat egin bidegorrian, errepideak asfaltatu, Martzelino Zelaia kalea oinezko bihurtu...–, zerbitzu eta azpiegiturei lotutakoak 46 –paseo bideetan komunak jarri, iluminazioa hobetzea herri osoan, wifia jartzea herrian...–, berdintasunarekin lotutako bost –Oñatiko Emakume Txokoa martxan jartzea, Elorregiko autobus geltokian beldurra pasatzen dela...–, kirol arloko 56 –instalazioak hobetu, atletismo pista, frontoia estali, parkour parke bat egin, kiroldegiko har-

mailetan jatea debekatzea...–, hondakinei buruzko 17 –zaborra batzeko sistema aldatu, zaka-rrontzi gehiago jartzea, erreka eta berdeguneak garbitu...–, ingurumen arloko 24 –Errekalde erreka puntualki berrazaleratzea, landare eta lore gehiago jartzea, garai bateko ortu-bideak berreskuratu...–, eta hezkuntzako bost –herritarren kompetentzia digitala garatzeko formazio saioak, ikastetxeek proiektu bateratuak egin...–, esaterako.

Adostasuna

Ekarpen guztiak irakurri eta aztertu dituzte udalbatza osatzen duten bi alderdiek, eta oso balorazio positiboa egin dute. "Pozik gaude. Askok jaso ditugu eta

**HERRITARREKIN
BATERA LEHENETSIKO
DIRA PROPOSAMENAK
DATORREN ASTEKO
SAIO IREKIETAN**

kalitatezkoak direla ikusi dugu, ez aliritzira egindakoak. Prozesua ondo doa. Hasieratik bilatu dugu adostasun politikoa. Puntu berdinetara iritsi gara eta barne lanketa arina izaten ari da", adierazi zuen astelehenean EH Bilduko Nerea Zubiak. Eta hark esandakoa berretsi zuen Lourdes Idoiaga jeltzaleak: "Adostasun maila handia dago eta pozgarria da hori oso. Bestalde, herritarren esfortzua ere kontuan hartzea da; eurek asmatzen dituzte herriaren beharrak".

Saio irekiak

Orain, datozen bi urteetarako gordeta dauden 500.000 euroak zertan inbertituko dituzten erabakitzeko bigarren fasea hasiko da; proposamenak lehenesteko saioak, alegia. Herritarrekin batera egingo dute hori ere eta horretarako hiru saio ireki egingo dituzte. Ekainaren 11n, 12an eta 13an izango dira saioak, Euskaldun Berria aretoan, 18:30ean.



Baltzategi, Elortza, Ugarte, Madariaga eta Osa eguazteneko mahai inguruan. I.O.

Bihar izango da Jerardo Elortza omentzeko ekitaldi nagusia

Santa Ana aretoan izango da ekitaldia, 12:00etan, eta herritik kanpokoek ere parte hartuko dute omenaldian

O.E. OÑATI

Bihar, zapatua, izango da Jerardo Elortza omentzeko antolatutako astelehenean azken ekitaldia. Santa Ana aretoan izango da, 12:00etan, eta kantuak, bertsoak, poesia errezitaldiak eta beste-lakoak egongo dira Olatz Osa oñatiarrak aurkeztuko duen omenaldi ekitaldian. Herritarrek ez ezik, kanpotik etorritakoak ere izango dira; tartean, erakunde ezberdinetako ordezkariak. Esaterako, Jaurilaritzakoak, Aldundikoak, Eusko Ikaskuntzakoak eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak.

Pozik

Jerardo Elortzari eskerrak emateko antolatutako aste honen balorazio ona egin dute antolatzaileek. "Jende asko etorri da. Bera ere pozik ikusten dut, gustura, eta gu ere pozik gaude", dio Kepa Elortzak.

Eguazteneko mahai inguruan, esaterako, kultura etxeko areto nagusia bete egin zen ia. "Ederra izan zen Oñatzen edo ikastolaren sorrera entzutea. Ikastolaren kasuan, une haiek zein gogorrak izan ziren kontatu zuten, eta entzutera joandako asko hunkitu egin ziren", dio Elortzak.

GORA ETA BEHERA



M.B.

Bizikleta berriak kiroldegian

Spinninga egiteko 11 bizikleta berri eta eliptiko bat jarri dituzte Zubikoako gimnasioan eta argazkia bidali digun irakurlea pozik dago: "Alde ederra; orain, lehenengoan finkatu dezaket bizikleta".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Tirolina guneko lanak motelago, eguraldiagatik

Tirolinaren azpian pinu-orriko lurra jarri dute. Beheko skate pistarako joan-etorria errazteko belardi bat egingo dute gune biak lotzen dituen aldapan. Zuhaitzak landatu eta eserlekuak eta egurrezko elementuak jarriko dituzte

Oihana Elortza OÑATI

Maiatzaren erdian hasi ziren tirolina gunea egokitzeko lanak egiten, eta umeez oporrak hartu orduko bukatzea zen asmoa. Eguraldiak, baina, ez du lagundu eta lanak uste baino berandutxoago bukatuko dituzte. Euri asko egin du azken asteetan eta lanak gura bezala egin ezin izana ekarri du horrek.

Tirolina

Joan den urtean jarri zuten tirolina bat Ibarrako skate parkearen gainaldean eta inguru hori txukuntzen eta elementu gehiago jartzeko lanak hasi zituzten maiatzean. Tirolinaren azpiko lurra, esaterako, aldatu dute dagoeneko. Lehen harri solte txikitxoak zeuden eta orain pinu-orriak bota dituzte eremu horretan. "Horren inguruko belardian landaketa egingo da eta eraberrituta geldituko da zona hori", dio Hirigintza zinegotziak, Irati Etxeberriak.

Inguruko belardi horretan egurrezko mahaiak eta eserlekuak ere jarriko dituzte, lehen bezala. Eserleku batzuk, baina, norabide konkretu bati begira jarriko dituzte, azpiko skate pista begira hain zuzen ere. "Tirolina dagoen gunea eta beheko skate pista lotuago egotea da asmoa. Horretarako, egungo aldapa horren erdialdean zelaitxo bat, berdegune bat, egingo da. Batetik besterako bidea erraztuko da horrela. Banku batzuk beheko gune hori ikusteko modua dagoen tokian jarriko dira. Modu horretara gurasoei errazagoa egingo zaie skate gunea eta tirolina gunea batera zaintzea", zehaztu du Etxeberriak.

'Parkour'-a

Mahaiak eta eserlekuak ez ezik, egurrezko elementu bereziak ere jarriko dituzte tirolinaren gune horretan; adibidez, kuboak,



Pinu-azalak jarri dituzte tirolinaren azpian. A.E.

KASABLANKAKO JOLAS GUNEAN ERABILERA ASKOTAKO KIROL PISTA BAT EGINGO DUTE

eskailerak, zintarriak eta hiriko altzariak. Eta zuhaitzak landatuko dituzte.

Aurten egingo dituzten lanek, baina, jarraipena izan dezakete datorren urtean, gune horretan *parkour* gune bat jartzeko asmoa baitu Udalak. "Gaztetxoek gustukoa duten jolasa da, eskaera batzuk jaso ditugu eta ideia buruan dugu. Aurtengo aurrekontuetan jasota dugun diruarekin hasita dauden obrak egiteko adina dago. Aurten ez da egingo, baina posible da datorren urteko aurrekontuetan horretarako diru kopuru bat gordetzea", adierazi du Hirigintza zinegotziak. 40.000 euroko inbertsioa izango dira aurtengo lanak.

Kasablankan

Kasablankako jolas gunean ere obrak egingo dituzte aurten,

handitzeko. Aurrekontuak lantzeko Arazerixan prozesuan jaso zuten eskaera hori eta aurtengo aurrekontuetan dago sartuta. Irati Etxeberria zinegotziak esan duenez, dagoeneko zirriborro bat egin dute eta hango bizilagunekin konpartitu dute. "Eراكutsi diegu eurei zer egin asmo dugun han eta harrera ona izan du. Gustatu zaie bizilagunei proposatutakoa, eta, beraz, hasiera batean, horrekin egingo dugu aurrera".

Bidegorriaren kontra, erreka ondoan, dagoen egungo jolas gunean era askotako kirolak egiteko pista bat jartzea da asmoa. "Espazioa bera ez da oso handia, baina badago horrelako pista txiki bat jartzeko tokia. Adibidez, 8x20 neurriko bat. Saskiak eta ateak jarriko dira", zehaztu du Etxeberriak.

Kasablankako bizilagunek gune horretan ping-pong jolaserako mahai bat jartzea ere eskatu dute eta Etxeberriak ez du ideia hori baztertu. Pleguetan jasoko dute eskaera hori ere.

Asmoa da jolas gunea eraberritzeko baldintzen plegua uda aurretik ateratzea eta obrak uda ostean hastea.



NIRE USTEZ

ELIAS ZUMALDE

Amorrua, itxaropena eta esker ona

Aitortu behar dut zutabe honen aurrean jarri izan naizen askotan zer gairi heldu asmatu ezinda ibili naizela. Gaurkoan ez, gaurkoan guztiz kontrakoa gertatu zait, idatzi nahi ditudan guztiak idazteko tarte laburregia dut. Gaurkoan, nire sentimenduen ganbara bete-bete eginda dago, era askotako sentimenduak. Ea labur-labur horietako batzuk azaltzeko gai naizen!

Haserre nago, minduta, amorratuta. Altsasuko gazteekin egiten ari direnak ez du izenik. Gehiegikeria, astakeria... Non dago justizia? Non demokrazia?

Itxaropentsu ere banago. Nekatuta, baina ilusionatuta. Domekan, Gure Esku Dagok antolatuta Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituen giza katea. Elkartu eta zer garen aldarrikatuta, zer izan nahi dugun eskatzeko aukera paregabea.

Azkenik, pozik ere banago, eskertuta. Ez dut tarte hau amaitu nahi Jerardo Elortzari eskerrak eman gabe. Sekulakoa da Jerardok Oñatiko eta Euskal Herriko kulturari, historiari, euskarari... egin dion ekarpena. Egin diona, egiten diona eta egingo diona. Aupa zu, Jerardo! Bejondeizula!

Ingurumen irteerak egingo dira uztailean gazteendako

Gazteendako ingurumen irteerak antolatu dituzte aurtengo udarako ere. Uztailean izango dira eta helburua ondo pasatzea eta ingurumenarekin lotura duten gaiak jorratzea da.

Hiru adin tartetarako antolatu dituzte eta talde bakoitzeko datak zehaztuta dituzte. 11 eta 12 urte arteko gaztetxoendako irteerak uztailean 2an, 5ean, 10ean, 13an

eta 18an izango dira; 13 eta 15 urtekoenak, uztailean 3an, 6an, 11n, 16an eta 19an; 16 urtetik gorakoak, uztailean 4an, 9an, 12an, 17an eta 20an. Uztailean 21ean edonork parte hartzeko moduko irteera egingo dute.

Aurtengo irteerak ere doan dira, baina aurrez eman behar da izena, taldeak sortzeko. Izena emateko azken eguna ekainaren 25a da, eta bideak, hiru: gaztelekuan, ingurumenirteerak@gmail.com helbidera mezua bidalita edo Facebook bitartez.

OHARRAK

Odol ateratzea

Ekaineko odol ateratzea egingo dute gaur, egubakoitza, MUKO Enpresagintza Fakultatean. Orduetgia da: 17:00etatik 19:00etara.

Usako

Usakoko aurtengo denboraldia bihar, zapatua, zabalduko da. Irailaren 9ra arte, soroslea egongo da egunero 15:00etatik 20:00etara.

Danborrada

Haurren danborradan parte hartzeko, izena eman behar da kultura etxean hilaren 19a aurretik. 2008an jaiotakoak dantzari eta 2009an eta 2010ean jaiotakoak ohiko konpainietan.

Erretiratuen Asteko egitaraua prest du Pake Leku elkarteak

Datorren astean egingo dute Pake Leku elkartearen Erretiratuen Astea eta egitaraua prest dute dagoeneko. Astelehenean, esaterako, lehen laguntza psikologikoari buruzko hitzaldia egingo du Juan Jose Sagartzazu medikuak, 17:30ean. Martitzenean, Santa Anan, musika emanaldia egingo du Aloña abesbatzak musika eskolako ikasleekin batera. Eguaztenerako, ibilaldia eta dantzaldia dute programatuta, eguenean bingo berezia eta egubakoitzean txokolate-jana eta dantzaldia. Domekan, ekainak 17, egingo dute urteroko bazkaria Zubikoa kiroldegian. Elkarteko bi lagunak omenaldia jasoko dute bazkarian.



Xabier Infante Artza, Oñatiko Zubikoa kiroldegiko igerilekuan. GOIENA

Zubikoan zuzenduko duen azkena izango da

Benjamin eta alebin mailletako 300 neska-mutiko lehiatuko dira zapatuan Zubikoako igerileku handian. Xabier Infante 'Artza'-rendako egun berezia, Aloña Mendiko entrenatzaile moduan etxean zuzenduko duen azken txapelketa izango da eta

Oihana Elortza OÑATI

Datorren hilean, uztailean, beteko ditu 60 urte Xabier Infante Artza-k, eta erretiroa hartuko du. Ez da, baina, igerilekutik erretiratuko. Argi du hori: "Entrenatzailea Josune Odriozola izango da gero, eta ni hark esandakoak betetzen egongo naiz. Egunen batean autoa hartu eta nonbaitera joatea pentsatzen badut, joango naiz, hori bai".

Badoa

Entrenatzaile moduan egingo duen azkena da Artza-rendako bukatze dagoen ikasturte hau. Sare sozialen bitartez ere agurtu ditu joan den irailetik hona egon den lehiaketak. Horrek, baina, ez du esan gura Artza poz-ozik doanik azken hiru hamarkadetan bere lantokia izan den taldetik. "Ez nabil atzera kontua egutegian markatzen, egunak borratzen, alegia. Ez. Egia esanda, pena dut. Oso gustura nago ni igeriketan, baina denak du amaiera-data bat. Erre-

tiroa hartzeko ere eguna jarri behar da, eta nik uztailearen amaierakoa jarri nuen", dio hark. Erretiroa hartu eta gero zer egingo duen galdetuta, argi du erantzuna: "Ez naiz entrenatzailea izango, baina bai laguntzailea, eta hurrengo lehiaketak ikusiko ditut laguntzaile eta antolatzaile. Eta noski, lagunekin ere egingo ditut planak. Esaterako, Iruñeko lagunekin egun osoko plana dut eginda Euskal Herriko txapelketa han jokatzeko denerako".

Lagunak

Iruñean bakarrik ez, herri askotan ditu lagunak Artza-k: "Lagun asko eta onak egin ditut igeriketari lotuta egon naizen urte hauetan guztietan. Hori da geldituko zaidan oroitzapenik onena. Oso momentu onak pasatu ditut, bai, baina egindako harremanekin eta lagunekin gelditzen naiz".

Lagun horiek, hain zuzen ere, badakite, noski, Artza erretiroa

hartzekotan dagoela, eta opariak egin dizkiote. Hunkigarrienetakoa, duela aste gutxi Arabako hiriburuan jasotakoa. Gasteiztarra da sortzez Artza, eta hango Judizmendi igeriketa elkartean hasi zen igerian. Harreman hori mantendu egin dute eta horren erakusgarri da ekainaren 2an Gasteizen jokatu zen lehiaketan jaso zuen oroigarria: alde batean Aloña Mendiko armaria, beste batean Judizmendikoa eta sorbalda gainetan Baskonia eta Alaves taldeen bufandak dituen panpina bat, *Eskerrik asko!* jartzen duen ohol baten gainean. "Ilusio handia egin zidan opari horrek. Ama eta anaia ere han ziren, igeri-

34 URTE EGIN DITU IGERILEKUAN ETA AURRERANTZEAN ERE HAN IZANGO DELA DIO INFANTEK

lekuan, eta oso polita izan zen", dio Infantelek.

Azkena

Bihar, zapatua, Corpusetako igeriketa txapelketa izango dute benjamin eta alebin kategorietako igerilariak Zubikoan. Egund berezia izango da Infanterendako, entrenatzaile moduan Oñatin egingo duen azken saioa izango baita. Ikasturtea bukatzeko, Gipuzkoako txapelketa jokatu dute alebinek Azepeitian ekainaren 16-17ko asteburuan eta hileko azken asteburuan, berriz, Euskal Herriko Ordizian. Baina bi horiek etxetik kanpora egingo dituzten lehiaketak dira eta zapatukoa izango da etxeko azkena Aloña Mendiko egungo entrenatzailearendako. "Badakit hunkitu egingo naizela. Eta negar ere egingo dut, agian, baina hori oso osasuntsua da, barruko emozio eta tentsioa negar egin da kanporatzea sana da oso".

Gipuzkoako, Nafarroako eta Gasteizko hainbat igeriketa elkartetako igerilariak elkartuko dira biharko proban Oñatin; 300 bat neska-mutiko, guztira. Proba, betiko moduan, 15:30ean hasiko da eta igerilekua 13:30ak arte bakarrik egongo da zabalik erabiltzaileendako.

Obrak

Xabier Infante Artza-k 34 urte egin ditu lanean Oñatiko igerilekuan. Egund, 150 igerilari daude hark entrenatzen duen Aloña Mendi elkartean, eta kezka duela dio, kiroldegiko obren ostean taldea nola geldituko den galdetuta. "Emaitzak lortzeko oinarri sendoa behar da egon, eta ez dakit zer gertatuko den obren ostean. Egia da kiroldegia, baina igerilekuak konkretuki, eraberritu egin behar dela. Igerilekuek goia jo dute eta berritu egin behar dira, bai. Aurten ez bada datozen urteetan egin beharreko lana da hori. Orain egingo dute, eta albiste hori ona da. Horrek, baina, etena ekarri dezake taldean, eta hori da alde txarra. Hala ere, hemendik aurrera egin behar dena da aurkeztu diren hiru enpresa horien artean aukeraketa ona egin eta hasieratik zehaztu zer egin gura den, eraberritze prozesuan erabiliko diren materialak zeintzuk izango diren ere kontuan hartuta. Eta, noski, obren jarraipena egitea behar-beharrezkoa da, nire ustez".

Gipuzkoarekin jokatu du bihar Maider Molinerok

Aloña Mendik antolatuta, Corpusetako eskubaloi txapelketa jokatu dute bihar, zapatua, Zubikoa kiroldegian. Gaztetxo mailako Hego Euskal Herriko selekzioak etorriko dira. 09:30ean hasiko dira elkarren arteko partiduak eta arratsaldean izango dira finalak. Gipuzkoako taldean, Maider Molinero oñatiarrak jokatu du.

Kadete mailako txirringularitza proba egingo dute domekan

Kadete mailako Olakua txirringularitza proba domekan izango da. Lehen urtekoen lasterketa 16:00etan izango da eta tropelean izango dira Aimar Erostarbe, Danel Casais eta Aitor Altube oñatiarrak. Bigarren urtekoena 17:30ean izango da eta beste hiru oñatiarrek hartuko dute parte hor: Unai Cuevak, Aritz Torresek eta Unax Arregik.

Gatillazo taldeak joko du gaur gauean Olakua auzoko jaietan

Gaur, egubakoitza, hasiko dira Olakua auzoko jaiak, 19:00etan. Aurreko urteetan bezala, kontzertua egongo da gauean, 22:00etan, eta joko duten taldeetako bat Gatillazo izango da. Domekara bitartean, hurrendako jolasak, herri kirolak, dantza erakustaldia, talogileak eta mus txapelketa egongo dira, esaterako.

Hots taldeak emanaldia egingo du bihar Bidaurretan

Tximeletak udaberrian izeneko emanaldia egingo du emakume ahotsez osatutako Hots abesbatza bihar, zapatua, Bidaurretako monasterioan. Duela urte eta erdi sortu zen ahots zuriko talde horrek euskal musika, The Beatles taldearen kantuek eta kantu espiritualak abestuko ditu, besteak beste, bihar, 19:00etan. Sarrera bost euro da.



2019ko udarako espero dute ur jolasen gune berria egokitzea, eta ia ateratako argazkiko berdegunean jarriko dute. GOIENA

Egokitzapen-lan txiki batzuk udaldirako

Gaur hasi eta irailaren 14ra arte egongo da zabalik kanpoko igerilekua eta aurtengo nobedade bat da umeendako aspertsoreak jarri direla egun beroentarako; ur jolasak 2019ko udarako martxan egotea aurreikusten da, 160.000 euroko aurrekontuarekin

Jokin Bereziartua BERGARA

Agorrosingo kanpoko igerilekua gaur bertan ireki ostean, irailaren 14ra bitartean iraungo du aurtengo udako denboraldiak. Ekainean, uztailean eta abuztuan, Agorrosingo instalazioen ordutegia 06:30etik 21:30era arte izango da eta kanpoko igerilekua 10:00etatik 20:30era egongo da zabalik. "Asteburuetan dator aldaketa; ekaineko, uztaileko eta abuztuko aste bukaeretan 09:00etatik 21:00etara egongo da zabalik Agorrosin. Aldaketa da aurtengo instalazioa ez dela itxiko eguerdian", dio Kirol Zerbitzuko teknikariburu Iñaki Ugarteburuk.

Igerilekuetarako aurtengo berrikuntzetako bat da umeek jolasteko aspertsore edo ihintzagailu batzuk jarri dituztela: "Dutxetan aspertsore batzuk jarri ditugu, umeak jolas daitezten, eta lehengo iturria dutxen ingurura mugitu dugu; izan ere, umeek iturria globoekin jolasteko ere erabiltzen zuten. Aukera bat ematen diegu egunik

beroenetan freskatu daitezten", gaineratu du Ugarteburuk.

Ur jolasek, 150 metro koadro

Hurrengo udarako espero du Udala Gobernuak "hainbat herri-tarrek" egin duten eskaerari erantzun eta ur jolasen gune berria Agorrosingo kanpoko igerilekuaren ondoan martxan izatea. "Gure asmoa zen proiektua lehenago amaitzea, baina arazo tekniko batzuk izan ditugu. Proiektua ia bukatuta dugu; 150 metro koadro izango ditu esparruak, adin ezberdinetako umeendako jolasez hornitua", adierazi du Elena Lete alkateak. Ur txorroten gune berri hori kanpoko igerilekuaren eremuan bertan kokatzeko hainbat arra-

UDALEKUETAN BI SAIO EGINGO DIRA, UMEEK BEDERATZI UR JOLASEN ARTEAN AUKERA DEZATEN

zoi zehaztu dituzte: aisialdirako ur-gunea leku berean zentralizatzea, segurtasuna bermatzea, igerilekutik irisgarriagoa izatea eta ura bertara eramateak zailtasun gutxiago suposatzen dituela, besteak beste. "Igerilekua erabiltzen dutenendako oso erakargarria izango dela uste dugu, eta beste igeritokiaren osagarria izango da", dio Letek.

Udalekuetako umeen erabakia

Obra zibila zehaztuta dute eta bederatzi aukera eskainiko zaie udaleku irekietan parte hartuko duten umeek gura duten ur jolas mota aukeratzeko. "Proiektuaren jatorria ideia lehiaketa baten dago eta partaidetza prozesu batekin borobildu nahiko genuke; udalekuetako ekintzen artean bi saio egingo dira umeek jolas mota aukera dezaten". Umeen aukera aintzat hartuta, udan esleituko dute obra eta neguan zehar lanak gauzatzea aurreikusten da. Aurrekontu osoa 160.000 euro inguru da.



NIRE USTEZ

MARIJE UGALDE

Musikarien duintasuna

Jarri gaitzen herriko jaietan, itxi begiak eta entzun dezagun. Zarata handia, jendearen berbak... Baina ez dago musikarik! Imajina dezakezue? Pentsaezina! Musika egiteko musikariak behar dira. Ofizio polita; gustuko duzunaz bizimodua ateratzea, ederra da. Aitzitik, talde batek emanaldiagatik 21.000 euro kobratu dituelako, sekulako eztabaida sortu da herrian. Baina pentsa dezagun musika talde baten gastuetan: taldearen agentearen soldata, ekipoak muntatu eta desmuntatzen dituzten langileak, garraioa, soinu eta argi teknikariak... Abesti originalak badituzte, konposatzeko eta moldaketak egiteko erabili diren orduak; eta bukatzeko, oholtza gainean dauden musikariak. Maila handiko lau edo bost musikari izan daitezke eta, gainera, egunero, edozein langilek bezala, sei-zortzi ordu eman ditzakete lanean. Pentsa, bira egin aurretik, askotan, sei hilabete edo gehiago eman ditzakete abestiak prestatzen, kobratu gabe. Udan hasiko dira irabaziekin, eta horrekin urte osoan bizi behar. Horrenbeste diru da? Euskal Herrian, musika taldeak bizi al daitezke euren musikaz? Musikarion lanbide duin baten alde!

GORA ETA BEHERA



IMANOL SORIANO

Zuloa Labegaraietako aparkaleku batean



Herritar batek adierazi duenez, Labegaraietako aparkaleku batean "sekulako zuloa" dago, eta konpontzeko eskatu dio dagokionari: "Autoaren errubera tratatuta geratu zait".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

Azoka solidarioa Espoloian, Mariaren Lagundiaren eskutik

Urteroko festa ospatzeaz gain, Mariaren Lagundiak gobernuz kanpoko hamahiru erakunde batuko dituen azoka solidarioa egingo du bihar Espoloian. GKE bakoitzaren lana ezagutzera emateaz gain, zenbait produktu ere salduko dituzte. Azoka 10:00etatik 14:00etara izango da, eta, eurria bada, ikastolako gimnasioan egingo dute azoka.

Ikasturte amaierako festa bihar San Martin eskolan

Egun osorako plana antolatu dute San Martin eskolakoek: mendi buelta San Martzialera (09:00-11:00), batukada herriko kaleetan zehar (11:00-12:30), gurasoen eta umeen arteko jolasak trikitiak alaituta (12:30-14:30), 250 lagun elkartuko dituen bazkaria (14:30) eta Ibon magoaren ikuskizuna (16:00). Jaia borobiltzeko, DJ bat izango dute 20:00ak arte.

Herri kirolari baten historia, 62 argazkitan

750. urteurrena gogorarazteko ekintzen barruan, kirol argazkien erakusketa jarri dute Agorrosingo taberna ondoan eta ikusgai egongo da uztailaren 28ra arte; Iñigo Zaitegi eta Pili Arin aritu dira lanean buru-belarri erretratuak aukeratzeko eta identifikatzeko

Jokin Bereziartua BERGARA

Agorrosingo taberna ondoko patioan Bergarako historiaren parte garrantzitsu batez gozatzeko aukera egongo da uztailaren 28ra arte. Erakusketa bat jarri berri dute eta asmoa da abuztu osoan zehar Aroztegin ikusgai jartzea. 62 argazki dira, iraganaren lekukotza ederra eskaintzen dutenak; betiere, kirolaren ikuspegitik. Bergarako Udaleko, Pol-Pol Mendizale Taldeko eta Bergara Kirol Elkarteko artxibotik lortu dira argazki gehientsuenak.

750. urteurrena gogora ekartzeko ekitaldien barruan kokatzen da erakusketa hau ere, eta,

antolatzaileek nabarmendu dutenez, "oso zaila" izan da milaka argazkiren artean 62 aukeratzeko. Iñigo Zaitegi eta Pili Arin izan dira ekimenaren sustatzaile nagusiak, eta, diotenez, saiatu dira ahalik eta kirol gehien erakusten –horietako batzuk desagertuta daudenak egun Bergaran; atletismoa, ziklo-krosa, badminton, boxeoa eta kriketa, adibidez–, eta irizpide parekidea ere aintzat hartu dute.

5.000 argazkitatik, 62

"Bergaran askotariko kirolak praktikatu izan dira eta maila oneko kirolariak izan ditugu diziplina ezberdinetan. Belau-

naldi berriek seguruenik ez dute ezagutuko eta hori erakustea izan da helburu nagusia", dio Iñigo Zaitegik. Bergara Kirol Elkarteko 50. urteurreneko libururako egindako lana aprobetxatu du Zaitegik, hein batean: "Orduan sekulakoak egin genituen argazki zaharrak aurkitzeko, etxez etxe ere ibili ginen... Horregatik erabaki genuen Udal Artxiboari ematea eskuragarriagoa egon zitezen". 5.000 bat argazki izan zituzten hasieran Arinek eta Zaitegik eta horietatik 140 geratu ziren; azken aukeraketaren ostean, 62 erretratu erakutsiko dira aretoan; ez dago gehiagorako lekurik.

Identifikaziorako, lan handia

Ekimenaren beste ezinbesteko hanka Pili Arin izan da: "Argazki mordo bat zeuden inongo identifikaziorik gabe eta lan zailena protagonistei izen-abizenak jartzea izan da. Argazkiei fotokopiak atera eta herrian zehar galdetzen joan naiz; laguntza itzela jaso dut. Hain justu, uste dut erakusketa honen balioa dela argazkiak izendatuta doazela. Egindako lan hau betirako geratuko da hori". Betiko geratuko den moduan Bergarako atletismoaren testigantzak jasotzeko egiten diharduen lana.



Mariaren Lagundiko emakume talde bat kriketeen, 1930eko hamarkadan. UDAL ARTXIBOA



Herriarteko Pilota Txapelketako txapelak (2009); tartean, Beñat Rezusta. IÑIGO ZAITEGI



Plater tiroketako sari banaketa Agorrosin. UDAL ARTXIBOA



Erakusketako argazkirik zaharrena: Agorrosin futbol zelaia, 1920an. UDAL ARTXIBOA

Puntako saskibaloia jokalariekin mahai-ingurua hilaren 13an

Nekane Arzallus (GBC), Carmen Muguruza (IDK) eta Livia Lopez (Araski) gonbidatu ditu BKEko Saskibaloia Sailak

J.B. BERGARA

Bergara Kirol Elkarteko Saskibaloia Sailaren eskutik, Gipuzkoa Basket Clubeko Nekane Arzallus, IDK Gipuzkoako Livia Lopez eta Araski Arabako Emakumeen saskibaloia taldeko Livia Lopezek

euren esperientziak kontatuko dituzte ekainaren 13an Miguel Altuna Lanbide Heziketako areto nagusian (19:00). Juanjo Lusa kirol kazetari ezagunak bideratuko du saioa: *Emakumea eta saskibaloia. Oraina eta etorkizuna*. Antolatzaileen esanetan, saioa gazteleraz izango da.

na. Antolatzaileen esanetan, saioa gazteleraz izango da.

Hiruko txapelketa

Hilaren 16an eta 17an jokatu dira urteroko hiruko txapelketak, San Martin plazan. Hilaren 16an, goizez, infantilak, kadeteak eta junior mailakoak lehiatuko dira eta arratsaldean, berriz, senior mailakoak. Ekainaren 17an, goizez, alebinak eta benjaminak lehiatuko dira. Izena eman daiteke ekainaren 12ra arte: www.bergarake.com/eus.

Ekainaren 29rako gonbidapenak hilaren 12an eskura daitezke

750. urteurrenaren harira ekainaren 29an San Martin plazan egingo den kontzertu "errepikaezina" ikusteko gonbidapenak jaso ahal izango dira ekainaren 12an Seminarixuan, 18:00etatik 20:00etara. Pertsona bakoitzak sei gonbidapen eskuratu ahaliko ditu, gehienez. Udala eta elkarre zein herritar ugari ari dira "ikuskizun erraldoia" prestatzen.

OHARRAK

Gaztetxea: auzolana
Garbiketa eta mantentze-lanak egiteko auzolana bihar gaztetxean, 09:30ean.

San Martzialgo txosna

Uztailaren 1an San Martzialgo erromerian kantinararen eta txosnaren ustiaketarako izena eman behar da ekainaren 14a baino lehen. Irabazi asmorik gabeko elkarte dago zuzenduta: www.bergara.eus.



Urteaga kaleak ibaia zirudien domeka arratsaldean.



Udalak dio ibai ondoko "gehiegizko" florak eragin zuela uholdea.



San Antonioko plaza berrirako obran ere kalteak izan ziren.



Langileak auto bat garabian ateratzen, Urteaga kaleko aparkalekuan.



Garaje batzuetan urak metro erdiko altuera hartu zuen domekan. ARGAZKIAK: WHATSAPP

Kalte-ordainak lortzeko lanean

Domeka arratsaldeko ekaitzaren ondorioz kalteak izan zituzten herritarrei Aseguruen Konpentsazio Kontsorzioan eskaera egitea gomendatu die Udalak, eta balorazio ekonomikoak Udaltzaingoarekin partekatzeko eskatu dute, datuak eskura izateko

Jokin Bereziartua BERGARA

San Antonio eta Urteaga kaleak izan ziren domeka arratsalde hasieran 20 bat minutu iraun zuen ekaitzak eragindako herriko gunerik kaltetuena, Antzuolatik (ikus 34. orria) gertuen daudenak. San Martzialerako bidean eta azoka ondoan, Boluan eta Toki Ederren ere uholdeak izan ziren, batere ohikoak ez diren argazkiak utzita.

Gomendio zehatzak kaltetuei

Kalte material aipagarriak izan ziren; garajeetako autoetan eta bestelako hainbat ondasunetan, lokatza hainbat ataritan... Zorionez, baina, ez zen kalte pertsonalik izan. Kaltetutako ondasunei dagokienez, Udalak ezin du ziurtatu nork hartuko duen bere gain kalteen ordaina: "Ezin dugu jakin, aseguratutako ondasunei dagokienez, aseguru-etxeak edo

Aseguruen Konpentsazio Kontsorzioa izango diren. Eta ezin dugu jakin, ezta ere, aseguru gabe zeuden arriskuak Madrilgo Gobernuak laguntzarik emango duen". Horregatik, kaltetutako ondasunak aseguratuta dituztenei gomendatzen diete kalteak egiaztatzeko dokumentuak biltzea eta gordetzea, eta argazkiak zein fakturak gordetzea.

Gero, lehenik eta behin, norberaren aseguru-etxera jotzea gomendatu dute, zazpi egun naturaleko epean -ezbeharraren kalteak izan direnetik kontatzen hasita-; aseguru-etxeak kalte-tuari erantzun dio ea ezbeharraren kalteak bere gain hartzen dituen edo aseguruak Aseguruen Konpentsazio Kontsorzioari jakinarazi behar dizkion xehetasunak. Hala ere, Udaletik diotenez, domekakoa moduko gertaerek Aseguruen Konpen-

tsazio Kontsorzioaren estalpea izango dutela aurreikusten denez, gomendatu dute hasieratik kontsorzioan ere egitea eskaera; edozein kontsultarako Donostiako Delegazioaren telefonoa eman dute: 943 43 37 60.

Balorazioen berri eman

Ondasunak aseguru gabe dituztenei, dokumentuak, argazkiak eta bestelakoak gordetzeko eskatu die Udalak, eta adierazi dute beste erakunderen batetik laguntzaren bat emateko aukera balego jakinaraziko zaiela. "Eskertuko genizueke balorazio ekonomikoaren informazioa Udalarekin partekatzeari. Datuak eskura izatea gura dugu, eskumena duten erakundeek neurriak har ditzatela eskatzeko", gaineratu dute. Horretarako Udaltzaingora deitzeko eskatu dute: 943 77 91 06.



Obra eta Zerbitzuetako teknikaria eta zinegotzia, alkatearekin batera. J.BILBAO

"Ubidea nahikoa zen zaparradarako"

Astelehenean egindako agerraldian Elena Lete alkateak azpimarratu zuen domekako ur jararako erreken ubidea nahikoa zela: "Erreken ubidea nahikoa zen, gai zen zaparradak eragindako ura bideratzeko, baina erreka inguruetan hazten diren zuhaitzek tapoia egin zuten hainbat puntutan. Horregatik, Ura Agentziari eskatzen diogu erreka inguruetakozuhaitzekin duen kudeaketa ereduazertu dezala, eta errekan hazten diren landareekin eta zuhaitzekin beste zerbaitekin daitekeen aztertzea, herritarren segurtasuna bermatu dadin". Ura agentziarekin argituko dute gertatutakoa berriro halakorik gerta ez dadin. Bestalde, herritarren jarrera txalotu eta eskertu gura izan zuen Letek: "Herritarrei eskerrak eman nahi dizkiegu domekan izan zuten jarrera aktiboagatik eta erantzuleagatik. Jarrera horrek izugarri erraztu zuen guztion lana".



Goiko Rock Musika Elkarteko kideak eta Udaleko ordezkariak. AMAIA TXINTXURRETA

Goiko estazioko sormena, zuzenean eta doan

Kontzertua eskainiko dute Lord Witch, Turboshit eta Low Cost Deluxe taldeek gaur, barikua, 22:30ean, Seminarixoan. Emanaldia doan izango da. Gaur egun 22 taldek entseatzeko dute goiko estazioan dauden zortzi lokaletan –80 lagun inguru–

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA Bergarako Udalak eta Goiko Rock Musika Elkartek antolatuta, herriko hiru musika taldek kontzertua eskainiko dute Seminarixoan gaur, barikua. Lord Witch, Turboshit eta Low Cost Deluxe taldeek joko dute zuzenean.

Goiko estazioko sormena

2008an Udalak obra egin zuen goiko estazioan eta lokal horiek kudeatzeko Goiko Rock Musika Elkartea sortu zuten. Bada, lokal horietan entseatzeko dute hiru taldek eskainiko dute kontzertua. Emanaldirako sarrera doan izango da –aretoak 500 lagunendako tokia dauka–. Ekimen horren bitartez, Goiko Rock Musika Elkartearen barruan dagoen sormenaren berri eman nahi da. "Herriar askok ez dute ezagutuko goiko estazioan dagoen musika eskaintza", azaldu du Kultura zinegotzi Maite Agirrek. Bada, gaur, talde horiek egiten duten lana herrian ikusi ahal

izango da. Kokalekuari dagokionez, hauxe adierazi du Agirrek: "Orain dela sei hilabete zabaldu genuen Seminarixoan eta hasieratik argi geneukan hainbat diziplinatako Bergarako taldeen zuzen ere irekita egon beharra zeukala. Sei hilabete hauei amaiera emateko, zerbait desberdina falta zela uste dut, eta, goiko estazioa aspaldidanik dagoenez zabalik, interesgarria zela iruditu zitzaigun beste estilo bat jorratzeko eta ezagutzera emateko Goiko Rock-en egiten dena Seminarixoan erakustea".

Udalak gogorarazi du Seminarixoan diziplina guztietara zabalik dagoela eta herriko taldeen zuzen ere irekita egon beharra zeukala.

GOIKO ESTAZIOAN ENTSEATU NAHI DUENAK UDALETXEAN EGIN BEHARKO DU ESKARIA

dantza, antzerkia... lantzen duten guztiek lekua dutela han.

22 talde daude lokaletan

Gaur egun, Goiko Rock Musika Elkartearen baitan 22 taldek edo bakarlarik entseatzeko dute goiko estazioan, eta 80 lagun inguru daude izena emanda.

Norbaitek goiko estazioan entseatu nahi baldin badu, eskerra egin beharko du udaletxean; elkarteko ordezkariak horren berri dutenean, euren lana izango da talde edo bakarlari horri lekua egitea. Lokalean entseatzeko baldintza bakarra da taldeko kideen erdiak gutxienez bergararrak izatea. 16 urtetik gorako adingabeak ere izan daitezke elkarteko kide; horretarako behar duten bakarra gurasoen baimena izango da.

Elkarteko kide izateak betebeharrak ere badituela gogorarazi dute: hilero 5 euroko kuota bat ordaindu behar da lokalean gerta daitezkeen mantentze-gastuei aurre egiteko.



Mursego, kartzela zaharreko agertokian, zapatuan. JONE ALBENIZ

Arrakasta izan du Bergarako laugarren Elektronika Topaketak

Zapatuan kartzela zaharrean 350 bat lagun elkartu ziren 13 orduz elektronikaz gozatzeko eta dantzatzeko

A.E. BERGARA

Zapatuan kartzela zaharrean ospatu zen Bergarako Elektronika Topaketaren laugarren edizioak arrastoa utzi zuen; elektronika munduko *underground* eszenako izen handiak izan ziren Bergaran, eta ez zuten hutsik egin. "Dena oso ondo irten da", diote antolatzaileek. 350 bat lagun elkartu ziren 13 ordu iraun zuen topaketan.

Techno munduko izen handiak

Techno munduko "izen potoloak" izan ziren Bergaran: Acid Fortwins (Donibane Lohizune) osa-

tzen duten Peio Erramouspe eta Martin Grasset; DJ Baleaonda (Donibane Lohizune); DJ Koldo eta B2B DJ Muerto (Donostia-Madril); DJ Mancini (Donostia); DJ Mazmorra (Bilbo); Gela (Madril); Mursego (Eibar); eta Olor (Ermua).

Dantzarako bakarrik ez diren emanaldiak eskaintzea izaten da topaketa horren helburua, eta antolatzaileek azaldu dute "kosta" egiten dela horrelako emanaldiak bilatzea, baina "elektronika entzuteko ere badela" aldarrikatu nahi dute. Helburua bete dutela esan daiteke.

Zeramikan ibili direnen lanak batu nahi dituzte erakusketa egiteko

Begarako zeramikako udal tailerrak 40 urte bete ditu, eta hori ospatzeko erakusketa zabaldu gura dute uztailean. Horretarako, zeramika tailerrean ibili diren bazkideak elkartu nahi dituzte. Erakusketan parte hartu nahi duenak 653 72 54 47 telefono zenbakira deitu beharko du ekainaren 24a baino lehen. Erakusketa muntatu eta lanak aurkezteko eguna uztailearen 17a izango da. Erakusketa Aroztegin zabalduko dute uztailearen 20tik 29ra bitartean.

Begarako Carmen Montoyak jarri zuen tailerra martxan orain dela 40 urte. Egun, Buztinzale Zeramika Elkartek kudeatzen du elkartea eta lokala.

Felix Idigorasen lanak jarriko dituzte ikusgai Aroztegi aretoan

Felix Idigoras bergararraren erakusketa zabalduko dute gaur Aroztegi aretoan. Argazkilaritza Idigorasen zaletasuna da; hain zuzen, naturarekin eta animaliekin lotutako argazkiak egitea du gustuko. Animalietan, hegaztiei argazkiak egitea da Idigorasen espezialitatea. Hainbat sari irabazi ditu argazki horietan; esaterako, 2017an Bergara Hiria lehiaketan. Gaur zabalduko dute eta hilaren 24ra arte egongo da zabalik erakusketa.

Aroztegi orduetgia da: martitzenetik barikura, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; domeka eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.



AKEko jokalariek izako festan. IMANOL SORIANO

Gorritz jantziko dira herriko kaleak bihar

Denboraldiari bukaera borobila emateko, Antzuolako Kirol Elkartearen eguna ospatuko dute antzuolarrek. Kirola, musika eta festa izango dira nagusi. Egun osoko egitaraua prestatu dute, gainera; herritarrei, gorritz jantzeko dei egin diete

Maidar Arregi ANTZUOLA

Baietz Antzuola gorritu! Jantzi gorritz! lelopean, bihar egingo da Antzuolako Kirol Egunaren jaia. "Iazko harrera ona ikusita, aurtan ere herritarren berotasuna jaso gura dugu eta festa herrira zabaldu dugu", dio AKEko presidente Ibon Gezalagak. "Antzuolarrei gorritz jantzita etortzeko dei egin diegu".

Herri bazkaria

Pilotalekuan egingo da bazkaria, eta lepo beteko da, gainera. 360 lagunek eman dute bazkarirako izena. "Aurtan ere, jokalariek erregularrenei aitortza egingo zaie eta sorpresa gehiago ere izango dira". Bazkariaren ostean, *barru* popularra egingo dute, pilotalekuan bertan. Nahi duenak parte har dezake; eta kale

egiten duena, kalera. Horren ondoren, arratsaldea Sakatu elektro-txararak girotuko du". Talde nagusiak mailari eustea lortu du eta balorazio positiboa egin du Gezalagak. Orain, entrenatzaile berria bilatzeko lanean dihardutela aitortu du: "Igor Larreak utzi egingo du eta orain bagabiltza ordezko baten bila".

Abian da Hobeki, hondakinen kudeaketa hobetzeko erakundea

Martitzeneko osoko bilkuran, Hobeki elkartean sartzeko proposamena jarri zuen mahai gainean Udal Gobernuak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Ekaineko ohiko osoko bilkura egin zuten martitzenean. Gai zerrendan ez baldin bazetorren ere, domeka arratsaldeko uholdeen gertaerak markatutako osoko bilkura izan zen. Antzuolako alkate Beñardo Kortabarrak kalteak zerrendatu zituen, eta momentuko egoeraren berri eman. Antzuolako alkateak azpimarratu zuen premiazko zenbait lan egin dituztela dagoeneko, eta lehentasunak jarri -34. orrian xehetasun guztiak eta azken ordua-.

Hondakinen kudeaketa

Antzuolako Udal Gobernuak garbi daukala hondakinen kudeaketa egoki baten alde lanean jarraituko duela adierazi zuen martitzeneko osoko bilkuran: "Hondakin gutxi sortzea, berrehabiltzea eta birziklatzea ditu

oinarri Hobeki elkarteak. Elkarte berri bat da eta helburua dauka hondakinen kudeaketa bere ziklo osoan hobetzea elkarrengandik ikasiz", adierazi zuen alkateak. Hobeki elkarteak Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba hartzen ditu kontuan, oraingoz; baina asmoa da Nafarroara zabaltzea. "Dagoeneko Nafarroarekin ere hasiak dira harremanetan. Hondakinen kudeaketa-plangintza berria lantzen ari dira nafarrak eta ikustear dago noiz sartuko diren elkartean. Kolore askotariko elkarteak izan gura du; helburua hobetzea da".

Elkarte berriaren Antzuola sartzeari datorren hileko osoko bilkurara eroango dute berriro. Izan ere, idazkariak argitu zuen gehiengo nagusiaren aldeko botoen beharra zegoela onartzeko, eta martitzenean gehiengo sinplea zuten EH Bilduk.

KÖMMERLING
SISTEMA DE VENTANAS

KÖMMERLING-ekin, eguraldi txarretik guztiz babestuta

KÖMMERLING sistema duten leihoen abantailak:

- Isolamendu termikoa
- Energia aurrezte
- Ur-estankotasuna
- Mantentze-lan txikia
- Isolamendu akustikoa
- Material birziklagarriak
- 10 urteko garantia
- Kolore aukera zabala

MAKOR DENDA
Banatzaile etxekoa

Zerkanosteta 15, 30kna • ARRASATE
943 10 62 25 / 623 29 82 43
makordenda@gmail.com
www.makordenda.com

Futbol eskolako gaztetxoek partiduak

laz egin zen errealitate Antzuolako futbol eskola. Herrian neska-mutiko ugari elkartzen ditu eskolak eta horren erakusle izango da aurtan jokatuko diren partiduak. Eztalan jokatuko dira, 11:00etan hasita, neska-mutikoen arteko partiduak.

Aurrez, baina, beteranoek neurtuko dituzte indarrak Eztalako zelaietan, 10:00etan.



Iazko neska-mutikoen partidua, eskolako patioan. IMANOL SORIANO

Milioi erdi behar du Torresoroak

Uholdearen osteko barealdian, euri-jasak eragindako kalteak neurtzen hasiak dira Udaleko arduradunak eta herritarrak. Besteak beste, aurreikuspenen arabera, milioi erdi euroko inbertsioa beharko da Torresoroako berregokitze lanetarako

Iker Oñate ANTZUOLA

Euskal Herriko zenbait txokotan uholdeak eragin zituen joan den domekako euri-jasak. Eta, orain, horrek eragindako kalteen balorazioa egitea dagokie erakundeek. Besteak beste, urez bete ziren Antzuolako kaleak; eta "kalte handiak" izan ziren herriko zenbait txokotan. Besteak beste, uholdeak "zeharo hondatuta" utzi zituen Torresoroako liburutegia, gizarte laguntzailearen bulegoa eta kamerinoa.

Garbiketa lanak bukatuta, euri-jasaren "kalteak" neurtzen dihardute udal ordezkariak eta herritarrek. Eta, horri lotuta, gaur-gaurkoz, Udaleko aseguruarekin harremanetan jarria da Espainiako Ekonomia Ministerioko aseguruaren kontsultazioa.

Zehatz esanda, ehun urtean jaso bako datuak utzi zituzten domekako euriteek: 61 litro ur pilatu ziren ordu bakarrean –hala jaso zuen deskargako neurgailuak–. Eta, xeheago: 20 litro pilatu ziren hamar minutuan. Gipuzkoako neurgailuen arabera, orain artean 49 litrokoa zen lurraldeko kopururik handiena –azken 100 urteetako datuak

aintzat harturik, betiere–. "Horrek argi eta garbi uzten du muturreko fenomeno meteorologikoa izan zela eremu horretan lokalizatutakoa. Ez du aurreikuspenetarako eta defentsarako tarterik uzten", azaldu du Gipuzkoako Diputazioak.

Bestetik, Aldundiko teknikariek domeka arratsaldean bertan ikuskatu zuten Deskargako obraren egoera. Eta azaldu dute ez zutela "kalte nabarmenik" atzeman. Era berean, esan dute obrak ez zirela gertaturikoaren eragile izan, urak material kopuru "handiagoa" mugitzea eragin zuen arren: "Harago doa uholdeen efektua, beste herri batzuetan ikusi den bezala. Obrarik egon ez balitz ere, euriak kalte nabarmenak eragingo zituzkeen".

Dena den, Antzuolako alkate Beñardo Kortabarria ez dago

UR NEURGAILUAK AZKEN MENDEKO BALIO HANDIENA JASO ZUEN DESKARGAN: 61 LITRO, ORDUBETEAN

ados horrekin. "Lanak iraun bitartean, lotu bako gauza asko dago hemen. Esaterako, kanalizatu barik daude urak, urbanizatu gabe dago eremua. Eta material solte asko dago hor. Urak herrigunera ekarri ditu horiek, eta, tartean, Torresoroako leihoa apurtzea eragin du horrek".

Behinik behin, bukatuak dituzte garbiketa lanak. "100 tona material jaso dugu", argitu du alkateak. Eta konponduak dituzte "premiazko" zenbait elementu: Eguneko Zentroko berogailua, Torresoroako igogailua eta teilatu-hodiak, besteak beste.

Auzolana

Euri-jasaren ostean, herritar ugari irten ziren kalera, uholdeak utzitakoa garbitzera. Adin guztietako antzularrek egin zuten bat, erratzak, hodi-malguak... eskuan hartuta. Eta horixe bera azpimarratu gura izan du Antzuolako alkateak: "Ikaragarria izan zen herritarrek izandako jarrera. Ondokoa denari –eta ez denari– laguntzera irten ziren kalera. Balio handikoa da hori".



Leku-berri baserri aurrean, ura beheko bidean. RAKEL AZKARGORTA

Gaua kanpoan igaro beharra

Euri-jasaren eraginez, gaua etxetik kanpo igaro behar izan zuten Leku-berri baserrikoek. Hori izan baitzen bertara iritsi berri ziren suhiltzaileen gomendioa. Dena den, azterketa "sakonago" baten ostean, horretarako beharrik ez zela jakinarazi zieten teknikariek. "Geuk, dena den, barruan sarturik genuen beldurra", aitortu du Rakel Azkargortak, baserriko bizilagunak. "Ezgonkor" dago euren lurra. Beraz, senideen etxeetara joan ziren Leku-berrikoak.

Besteak beste, baserrikoek aurreikusia zutela urak "arazoak" sor zitzaizkien aukera: "Leku urtsua da. Eta, gainera, obrek, itxita zituzten ur kutxatilik. Salatua genuen hori. Baina jaso barik genuen erantzuna. Gainera, arazoak ziren hodiekin. Tamainagatik, tapoiak sortzen ziren tarteka". Horri lotuta, hodiak aldatzeko asmoa dagoela jakinarazi die Diputazioak.

Hori bai, baserrian ez zen urrik sartu. "Zorte handia izan genuen. Behinik behin, baserri aurrean desbideratu zelako ura. Gainera, herritar ugari etorri zen laguntzera, auzolanera. Ur-jasa ingurabidera bideratzea lortu genuen", aitortu du baserriko bizilagunak. Eta, beraz, "oso eskertuta" agertu da herritarrek.

Zehatz esanda, Leku-berrikoak astelehenean batzartu ziren Diputazioko arduradunekin, tartean, euren kezka eta kekuak helarazteko. "Esan ziguten obretako ur kutxatxoak eta hodia behar moduan baleude, agian, leunagoak ziratekeela kalteak".



Irainekeo bidea, errekek gainezka egin ostean. ANTZUOLAKO UDALA

Baserri-bideak, hondatuta

Baserri-bideak ere hondatu ditu domekako euri-jasak. Eta horiek konpontzea "lehentasunen" artean ditu Antzuolako Udalak: aparteko diru ekarpena egingo du horretarako. "Kalteak neurtzea eta konpontzen hastea dagokigu orain", azaldu du alkateak.

Antiguako errotako presa, hondatuta

Hondatutako egituren artean da Antiguako errota. "Presa apurtu zuen uraren indarrak. Orain, ez doa urik urmaelera –behera egin du–. Ez dabil errota", azaldu du Florentino Lamarianok, Antigua errotakoak. 1,5 metro du beheara egina urmaeleko ur mailak.

Hori horrela, Ur Kontsultazioko eta Udaleko zenbait ordezkari izan dira bertan, kalteak ezagutu guran.



Antiguako errotako presa zati bat, apurtuta. ANTZUOLAKO UDALA



Torresoroa kanpoan, liburutegiko liburuak lurtean. IMANOL SORIANO

Lan "asko" egiteke Torresoroan

Uholdeek "kalte handiak" eragin dituzte Torresoroan. Eta, orain, egoerari aurre egiteko aukerak aztertzen dihardu Udalak. Aurreikuspenen arabera, behinik behin, 500.000 euro inguru ordaindu beharko dituzte Torresoroako kalteei aurre egiteko. Hain zuzen ere, "zeharo hondatuta" daude bertako liburutegia, gizarte laguntzailearen bulegoa, biltegia, komunak eta kamerinoak. Beraz, liburutegian hondatu ez dena "ondo gordetzea" dagokie orain. Eta eraikinaren berregokitze obrei ekitea dute osteko urrats.

Bestetik, oraindik ez dakite zein den Torresoroako aretoko lurrak izan duen "kalte erreala. Pladurrezkoak dira barruko tabikeak. Horrek ez du halako hezetasuna jasaten. Espazio horiek goitik behera egokitu beharko dira, seguruenek", aitortu du Valen Moñuxek, herriko Hirigintza teknikariak.



Kalebarren eta Zurrategiko zubi ingurua, tabernetatik gertu. IMANOL SORIANO

Ura, tabernako sukalderraino

Domekan, herriko zenbait tabernatan eta komertziotan ere sartu zen ura. Adibidez, uholdearen eraginak sukalderraino iritsi ziren Larrea tabernan. "Urez bete zitzaigun taberna. Eta 40 pertsona inguru genituen, bazkaltzeko prest. Hasieratik ikusi genuen gauza potoloa gertatuko zela. Eta ura kanporatzeari ekin genion", dio Jokin Rodriguezek, Larrea tabernakoak. Hori horrela, "eskerrak" eman gura izan dizkie garbitzen lagundu zutenei –nagusiki, une horretan tabernan ziren 40 bezeroei–. "Haiengatik izan ez balitz, handiagoak ziratekeen kalteak", azaldu du.

Eta, era berean, Larrea tabernako Miren Unamunok gogoan du domekako: "Goian nengoen, lanean. Eta jaisteko esan zidaten: 'Etorri behera, etorri behera'. Urez beteta ikusi nuen taberna. Atetik sartutako ura atzeko aldetik kanporatzeari ekin genion".

"Badaukagu inteligentzia kolektiboa hobeto bizitzeko"

LARRAITZ UGARTE EH BILDUKO LEGEBILTZARKIDEA
EH Bilduk ekitaldi irekia egingo du ekainaren 14an

Maidar Arregi ANTZUOLA
Antzuolako EH Bilduk ekitaldi irekia egingo du ekainaren 14an, Zurrategin, 18:30ean. Agintaldiaren balantzea egingo dute; bertan izango da Larraitz Ugarte legebiltzarkidea, eta Autogobernu Ponentziaz jardungo du. **Estatus politiko berriaren irizpide nagusiak adostuta daude. Zein balorazio egiten duzue?**

EH Bilduk begi onez ikusten du irizpide nagusi hauek onartu izana. Izan ere, uste dugu EAeko biztanleriaren artean badagoela kontsentsu nahikoa: egun dugun marko juridikoak ez gaituela asetzen, herri bat garelako eta erabakitze eskubidea behar dugula, alegia. Autonomiatik subiranotasunera jauzi egiteko ordua dela.

Zein estatus aldarrikatzen duzue?
Euskal Herriaren aitortza eta erabakitze eskubidearen onarpena

jasoko dituen estatusa izan behar du. Bi premisa horien gain eraiki behar da Euskal Herria.

Herritarrei hitza emango zaie orain. Legebiltzarrak Adi plataforma jarriko du martxan.

Adi plataformaz gain, hiru hiri-burueta ere aktibatuko dira parte-hartze mekanismoak. Uste dut gaia kalean hotz dagoela, instituzioetako zerbait bezala ikusten dela eta, oro har, jendeak ez duela ikusten parte-hartze handia behar dugula. Oraindik hasiera fasea da eta normala ere bada.

Eragile politikoei eskatu diezue Euskal Herriaren eskubideak blindatzeko.

Gure bizitzako esparru garrantzitsuenak Madrilen erabakitzen dira. Haiek erabakitzen dute zein pentsio izango dugun, zein gizarte-segurantza sistema... Finean, Madrilek interbenituta gaude une oro eta honen aurrean hemen paktu nazional bat behar-



Larraitz Ugarte. GOIENA

ko genuke lan harremanetarako euskal esparrua gauzatzeko, gure pentsioak erabakitze, etab. Hemen baditugu baliabideak eta inteligentzia kolektibo nahikoa orain bizi garena baino hobeto bizitzeko. Eta horretan esaten duguna da blindatu egin behar dugula gure gizartea Madrildik datozen murrizketei aurre egiteko. Hobeto biziko baikara hemen erabakitakotik. Une politiko garrantzitsua bizitzen ari gara; ilusio kolektiboa loratu eta estatutu propioa sortu behar dugu.

Herritarrek 25 ekintza lehenesteko garaia iritsi da

Antzuolarrek, ekainaren 11 eta 29a bitartean, parte hartze prozesuan proposatu diren ekintzak lehenetsiko dituzte. "Herritarrendako ekintza garrantzitsuenak zeintzuk diren jakin gura dugu; etxeetan triptikoa banatu dugu. Zalantzak argitzeko eta informazioa emateko, ekainaren 15ean mahai jarriko dugu plazan", dio teknikariak.

Jonan Fernandezek bizikidetzaz jardungo du hilaren 14an

Antzuolako Euzko Alderdi Jeltzaleak antolatuta, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusi Jonan Fernandezek solasaldia eskainiko du. Ekainaren 14an, egue-na, Olanan etxean izango da berbaldia, 19:00etan hasita. Bake bidez eta elkarbizitzarako egin beharreko urratsez jardungo du.



ARROLA

Larrebarrengo iturria, bizirik

Aspaldidanik itxita eta desagertuta zegoen bidea zabaldu dute berriro Lizarragako auzotarrek. Lan horiek aprobetxatuta, Arrolak Larrebarrengo iturria konpondu du auzolanean. "Dotore geratu da. Iturriari izena jarri diogu eta ura edan daitekeela ere jarri dugu", azaldu dute Arrolakoek.

Baratze lanetarako ere, gaueko zerura begira

Ilargiak bi ziklo ditu eta baratze lanetarako gehiago erreparatu behar zaio egiten duen ibilbideari duen tamainari baino. Ingurumenarekin lotutako ekintza sortaren barruan hainbat azalpen eman zituen, eguaztenean, Ekoguneko Mitxel Igarataundik

Larraitz Zeberio ELGETA

Aspalditik dator ilargi egutegia, eta landareengan duen eragina zein den ondo ulertzeko saioa izan zen eguaztenean Elgetako baratze parkean. "Ilargiak itsasoa mugitzen du. Hortaz, zer ez du mugituko! Gauza askotarako erabiltzen da ilargi egutegia", esan zuen Ekoguneko Furgobaratzea zerbitzuko Mitxel Igarataundik. Azaldu zuen gatazka moduko bat dagoela kontu honetan, ilargiak bi ziklo oso ezberdin dituelako. "Bata 29 eguneko zikloa da. Erraz ikus daiteke; izan ere, ilargia bete eta hustu egiten da. *Ilzahar* eta *ilbete* dira erabili beharreko terminoak. Ziklo horrek oso eragin txikia du landareengan", esan zuen. "Bigarren zikloa 27 eguneko da eta ilargiak zeruan egiten duen bidea du oinarri. Batzuetan oso goian dago eta beste batzuetan behegaro. *Ilgora* eta *ilbehera* esaten dugu orain, eta horri begiratu behar zaio baratze lanak egiteko". Dauden egutegien artean *Calendario lunar* delakoa nabarmendu du Igarataundik. "Baratzean lan batzuk ilbeheran egitekoak dira eta beste batzuk ilgoran. Ilbeheran egiten dira, esaterako, landaketak, inausketak, simaurketak... Egia da eguraldia dela eta batzuetan ez dagoela ilargiari zain egoterik, baina barazkiak sanoago ateratzen dira". Igarataundik ohartarazten du, dena den, ilargiak eragina badu ere eragin askoz ere handiagoa dela lurra ondo lantzeak: garaiz ibiltzea, garaian garaikoa landatzea, txandaketak ondo egitea, lurra ondo ongarritzea...

Karakterizazioa eta azoka gaur
Ingurumenarekin lotutako ekintza gehiago ere izango da egunotan. Udalak antolatuta herrian sortutako errefusaren karakterizazioa egingo dute gaur, 12:00etan, Mendizaleen plazan.



Eguaztenean baratze parkean egindako ikastaroa. L.Z.

GAUR, BARIKUA, ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOA ETA BIGARREN ESKUKO AZOKA

"30-50 urte inguruko jendea etortzen zaigu"

MITXEL IGARATAUNDI
EKOIENEA

Hogei bat herritako baratze parkeetan dihardu aholkulari lanak egiten; tartean, Elgetan. **Zer profiletako jendea gerturaten zaizue?** Uste genuen erretiratuak izango zirela, baina 30-50 urteko jendea etortzen zaigu. Kaletarrak dira gehienak eta baserriarekin galdutako kontaktua berreskuratu nahi dute. Saiatzen gara barazkiak eskura ipintzen eta aholkuak ematen, berriak dira eta.

Bigarren eskuko azoka ere izango da, 18:00etan. Herritarrak izango dira protagonista. Eguaztenerako, berriz, Epeleko konpost-planta ezagutzeko bisita gidatua iragarri dute. Taldea 15:30ean abiatuko da Elgetatik.



GOIENA

Emankorrek dira baratze parkeak?

30-40 metro koadroko lursailak izaten dira eta ikusgarria da baratze txiki horretan zein barazki pila ateratzen den. Lur eremu zabalagoetara ohituta gaude baserrietan. Baratze mota anarkikoagoa da, baina bete-bete eginda egoten dira. **Elgetan badago lursaila hartzeko aukerarik?** Bai, interesatuek udaletxera jo besterik ez dute.



IMANOL SORIANO

Eskola kiroleko domina bana

Ikasturte honetan Elgetako zortzi neska-mutikok —bost alebin eta hiru benjamin— hartu dute parte eskola kirola programan. Kopuru txikiegia izan da txapelketarako taldea osatzeko, baina topaketa saioetan izan dira eta barikuan domina bana jaso zuten Bergarako Labegarrietan egindako amaiera jaietan. Pozik jaso zuten saria Elgetako elastikoa soinean zutela.

Salgai daude Beheko kaleko jaietako afarirako txartelak

Umeendako puzgarriekin eta buruhandiek emango diete hasiera jaiei ekainaren 14an. Ondoren etorriko dira txupinazoa, Unai Cantabranaren kontzertua eta Baoobeer garagar doaren dastaketa saioa. Gainerako ekintzak barikuan izango dira, hilak 15. Bizikleta lasterketa dago iragarrita 17:00etarako. Osterako, buruhandiak, Amaia DJren disko festa, neska-mutikoendako afaria eta Gaurgi taldeak girotutako auzo afaria daude antolatuta.

Haurren afarirako txartelak El Rincon de Lola tabernan daude salgai, 6 eurotan; eta auzo afarirako txartelak, Goikoetxe harategian, 13 eurotan.

Domekan, Añanako Gatz Harana ikustera joateko izen-ematea

Goiena komunitatea

Xalbadorpe elkarte / ELGETA

"Egun osoko txangoa antolatu dugu ekainaren 20rako Añanako Gatz Haranera. Bisita egin aurretik Ur Museoa ikusiko dugu. Bazkaltzeko lekua ere hartu dugu. Irteeran parte hartzeko interesatuek domekan, hilak 10, eman behar dute izena, 11:00etatik 13:00etara, Ozkarbi elkartearen. Prezioa 30 euro da. Horrekin batera, urteko kuotaren ordainketa egiteko eguna izango da. Kuota 10 euro da.

Podologoaren ekaineko kontsulta, berriz, hilaren 21erako dago lotuta. Ezinbestekoa da aurrez txanda hartzea: 943 76 80 77 (Nati).

OHARRAK

Estanpazioa kotoi gainean, tailerra

Bihar, 10:00etatik 19:30era, buztin gelan. 610 01 77 55 (Lorena).

'Ezkutuko altxorak' bisita gidatua bihar

Herriak dituen eraikin eta artelan esanguratsuenak eta horiekin lotutako pertsonaia nagusiak ezagutzeko bisita gidatua bihar, 12:00etan. Argibideetarako: 943 79 64 63.

'Askatasunaren alde, herri duin bat' karabana

Bihar, 17:30ean, ekitaldi politikoa herriko plazan —4. orria—.

Euskaraldia batzarra, astelehenean

Lantaldea Ozkarbin elkartuko da, 19:30ean. Batzar irekia da.

Askotariko hobekuntza eskaerak Diputazioari

Aldundiaren 2019ko aurrekontua prestatzeko atarian izan dira Elgetan Joseba Muxika eta Iñaki Labaka foru zuzendariak. Lehen eskutik jaso dituzte udal arduradunek eta bertaratuko herritarrek egindako eskaerak. Epea oraindik zabalik da

L.Z. ELGETA

Lau herritar gerturatu ziren Gipuzkoako Foru Aldundiak Elgetan egindako *Aurrekontu Irekiak 2019* ekimeneko batzarrean. Beste lau parte-hartzaileak Iraitz Lazkano alkatea eta EH Bildu udal taldeko hiru zinegotzi izan ziren. Diputaziotik, Herri Partaidetzako zuzendari Joseba Muxikak eta Lurralde Orekako zuzendari Iñaki Labakak hartu zuten parte. Alkatearen ahotik jaso zituzten Elgetarako eskaera nagusiak.

Lehenengo egindako eskaerak bat banda zabalarena izan zen: industrialderako zein herri-erregenerazio. Lanak hasita edo esleipen prozesuan daudela esan zuten Labakak.

Ur zikinak eta bidegorriak

Elgetako ur zikinaren saneamendua egiteko premia ere hasieratik irten zen. Ura Agentziari dagozkion lanak daude egiteko. "Gipuzkoako zazpi herri gaude



Udal ordezkariak eta Foru Aldundikoak, Elgetako batzarrean. L.Z.

egoera berean eta pentsatzen ari gara agerraldi bateratua egitea", esan zuten Iraitz Lazkanok. Joseba Muxikak eta Iñaki Labakak adierazi zuten zalan-tzarik gabe irtenbide bat eman beharreko egoera dela.

Elgetan paseorako gune egokiak egiteko proposamenak ere egin zituzten udal arduradunek. "Karrabietara kilometro bateko bidegorria eginda, sei bat kilometroko bi ibilbiderekin lotura egitea lortuko genuke", esan

zuen alkateak, eta jakinarazi zuten Udalak aurkeztua duela 300.000 euro inguruko proiektu bat. Muxikaren eta Labakaren erantzuna izan zen araudi kontuak direla-eta bidegorria baino gehiago bide berdea izan daitekeela irtenbidea. Hamar mila biztanletik beherako herriendako diru laguntzak daudela esan zuten, eta eskaerak Mugikortasun Zuzendaritzara bideratu behar direla. Herritar batek, bestalde, Asentziarako zorbidean antzerako zerbitu egiteko aukera dagoen aztertze eskatu zuten, baita ere Uberatik Bergarara eskatuta dagoen bidegorriarekin loturarik egitea posible den.

Hobetzekoak garraio publikoan

Elgeta-Elorrio zerbitzua oso eskasa dela-eta eskaera bidezko zerbitzuak ipintzea proposatu zuten elgetarrek. Eskaera egiteko zerbitzua errazteko eskaera ere egin zuten. "Batzuetan, ez dituzte deiak erantzuten, 20:00etatik aurrera ez dago inor, eta izen guztiak eman behar dira".

Errepide sarea

Elgetako saihesbideko lanak egitea ezinezkotzat jota, bestelako hobekuntzak proposatu zituen alkateak. "Kanpanzar bidean kanoi asko ibiltzen da eta oso errepide estua da. Kanpanzarko bidegurutzea ere oso gaizki dago", esan zuten. Elgetak Eibartik duen sarrera ere arriskutsu dagoela esan zuten. "Erre-

pidia estutu egiten da zuhaitzak dauden gune horretan, eta berriki izan da istripua han". Alde bateko zuhaitzak botatzeko eskaera egin zuten. Bestelakoetan, nabarmendu zuten antzoki azpiko zebra-bidean ikusgaitasun txikia dagoela, eta Kataiatik frontoiraiko zebra-bide amaieran dagoen areka arriskutsu dagoela eta istripuak izan direla. Arrota Azpikoa baserrian, berriz, keku direla esan zuten, errepidean zabaltze lanak egin zirenetik ura jausten delako baserrira.

Agorrosin, %30 garestiago

"Elgetarrek %30 gehiago ordaintzen ditugu Agorrosin kirolguneko zerbitzuak", adierazi zuten Iraitz Lazkano alkateak. Bergarako udal ordenantzetan jasotako neurria dela esan zuten, eta ilegala izan daitekeela; izan ere, Agorrosin egiteko Elgetako erabiltzaileak kontuan hartuak izan ziren Diputazioaren diru laguntza erabakitzeke. "Elgetari zegoen diru hori Agorrosin sartu zen, eta orain, bergararrek baino garestiago ordaintzen dugu". Aldundiari eskaera modu formalean egitea aholkatu zuten Muxikak eta Labakak.


ESKAERAK HILAREN 30ERA ARTE EGIN DAITEZKE 'GIPUZKOA. EUS/PARTAIDETZA' ATARI DIGITALEAN

Poliki-poliki harriari eskua hartzen hasi dela dio Albizuk

Urrezko binakako harri-jasotze txapelketako irabazlea da, Xabier Peñagarikano bikotekidearekin batera

L.Z. ELGETA

Pozik da Imanol Albizu urrezko binakako harri-jasotze txapelketan egindako lanarekin: "Peña primerako bikote-laguna izan da, eta sumatzen dut harriari eskua hartzen hasi naizela. Ez da urtea bete harria jasotzen hasi naizela berriz, eta poliki-poliki gorputza erantzuten hasi da, eta plazan kontrol handiagoa dut", adierazi du. Xabier Peñagarikanorekin batera, Imanol Illarramendi Kortaberri eta Mikel Lopetegi Urra izan zituen aurrez aurre domekan Azepeitian



Imanol Albizu txapelarekin. EGURSPORT HK

jokatutako finalean. Harri zilandrikoarekin jasoaldi bat gutxiago egin zuten eta kubikoarekin, bi gutxiago. "Indarrak gordetzea erabaki genuen. Irabazteko, bolarekin 57 jasoaldi egin behar genituen, eta 58 egin genituen", azaldu du. Gehiagorako indarrak zegoen galdetuta, erantzuna izan da: "Nahiko beteta amaitu genuen, bero sargoria zegoen".

Entrenatzen jarraituko du Albizuk. Ekainaren 22an du hurrengo saioa, eta uztailaren 8an Sorluzeko San Andres harri-jasotze sarian izango da. "Mallabian entrenatzen gara. Harriarekin bi saio egiten ditugu astean, eta gero, gimnasioa", azaldu du. Uztailaren 15ean jokatuko den Gipuzkoako txapelketan ere lehiatuko dela esan du. Hori guztia, harategiko lanak albo batera utzi barik, noski.



HIRU TXIRLO

Bukatu da Gipuzkoako txapelketa

Goiena komunitatea / Hiru txirlo / ELGETA

"51 bolarik hartu zuten parte zapatuan Elgetan egindako tiraldian eta 61 bolazale elkartu ginen bazkarian. Bi omenduak eta hamabost urtez lehendakari izandako Anjel Ibarluzea omendu genituen. Mikel Urkiak hartu du kargua. Urrian emango diogu hasiera Euskal Herriko txapelketari".

Agur, Arrasate-Oñati; ongi etorri, Oñati-Arrasate

ATLETISMOA Orain arte lasterketa antolatzen ibili den Antxintxiketan taldeari AEDk hartuko dio erreleboa; hala, euskara elkarte bat izango da, ostera ere, atletismo hitzordua antolatzeko ardura izango duena. Baina Oñati-Arrasate izango da

Xabier Urzelai ARRASATE

Arrasate eta Oñati batzen dituen lasterketak badu zerbait berezia. Ezin da desagertu. Oñatiko atletismo zale talde batek sortu zuen 80ko hamarkada hasieran, eta ondoren Oñatiko Laixan euskara elkarteak hartu zuen proba antolatzeko ardura –AEDkoen laguntzarekin–. Urte batzuen ondoren lasterketak beharakada izan zuen, 2009an ez zen hitzordurik egon, eta, hori ikusita, 2010a ezkerro, Antxintxiketan talde oñatiarreko lagunek sekulako bultzada eman diote probari –300 lagunetik gora batzeraino–.

Azken horiek erreleboa eskatu zuten iaz, bestela ere nahikoa lasterketa antolatzen dituztelako, eta lanak pilatu egiten zaizkielako. Eta ia hamarkada baten ostean, euskara elkarte baten babesera etorriko da proba ostera ere: "Laguntzeko proposamena egin genien herriko hainbat atletei, eurek ezagutzen dituztelako lasterketak gertutik, eta antolaketa lanak nondik nora egin beharko genituzkeen erabakitze oso lagungarriak direlako; eta, baiezkoa jasota, AEDtik animatu egin gara lasterketa antolatzera", adierazi du Itxaro Artolak.

Gainera, Arrasate Euskaldundu Dezagun elkarteak 35. urteurrena ospatuko du aurten, "Eta Arrasate-Oñati lasterketaren 35. edizioa izango da, hori seinale bat da, lasterketa guk antolatu behar dugunaren adierazle", dio umorez Artolak.

Urriaren 27an izango da

AEDko lagunak dagoeneko hasita daude lasterketa antolatzeko lanetan: "Egutegian begira ibili gara gainontzeko lasterketak noiz diren, eta gure artean ez zapaltzeko. Behobia-Donostia noiz izango den kontutan hartu dugu, Antxintxika krosa... Hala, erabaki dugu urriaren 27an egi-tea, sasoi ona delako eta jendea



Oñatiko helmugako irudia, 1985ean. ANDRES ARLANZON / OÑATIKO UDAL ARTXIBOA

AED-K 35 URTE BETEKO DITU AURTEN, ETA BAITA ARRASATE-OÑATI LASTERKETAK ERE

Behobiara begira entrenatzen ibiltzen delako".

Eta beste aldaketa nabarmen bat da lasterketaren norabidea aldatu egingo dutela: "Irteera Oñatin izango da, eta helmuga Arrasaten. Ikusteko dagoena da 12 kilometrotako distantziari eutsiko diogun, Arrasateko kaleetan itzuliren bat eginda –Oñatin egiten zuten moduan– edo zuzen etorriko diren helmugara. Lasterketaren gogortasunean eraginik izango duen ere galde-tu dugu, eta ezetz esan digute".

Emakumezkoak gura dituzte

Antxintxiketaneok zuten filosofiarri jarraipena emanda, AEDkoek garbi dute herri mailako lasterketa antolatu gura dutela: "Eta bereziki emakumezkoak erakarri gura ditugu. Hori sustatzeko eskura ditugun erremintak jarriko ditugu".

Oraingoz, ez da egongo patinatzailerik

Azken edizioetan Arrasate-Oñati lasterketara patinatzaileak batu diren moduan, Oñati-Arrasate honetan antolatzailleek korrikalariendako lasterketa antolatuko dute: "Zirkuitua bidegorritik egiteak asko errazten du antolaketa lana, ez dugu-eta errepideko zirkulazioa moztu behar. Bestela, bidean izan beharreko boluntario kopurua bikoiztu egiten da". Hain zuzen, Herrizaingo Sailera egin beharreko eskaera da hori, eta azken urteotan Antxintxiketaneok traba handiak izan dituzte, besteak beste, baimenak azken orduan jaso izan dituztelako: "Horregatik, korrikalariendako lasterketa egingo dugu".



Oñatiko eta Oiartzungo pilotariak, joaneokan, Zubikoan. IMANOL SORIANO

Jasotako egurrari buelta ematen saiatuko dira

PILOTA Oiartzun da Herri Arteko txapela janzteko faboritoetako bat, eta Zubikoan erakutsi zuten zergatia

X.U. OÑATI

Joan den egubakoitzean, Herri Arteko Txapelketako bigarren kanporaketa partidua jokatu zuten Oñatik eta Oiartzunek, eta, partidua alde handiarekin galduta, finalurrekoetara sailkatzeko aukera gehienak joan zaizkie oñatiarrei. Txarraena ez da hiru partidua galdu izana, baizik eta tanto kopurua erabat kontra dutela.

Ondoen, seniorrak

Egubakoitz iluntzean giro polita izan zen Zubikoako harmailetan, baina etxeko zaleen ba-

besa izanda ere oñatiarrek ezin izan zuten askorik egin txapela janzteko faboritoetako bat den Oiartzunen kontra. Kadete mailako partiduan 3-22 galdu zuten etxekoek; gazte mailan 5-22, eta nagusietan 12-22. Eta emaitza horiekin ezinezkoa ez da, baina oso zail dute kanporaketa gainditzea.

Bada, gaur, egubakoitza, 19:30ean hasita, itzulerako partidua jokatu dituzte, Oiartzunen: "Ahalik eta itxura onena ematen saiatuko gara, baina emaitza horiekin kanporaketak ihes egin digu", zioen Josu Osak.



DORLETAKO AMA

Aranburu, Euskadiko txapeldun

Joan den zapatuan, Urretxun egin zuten Euskadiko Txapelketa barruko lasterketa, eta, gazte mailan, Dorletako Ama-Portabics.com lasterketako ordezkari Iñigo Aranburu bigarren sailkatu zen –argazkian–. Sailkapen orokorrean batutako puntuei esker, baina, Aranbururendako izan da bere kategorian Euskadiko txapela.



Mendi lasterkariak lasterketaren lehenengo zatia eginda Eskoriatzako plazatik pasatzen, herritarren animo artean. GOIENA

Gauez korrika, eta inoiz baino seguruago

MENDI LASTERKETA Zapatuan egingo dute Gabez Takarraran mendi lasterketa Eskoriatzan, eta, oraingo, izen-emateari kasu eginda, oinez egiteko proposamena arrakasta izaten dabil; atletak GPS sistema bidez kontrolatuko dituzte

Xabier Urzelai ARRASATE Zapatuan egingo dute Gabez Takarraran mendi lasterketa, Eskoriatzan. 23:00etan hasiko dute proba –oinez egingo dutenak 21:00etan abiatuko dira–, eta aste barruan 50 lagunek emana zuten izena. Bada, horrelakoetan parte hartzeko askok azken ordura arte itxaroten dutenez, antolatzaileek azken

bultzada eman gura izan diete: "Azken unean izena ematen duten asko egoten dira, eta oraingoan ere hala nahiko genuke. Ez bada horrela, ibilbideko txoko ezberdinetan lasterketa ikustera gerturatzeko gonbidapena egin nahi dugu", adierazi du Gartxot Zubizarretak, Gabez Takarraran lasterketako antolaketa kideak.

Inoiz baino seguruago Beste berrikuntzetako bat da parte-hartzaileek GPS bidezko lokalizazioko sistema eramango dutela. Gailu txiki bat emango zaie atletei, eta txiparen ordez, denborak ere horrela jasoko dituzte. "Lasterketa gauez da, eta horrek errespetua ematen dio jendeari. Bada, une oro jakingo dugu non dauden atletak".

Oinezkoen martxak, harrera ona

Aurtengo nobedadeetako bat da martxa oinez egiteko aukera egongo dela, eta, oraingo, korrikako modalitatea baino harrera hobea izaten dabil. Izen-emateari begiratuta (*kirolprobak.com*) aste barruan 80 lagunek emana zuten izena. Horiek 21:00etan hasiko dute ibilbidea eta gaueko parajeet patxada handiagoz gozatu ahal izango dute.



Oinezkoen ibilbidea harrera ona izaten dabil. TOBIAS MRZYK



Aitor Fernandez arrasatearra, Javi Ros nafarraren aurrean. LA LIGA

'Gontxa', Fernandezzen aurretik, Lehen Mailara igotzeko lehian

FUTBOLA Kanpoan emaitza ona lortu ostean (1-1), partidu erabakigarria etxean jokatu du Zaragozak

Eneko Azkarate SORIA Joaneko partiduan Numantziaren aurka berdinketa lortu eta itzulerakoa etxean jokatzek ematen dion abantailarekin egingo dio aurre Zaragozak Lehen Mailara igotzeko promozioaren lehen faseko neurketa erabakigarriari. Zapatuan jokatu da, La Romaredan. Orduan jakingo da Mikel Gonzalezek edo Aitor Fernandezek, bi arrasatearren artean zeinek, egingo duen aurrera mailaz igotzeko azken bidaia horretan. *Play-off*-etako lehen partidua eguaztenean jokatu zen Soriako

Los Pajaritos futbol zelaian eta banako berdinketarekin amaitu zen. Hasierako minutuetan izan ziren golak: Zaragoza aurreratu zen, laugarrenean, baina handik minutu batera lortu zuten etxekoek berdinketaren gola.

'Gontxa'-k ez zuen jokatu Gonzalezek ez zuen partidua jokatu; ustekabean, hamaikakotik kanpo utzi zuen Natxo Gonzalez entrenatzaileak, Gripporen ordez. La Romaredan erabakigarria izango da haren esperientzia. Fernandez atezainak, osterara, partidu osoa jokatu zuen.

PILOTA Debarro txapelketako finalak, hilaren 16an

Ekainaren 16an jokatu dituzte Debarro Txapelketako finalak –Soralue Saria–, eta aurten Arrasate Pilota Elkarteari dagokio finalok antolatzea; horrenbestez, partiduak Uarkapen izango dira.

Txapelketa horretan bailarako talde guztiek har dezakete parte, Debatik hasi eta Leintz Gatzagaraino. Bada, egunotan jokatu dituzte azken finalerdiak, eta datorren asteburuan izango dira partidu erabakigarriak (zapatua, 17:00, Uarkape). Guztira, hiru kategoriatan jokatu dituzte norgehiagoka horiek, kadete, gazte eta senior mailetan; txapelketaren 71. edizioa jokatzeko dabilta.

TXIRRINDULARITZA Olakuako proba, domekan, Oñatin

Etzi, domeka, jokatu dute, 16:00etan hasita, Oñatin, Olakuako probaren 32. edizioa. Lasterketa kadete mailakoa izango da, eta txirrindulari gazteek 65 kilometroko lasterketari egin beharko diote aurre. Udana gainditu beharko dute 30 kilometroan –mendiko saria–, eta Legazpitik bueltan osterara ere Udana gaina pasako dute, eta Oñatira itzuli.

Azken kilometroetan (62), baina, Santipillauko igoerak azken aukeraketa egingo du, eta ziklista azkarrenak 17:40 inguruan iritsiko dira helmugara. Aloña Mendi-Ulma taldeak sei ziklista izango ditu lasterketan, eta ibarreko gehiago ere izango dira.

"Idazleku eta gordeleku izan zuen Arantzazu"

FITO RODRIGUEZ TXILLARDEGI LIBURUTEGIA HERRI EKIMENA TALDEKO PRESIDENTEA Txillardegia sarritan egoten zen Arantzazuko Milikua etxean, haren omenezko plaka jarriko dute, Enparantzaren ekarpena eta Oñatirekin zuen harremana aitortzeko

AITZIBER ARANBURUZABALA OÑATI

Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegia-ren omenezko oroigarri bat Oñatin jartzea adostu zuen udalbatzak, aho batez, aurreko asteko osoko bilkuran. Hori bultzatu duen Txillardegia Liburutegia Herri Ekimenak taldeko presidentea da Fito Rodriguez.

Pozik –elkartea eta familia–, Oñatiko Udalaren erabakiarekin?

Oso pozik; egia esan, orain arte albiste txarrak bakarrik bildu ditugu, eta honako honetan uzta ona izan da. Pentsatzen dugu aitortza hori abiapuntua dela Euskal Herriko beste toki batzuetan –Iparraldean zein hegoaldean– merezimendu eta aitortza hori lortzeko.

Txillardegik sarritan lotzen zituen erabilitako ezizenak toki zehatzeko izenekin; adibidez, Usako zen bere sinaduretako bat.

Hori da, Oñatiko presa eta parajearen izena zen erabili zitueneetako bat. Oso lotuta zegoen tokian tokiko jendearekin eta toponimiarekin, eta hizkuntza ezberdinekin ere bai –dialektologia eta soziolinguistika ere landu zuen hark–. Idazten zuen gaiaren edo arloaren –itzultzaile moduan, politikari moduan edo soziolinguistika aditu moduan– edo idazten zuen tokiaren arabera aukeratzen zuen gaitzi-



Rodriguez, EHuko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean. IRUTXULOKO HITZA

"BEHARREZKO IKUSTEN DUGU TXILLARDEGIREN IZENEAN KATEDRA BAT SORTZEA"

zen bat edo beste. Klandestinitatean bizi zen; hortaz, ezinbestean behar zituen gaitzizenak.

Zelako lanak sinatzen zituen Usako izenarekin?

Gehienbat, Belgikan erbestera-tua zegoen garaian, han sortu

zuten *Branka* aldizkarian; euskal intelektualen bilduma bat zen.

Ez da hori, baina, Oñatirekin zuen lotura bakarra, ezta?

Ez; Enparantza familiak Oñatiko Araotz auzoan du jatorria, handik joan ziren Donostia aldera. Horrez gainera, Arantzazun ere sarritan izaten zen; Milikua etxean, lan asko egin eta idatzi zuen, eta gorde ere, askotan gorde zen bertan. Arantzazurekin beti harremanetan izan zen. **Arantzazu aipatuta, euskara batuaren hastapenak bertan sortu ziren orain dela 50 urte; eta, atze-**

rritik bada ere, Txillardegik parte hartu zuen prozesuan.

Halaxe da, bai; 1956an, euskara batuaren lehenengo aldarrikapena idatzi zuen Txillardegik, baina ezin izan zuen aurkeztu, erbestean zegoelako; eta 1968an ere, Euskara Batuaren Asanblada Arantzazun egin zutenean, atzerrian zegoen oraindik, baina funtsezkoak izan ziren euskara batuaren aldarrikapenak bidali zituen. Hala ere, Ibon Sarasolak argi eta garbi planteatzen du Txillardegia izan zela euskara batuaren aita, egin zituen bi proposamen horiengatik.

Hain justu, Milikuan jarriko duzue oroigarria. Zein izan da prozesua?

Elkartetik ikusi genuen Donostian ez zegoela aurrera jotzerik, eta beste toki batzuetara joan ginen, eta, horien artean, Milikua etxera. Oso pozik hartu zuten aurkeztu genien proposamena, eta Oñatiko Udalarari egin zioten eskaera. Udaleko ordezkariak ere oso egoki ikusi zuten memoriaren ikuspuntutik eta hausturari aurre egiteko; hau da, justizia poetikoa egiteko.

Datarik baduzue zehaztuta?

Irailaren 27an jaio zen, eta horren bueltan jarri gura genuke. Hori guztia hornitzeko bestelako ekitaldiak antolatzeko asmoa dugu. **Elkartearen hurrengo asmoak?** Tokian tokiko aitorten gehiago lortzen saiatuko gara, baina, horrez gainera, Txillardegia Katedra sortzeko aldarrikapena egin gura dugu. Intelektual izugarria izan zen, eta arlo askotan oso funtsezko ekarpenak egin zituen; hortaz, hark jorratutako ildo horietatik jarraitu ahal izateko, ikerkuntza, hedakuntza eta irakaskuntza ere saiatu behar da gordetzen eta sustatzen; horretarako, katedra da figura akademikoa.

Afrika gertuagotik ezagutzeko jardunaldia

Hitzaldia, film emanaldiak eta erakusketa izango dira bihar, zapatua, Gandiaga Topagunean, Arantzazun

A. A. OÑATI

TAU fundazioak eta Arantzazuko Adiskideen Elkarteak, Nafarroako Afrika Behar Beharrezkoa erakundearen laguntzarekin, *Arantzazu Afrikarekiko topaleku* jardunaldia antolatu dute; Arantzazuko Gandiaga Topagunean egingo dute, bihar, zapatua, 10:30etik 18:15era.

2017a ezkerro gizarteari Afrika ikusaraztea eta gerturatzea dela helburu dio TAU fundazioak: "Gure ekarpen txikia da begirada aldaketa bat lortzeko, eta, aurreiritzi eta estereotipoetatik urrunduz, Afrikan sentitu, lan egin, protesta egin, sortu... egin duten pertsonak bilduta".

Elkarrizketaren, zinemaren eta argazkiaren bidez, egun batez, Afrikarekiko topaleku bihurtuko dute Arantzazu: "Judith Prat argazkilari eta kazetaria eta zinema afrikarreko kritikari Beatriz Leal gonbidatu ditugu. *Twaaga* Afrikako film laburra-ekin zabalduko dugu egitaraua, 11:00etan, Judith Praten dokumentala ikusi eta solasaldia izango da, gero; eta, 12:30ean, *Espoliazioa* erakusketan bisita gidatua. Eguna borobiltzeko, 16:00etan hasita, *Green White Green* filma ikusiko dugu, Lealek aurkeztuta".

HURRETIK



GOIENA TELEBISTA,
BERTAKO PERTSONAK PROTAGONISTA DITUEN SAIOA
EKAINAREN 12AN, MARTITZENEAN,
21:30EAN ETA 23:30EAN
JOXEMARI MUXIKA, KOOPERATIBISTA OHIA ETA
EUSKALGINTZAKO KIDEA.

goiena"
Zu hemen zaude.



'Hozkailua' antzezlan, Shot! estudioaren alde

Ander Lipusek eta Patricia Urrutiak datorren eguenean gaztetxean egingo duten emanaldiarekin borobilduko dute aurtengo Kooltur Ostegunak zikloa; sarrera bost euro da, eta batutako dirua Shot!-eko sutearen kalteei laguntzeko eskainiko dute

A. Aranburuzabala ARRASATE

Hasiera batean, aurreko eguenean Amaia antzokian eskaini zuten *Markak* filmaren proiektio musikatuarekin amaitu behar zuten Kooltur Ekintzak taldekoek ikasturtea; baina beste bat gehiago izango da: Ander Lipusek eta Patricia Urrutiak ekainaren 14an antzeztuko duten *Hozkailua* lanaren emanaldia.

Artedrama plataformak ekoiztuta eta Huts teatroak aurkezten duen lana, "adiskidetasunari buruzko istorioa da oinarrian". Ohi bezala, gaztetxean eta 22:00etan izango da, bost eurotan.

"Nork bere erara"

Artedramakoek Shot! estudioaren sutearen berri jakin zutenean, laguntzeko zerbait egiteko gogo sartu zitzairen, "eta zer hobeto hitzez baino praktikan adieraztea elkartasuna"; hori horrela, datorren eguenean sarrerekin batzen den dirua Arrasateko musika estudioari laguntzeko eskaini dute. "*Hozkailua* proposa iruditu zitzaigun, eta Kooltur Ostegunak zikloari estimu handia diogulako proposatu genien Arrasaten eskaintzea. Iñakirekin eta antolatzaileekin berba egin genuen, eta zauria laztantzen lagundu nahi genuela esan genien. Maitasun osoz



Lipus eta Urrutia aktoreak, *Hozkailua* lanean. ARTEDRAMA

